



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**  
**Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**

**KAZETARITZA GRADUA**  
2019-2020 IKASTURTEA

***MASS MEDIA*, AHOZKO HISTORIA ETA  
MEMORIAREN TRANSMISIOA:  
GERRA ZIBILAREN AZTARNAK OTXANDIOKO  
EMAKUMEEN OROIMENEAN**

EGILEA: Jone Arruabarrena Oruna  
ZUZENDARIA: Aintzane Rincón Díez

*Mass media*, ahozko historia eta memoriaren transmisioa:  
Gerra zibilaren aztarnak otxandioko emakumeen oroimenean

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

## **Aurkibidea**

---

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
1.1 Lanaren aurkezpena	4
2.2 Ikerketaren Helburuak	5
<b>2. MARKO TEORIKOA</b>	<b>6</b>
2.1 Subjektibitateak: historiografiarako erabilgarri	6
2.2 Memoria belaunaldi batetik bestera: transmisioa	8
<b>3. METODOLOGIA</b>	<b>18</b>
<b>4. GERRA ETA GERRAOSTEAREN INGURUKO EMAKUMEEN MEMORIA</b>	<b>23</b>
4. 1. Otxandioko emakumeen oroitzapenak	24
4.1.1. Eskola frankista: emakumeen erakunde diziplinatzailea	25
4.1.2. Bonbardaketa: heriotza eta traumak	30
4.1.3. Gosea eta miseria: gerraren beste aurpegi batzuk	33
4.1.4. Gerra normaltasun bezala: egunerokotasuna	40
4.1.5. Bortizkeria: emakumeenganako zapalkuntza bikoitza	44
<b>5. FILMEN ANALISIA</b>	<b>47</b>
5. 1. Emakumeak zinema historikoan: zer irudi transmititu da?	49
5.2. Gerra eta gerraostea emakumeen ikuspuntutik	52
5.3. Memoria eta mass media	57
<b>6. ONDORIOAK</b>	<b>60</b>
BIBLIOGRAFIA	61
ERANSKINAK	61

## 1.SARRERA

---

### 1.1 Lanaren aurkezpena

---

Walter Benjaminek esan zuen bezala, “orainak aipatzen du iragana”<sup>1</sup>. Horrela, iragana kontatzeko moduak eta noren iragana kontatzen dugun hautatzeak, ondorio zuzenak dauzka orainaldiaren eraikuntzan. Era berean, gure komunitatearen genealogiak egiterako orduan, eragina dauka zeintzuen esperientziei egiten diegun erreferentzia eta zeintzuk uzten ditugun kontaketa horretatik kanpo.

Beste hainbat alorretan sarri gertatu izan ohi den bezala, Otxandioko Gerra Zibilaren eta gerraostearen historia kontatzerako orduan, emakumeak errelatotik kanpo geratu dira eta ikusezin bihurtu izan ditugu. Horrela, emakumeen memoria berreskuratzeak, eragin zuzena dauka gaur egungo politika eta testuinguru sozialean. Walter Benjamin pentsalariari jarraituz, aldaketa ez da lortzen etorkizun hobe batekin amestuz, baizik eta jada existitzen denari esanahi berriak emanez. Proposamen horri jarraituz, estrategia transbertsal bat da lan honetan proposatzen dena, historiografia eta kazetaritza biltzen dituen, eta gaur egungo gizartearekin hartu eman zuzen bat eduki nahi duena, herriari ekarpen xume bat eginez. Izan ere, gaur egun transmisio tresna garrantzitsuenetako bat da kazetaritza, baina jakin egin behar dugu egungo errealitatea aldatzeko, transmisio hori nola egin behar den.

Bestalde, irmoki sinesten dut, Joseph Pulitzer kazetariak esango lukeen bezala, kazetaritzaren eraldaketa ahalmenean; gizarte justuago bat lortzerako bidean funtzio garrantzitsu bat betetzen du. Izan ere, aldaketak bultzatzeko, errealitateaz kontziente izan behar dugu, eta horretarako informazioa ezinbestekoa da. Zentzu honetan, gaur egun gizarte antifaxista eta berdinzale bat lortzeko bidean, kontziente izan behar dugu iraganean jazotako gertakari eta zapalkuntzez. Baina honek ez du esan nahi soilik historiako liburuetan arakatu behar dugunik: gure inguruan badaude pertsonak gertakari hauek lehen eskutik bizi izan dituztenak, eta inoiz ahotsa altxatzeko aukerarik izan ez dutenak. Horiek ere merezi dute gure arreta, eta kazetaritzak, nire aburuz, ahotsa ez dutenei ahotsa eman behar dien neurrian, istorio hauek sekulako premia daukate argia ikusteko.

Horrela, orainaldian esku hartze bat proposatzen dut, emakume hauen bizipenak berreskuratuz eta genero ikuspuntu batetik esanahi berri bat emanez, gaur egun emakumearen inguruan dagoen irudiari ekarri bat egiteko.

---

<sup>1</sup> Walter BENJAMIN (1942): *Sobre el concepto de historia*. Tokia: Editoriala.[edo alderantziz, Editoriala: Tokia].

## 2.2 Ikerketaren Helburuak

---

Funtsean, honakoak dira lan honekin lortu nahi ditudan helburuak:

Lanaren helburua gerra eta gerraoste garaietako emakumeen esperientzia aztertzea da. Horretarako iturri ezberdinak erabili eta landu ditut generoaren historiaren ikuspuntutik begiraturik: bibliografiaren bidez egingo dut ikuspegi orokor bat lortzeko, eta perspektiba zehatzago bat lortzeko asmotan, Otxandioko emakumeen lau testigantza bildu eta interpretatuko ditut, besteak beste hauek jasan zuten zapalkuntza espezifikoa aztertuz. Gainera, zinemaren bidezko transmisioaren inguruko hausnarketa txiki bat ere egingo dut, hiru film aztertuz: *Izarren Argia*, *La buena nueva* eta *Gernika*<sup>2</sup>. Funtsean, hiru iturri mota ezberdinetatik- bibliografia, filmak eta elkarrizketak- lortutako informazioa txertatuz joango naiz testuan zehar.

Bestalde, lan hau tresna teoriko huts bat izatetik haratago eramateko asmotan, Otxandioko emakumeen figura berreskuratzeko helburuarekin erakusketa bat proposatzen dut, udalarekin elkarlanean, baliabide grafikoak zein testigantzak erabiliz.

Ikuspuntu orokorrago edo globalago batetik, lan honek -eta bertatik atera daitekeen erakusketak- daukan helburua gaur egungo gizartean eragina izatea da; modu espezifikoko batean, genero problematikari bide emateko ekarpen xume bat izan nahi du.

Azkenik, lehenengo oinarri bat jartzea dut helburu, tresna teorikoak mahai gainean jartzea, transmisio baliabide ezberdinak erakutsiz, memoriaren berreskurapen kolektibo bat egiteko. Honetarako kazetaritzak edo ikus- entzunezkoek, komunikazio tresna bezala, izan dezaketen funtzioaz ere hausnartu dut, beti ere historiografiari erreparatzen dion estrategia intersiziplinar bat erabiliz.

---

<sup>2</sup> Mikel RUEDA (2010): *Izarren Argia*. Espainia: Baleuko S.L.; Helena TABERNA (2008): *La buena nueva*. Espainia: Lamia producciones; Koldo SERRA (2016): *Gernika*. Espainia: Pecado Films, Travis Producciones, Sayaka Producciones Audiovisuales, Gernika The Movie, Pterodactyl Productions, Anima Pictures.

## 2.MARKO TEORIKOA

---

### 2.1 Subjektibitateak: historiografiarako erabilgarri

---

Atal honetan, orain arte Otxandioko historiari buruz egin diren lanak aipatuko ditut, eta nire ustez historia hau kontatzerako orduan falta diren elementuak zeintzuk izan diren azalerazi, horrela, lan honen helburuekin bat eginez, elementu horiek zeintzuk izan behar diren eta zer modutan eraiki behar diren proposatzeko.

Gaur egunera arte iritsi zaigun memoriak, soilik gune jakin batzuk argitu izan ditu. Gune horietako bat, espainiako Gerra Zibilaz ari garelarik, Gernikako bonbardaketa izan da, eta gizonak izan dira. Izan ere, ikuspuntu maskulino batetik eraikitako historia izan da gailendu dena, beste hainbat perspektiba kanpo utzi dituen<sup>3</sup>. Bestalde, Gernikaz gain beste herri batzuek ere bonbardaketak jasan zituztela jakina da, baina badirudi, gaur egun ere, herri horiek bigarren plano batean jarraitzen dutela. Baina zer gertatzen da Otxandioko memoriarekin eta konkretuki Otxandioko emakumeen memoriarekin?

Bi liburu idatzi dira Otxandioko Gerra Zibilaren eta ondorengo urteen inguruan: *Otxandio Gerra Zibilean (1936/37)*<sup>4</sup> eta *Gerra Zibila Otxandion*<sup>5</sup>. Bi lan hauetako bestelako “bazterrak” ere nabarmendu nahi ditut: aipatutako bigarren liburuan bi orrialde hartzen dituen kapitulu bat dago, Otxandion ibili ziren kanpoko emakume milizianei buruzkoa. Horrez gain, liburuko 25 testigantzetatik 7 emakumezkoenak dira. Hori da Otxandion Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan emakumezkoen buruz idatzi den guztia.

Izan ere, orain arteko historiografiaren zati handi batek, subjektu unibertsal bezala aurkeztu du gizon zuria, eta askotan hiritarra. Horrek, hutsune bat sortu du beste ikuspuntu batzuei dagokionez, eta hau, askotan, kaltegarria izan da historiografiarentzat, beste ikuspuntu batzuek eman dezaketen aberastasuna eta berezitasunak galtzea ekarri duelako. Honela azaltzen du Miren Llonak:

“Ideal horrek, [historiografiaren zati handi batek helarazi duen ideal edo subjektu batez ari da] zeinaren giza ezaugarriak bat zetozen gizaki zuria eta burgesa definitzeko sortutako estereotipoekin, beste izateko modu guztiak, definizio horrekin parekatzen ez zirenak, subjektuaren kategoriatik kanpo uzten zituen. Subjektuaren ikuskera fenomenologikoez, aldiz, beren izatearen agerpen bakoitza baloratzen dute beren berezitasunagatik. Subjektu zehatz bakoitza, giza

---

<sup>3</sup> Hala ere, azken urteetan hainbat historialarik lan garrantzitsuak atera dituzte argitara, historia genero ikuspuntu batetik lantzen dituztenak; besteak beste, Mary Nash-en *Rojas* lana: Mary NASH (2006): *Rojas. las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madrid: Taurus.

<sup>4</sup> Jon IRAZABAL (2003): *Otxandio Gerra Zibilean*. Bilbo: Gerediaga Elkartea.

<sup>5</sup> Zigor OLABARRIA (2011): *Gerra Zibila Otxandion*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

subjektibotasunaren adierazpen posibleetako bat den heinean, berez da baliotsua. Subjektibotasun-forma guztiak, beraz, interesgarriak dira, giza esperientziaren adierazpen bakarrak eta trukaezinak irudikatzen dituztelako”.<sup>6</sup>

Modu honetan, Llonak ertzetako subjektibitate horiek aztertzeak daukan garrantzia mahaigaineratzen du. Ulertzen dut, Llonaren arabera, subjektuaren ikuskera fenomenologikoei arretarik ez jartzeak ez dituela doilik subjektu jakin horiek kaltetzen; ikuskera ezberdinek ematen duten aniztasuna kentzen diote historiari. Izan ere, esan dezakegu lan honetan aztertzen den subjektuaren esperientzia, azken urteetan aldaketa garrantzitsu eta baliotsuak eman diren arren, oraindik ere nahiko ezezaguna dela. Alde batetik, kontuan hartu behar dugu Otxandioren beraren ikusgaitasun eza, ohiko errelato baten parte izan diren beste eremu batzuk nabarmendu diren bitartean (Gernikako bonbardaketa, adibidez). Bestalde, nabarmentzekoa da emakumeen identitatearen bazterketa eta genero perspektiba baten falta gerra zibilari buruz egin diren lanetan. Modu horretan, esan dezakegu iraganaren parte bat dela kontatu dena, baina egia hori guztiz demokratizatze bidea luzea dela oraindik. Lan honen helburuetako bat da ertzetako beste esperientzia horiek azaleratzea, errelato aberatsago bat eraikitze. Bestalde, bereziki erabilgarria izan daiteke emakumeen historia modu espezifikoan aztertzea, Llonak azaltzen duen bezala:

“Generoak kategoria erabilgarria izaten jarraitzen du, bai gorputz sexuatuaren araudia aztertze, bai haiei lotutako esanahi-kateak, sozialak, politikoak eta kulturalak identifikatzeko, bai elkarrizketatutako pertsonen memoriarako”.<sup>7</sup>

Horrez gain, garrantzia eman nahi diet emakume hauen esperientziei, izan ere, esperientzia hauek berezko aberastasuna daukate, emakume bezala sozializatu izanak, errealitatearen ikuspegi propio bat suposatzen duelako, eta horrez gain, beraiek bizitako esperientziak bereziak direlako, orokorrean jasoak izan ez diren heinean. Emakumeen zapalkuntza oro har ulertzeko, testuinguru bakoitzean emakume hauen aurkako zapalkuntzaren adierazpen ezberdinak aztertu beharra dago, emakumetasunaren esanahiak ezberdinak direlako testuinguruaren arabera eta emakume bakoitzak testuinguru jakin bateko botere-harremanen logikari, sinesmen sozialei eta marko diskurtsibo zein emozional konkretuei erantzuten die.<sup>8</sup>

Bestalde, kontuan hartzekoa da, aztergai dudan testuinguruan eman ziren gertaera hauek, beraien identitateetan eragina izan dutela gaur egunera arte. Hau, hala ere, ez da

---

<sup>6</sup> Miren LLONA (2010): “Historia en obras: memorias, emociones y subjetividad”, Pilar PEREZ-FUENTES (ed) (2010): *Subjetividad, cultura material y género: diálogos con la historiografía italiana*. Barcelona: Icaria, 157 orr.

<sup>7</sup> Miren LLONA (2009): *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbao: EHU/UPV.

<sup>8</sup> Bakarne ALTONAGA, Maialen ARANGUREN, Aintzane RINCÓN (2017): “Ahozko Iturriak”, *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*, Bilbo: EHU.

kontu indibidual bat; emakume hauek gizarteko subjektu diren heinean, eta lagin ordezkagarri bat diren heinean, zentzu askotan beraien esperientzia, eta beraien identitatea, kolektibo handiagoetara estrapolatu daiteke. Gainera, emakumeak ondorengo generazioen sorkuntzan eragina izan duenez<sup>9</sup>, esan dezakegu emakume hauen bizipenek eta errealitatea pertzibitzeko moduak, ondorengo belaunaldietan eragin nabarmena izan duela. Izan ere, norberak bizitako esperientziak eta hauek osatzen duten bizi-ibilbideak, gaur egungo identitatea baldintzatzen dute; eta heziketaz arduratzen diren ama bezala, eragina daukate ondorengo belaunaldietan. Horrela gertatu da emakume hauen kasuan, eta batez ere, gerra bezalako gertaera traumatiko bat bizi dutenen kasuan. Hala ere, esan beharra dago emakume hauek transmititu dituzten esperientziak elkarreragin bat izan dutela testuinguru historiko zein diskurtsibo berriekin, eta hauek, era berean beste identitate batzuen sorkuntza ahalbidetu dute. Identitate hauek finkatzeko, norberaren kontzientzia izatea ezinbestekoa da, norberaren identitateaz jabetzea. Baina kontzientzia hau sortzeko, era berean, beharrezkoa da lengoaiaren bidez, subjektibitate hauek azaleratzea, nor bere burua kontatzea. Hemen sartzen da jokoan komunikazioak eta transmisioak daukaten garrantzia. Izan ere, identitateak ez dira berezkoak, baizik eta esperientziekin, prozesu diskurtsiboen, emozionalen eta soziopolitikoaren bidez eta gainerako pertsonekin harremanean sortzen diren gizakion dimentsio aldakor indibidualak eta kolektiboak.<sup>10</sup>

## 2.2 Memoria belaunaldi batetik bestera: transmisioa

---

Walter Benjamin pentsalariak iraganean ikusten zuen etorkizuna aldatzeko potentzialitatea<sup>11</sup>, eta benetako aldaketa iraganetik zetorrela aldeztu zuen, suntsitutakoa berreraikitzen zenean. Zentzu honetan, iraganaren kontaketa orainaldiko irudi dialektiko<sup>12</sup> apurtzaile batekin esku hartzea proposatu zuen. Izan ere, iragana gogoratzeko eta transmititzeko daukagun moduak, asko esaten du orainaldiari buruz. Hau da, iragana modu batean edo bestean kontatzen da, gaur egunetik honi kritika bat egin nahi bazaio edo hau goraiatu nahi bada. Funtsean, iraganari buruz egiten den kontaketak orainaldiari zentzua ematen dio. Benjaminek, ordea, iraganaren narrazio “bidezkoago” bat proposatzen du, justizia sozialean oinarritzen dena.

Gizatalde ezberdinek beti ematen diote garrantzi handia beren iraganari era ezberdinetan, eta iragan horrek beti dauka orainaldiarekin lotura narratibo estu bat. Era

---

<sup>9</sup> Irene Murillok, disidentzia sotilaren kontzeptua proposatzen du. Honen arabera, emakumeek gehienetan espazio publikoan modu esplizituki politikoan parte hartzen ez zuten arren, familia baten parte izatea ideologia eramaile bezala hartu daiteke. Hemen ikusia: María Laura MARTÍN-CHIAPPE (2019): “Fosas comunes de mujeres: Narrativas de la(s) violencia(s) y lugares de dignificación”, *Kamchatka: Revista de análisis cultural*, 13 zbk., 280 orr.

<sup>10</sup> Bakarne ALTONAGA, Maialen ARANGUREN, Aintzane RINCÓN (2017): “Ahozko Iturriak”, *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*, Bilbo: EHU.

<sup>11</sup> Walter BENJAMIN (1942): *Sobre el concepto de historia*. Frankfurt: Instituto de Investigación Social.

<sup>12</sup> Walter Benjaminen arabera, irudi dialektikoa orainaldian esanahi berri bat ematen zaion iraganeko irudi bat da.



berean, orainaldiak beti izaten du interbentzio puntu bat iraganaz egiten den narrazio horretan. Posmodernitatearen testuinguruan, *bazterreko* mugimenduen hazkundeak, besteak beste, feminismoaren bultzadak edo diskurtsoen historiak, agerian utzi zuen *beste* historia bat egiteko beharra eta horrek suposatzen duen ekarpena. Honek, 90. hamarkadan mugimendu historiografiko berrien hedapena ekarri zuen<sup>13</sup>; historiagintza ikuspuntu berri batetik begiratzeko premia, orain arteko historia berreraiki eta gaur egunekoa iraultzeko. Bereziki nabarmendu nahi dut garai honetan garrantzia hartu zuen generoaren historia, neurri batean posmodernitatearen eragina izan duena, eta teoria feministen ekarpenak ere izan dituen. Izan ere, ezinbestekoak dira korrante hauek genero problematikan aurrera egin nahi badugu: gizarte-kontakizun kolektibo baten produktuak gara, eta geure burua ulertzen dugu sozialki kontaktzen dugun historiaren bidez.<sup>14</sup>

Beraz, gizarte mailan, transmisioa nola egiten dugun giltzarria da. Eremu honi erreparatuz, Informazioaren Gizartea bezala ezagutzen dugun gaur egungo testuinguruko zenbait ezaugarri erreferentzia egin behar diogu. Postmodernitateari esleitzen dizkiogun ezaugarriak bat egiten dute gehienetan Informazioaren Gizartearen nolakotasunarekin. Gizarte postmodernoaren testuinguruan, aipatutako transmisio hori nabarmen aldatu da XX. mendeko forma nagusiekin alderatuta. Ikus entzunezkoek eta teknologia berriek garrantzi handia daukate egun transmisioa garatzerako orduan; protagonistak dira gaur egungo gizarteko edozein esparrutan, eta noski, baita sozializazioaren, informazioaren zein entretenimenduaren transmisioan ere. Komunikazioaren arlotik, ezinbestekoa da testuinguru historiko honetara moldatu eta transmisio mota berriak eraikitzea, eta geure buruari galdetzea, zer nolako harremana daukan historiak transmisio tresna berri hauekin. Izan ere, **gaur egungo belaunaldietara heltzeko baliabide garrantzitsua da teknologia**, eta hau modu efektibo batean ez erabiltzeak, zerkusua eduki dezake, agian, gaur egungo belaunaldiek iraganarekiko daukaten desafekzioarekin. Transmisio bide hauek sortzeko, ordea, funtsezkoa da bizi garen testuinguru komunikatibo zein historikoa ezagutzea.

Keith Jenkinsek azaldu duen moduan<sup>15</sup>, ikuspuntu postmodernoak historiaren ikerketan daukan eraginari buruz iritzi asko daude. Teorialari batzuentzat, ikuspegi horrek eragin erabakigarria izan du, historiaren joera positibistaren fundamentuak (neutralitatea, objektibitatea edota zeintifikotasuna) kolokan jartzeko balio izan duelako eta ikertzaileak iragana aurkitu eta bere horretan azaldu beharrean haren izaera eraikia aldarrikatzera eraman dituelako. **Historiografiaren eta kazetaritzaren artean, bada elementu komun bat: biek gertaerak kontaktzen dituzte.** Kasu honetan,

---

<sup>13</sup>Lan honen helburua ez da historiografiako korrante ezberdinak aztertzea, beraz, aipamen soilak egingo ditut gai honen inguruan. Informazio gehiago hemen: Miguel Angel CABRERA (2001): *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad*. Madril: Cátedra.

<sup>14</sup> Igor BARRENETXEA: "La representación audiovisual de la represión en el País Vasco", *La era de la memoria*. Bilbao: UPV/EHU.

<sup>15</sup> Keith JENKINS (2017): *The Postmodern History Reader*. Espainia: Routledge.

historiografiaren eremuan eman diren eztabaida intelektualak kazetaritzari ere aplikatzea posible da: neutralitatea zein objektibotasuna desmitifikatu dira gaur egungo testuinguruan, eta gailendu egin da kazetaritza –eta historiari ere aplikatu dakiokela esango nuke– inoiz objektiboa izango ez delako teoria/ikuspuntua. Bestalde, aipatu dudan bezala, teknologia berrietara moldatu behar dugu komunikazioa, baina era berean, komunikazio efektibo bat sortu behar dugu historia transmititzeko. Iraganera begiratzerako orduan, garrantzitsua da komunikazioa eta historiagintzaren arteko elkarlana sustatu eta hauek, modu bateratuan, aldaketarako tresna gisa erabiltzea. Rosalind Williamsek horrela dio:

“*La era de la información* lanean frogatzen zen bezala, zientzialari sozialek eta historialariek proiektu komun bat garatzeko komunikazio-modu sendoak sor ditzakete, bertara kultura profesional desberdinetatik hurbiltzen badira ere”.<sup>16</sup>

Hala ere, kontuan hartu behar dugu bizi ditugun garai postmodernoek nabarmen eragin diotela komunikazioari – eta alderantziz– testuinguru historikoak eragin nabarmena izan baitu komunikazioaren esparruan. Fredric Jamesonen esanetan<sup>17</sup> postmodernismoa, estilo artistiko edo arkitektoniko bati erreferentzia egiteko nozioa ez ezik, eredu sozial eta ordena ekonomiko berri bati erreferentzia egiteko terminoa ere bada [hau da, etapa historiko berri bat izendatzeko terminoa]: “modernizazioarekin, kontsumo-gizartearen edo gizarte postindustrialaren, *mass media* eta espektakuluaren gizartearen edo multinazionalen kapitalismoaren agerpenarekin”. Era horretan, “teknologizazio-garaian modernitateari berezkoak zaizkion ezaugarrien azelerazioa gertatu da, berria eta berriarekiko miresgarritasuna, baina berrikuntzaren balio iraultzailea ere, guztiz galdu direlarik”<sup>18</sup>. Hau argi ikusten da gaur egungo komunikazioaren testuinguruari erreparatzen badiogu, izan ere, gaur egun kazetaritzaren munduan gailendu den eredu geroz eta azalekoagoa da: azkartasuna lehenesten da sakontasunaren kaltetan. Berriak segundo gutxitan zaharkiturik geratzen dira, eta irakurleak berritasun gehiago behar ditu une oro; berritasunari, balio izugarria ematen zaio, baina **berritasun horrek berarekin dakarren azalekotasunak, sakontasun ezak, aldaketarako potentzialitatea edo berrikuntzaren balio iraultzaile hori errotik erauzten du.**

Teknologia berrien hazkundearekin eta kazetaritzaren digitalizazioaren eraginez, informazioa kontsumitzeko modua nabarmen aldatu da. Multimedia irabazi du garrantzia, berehalako informazioak, eta zaila da irakurleei hausnarketa sakonak egiten dituzten testu pausatuek, konplexuak eta abstraktuak, helaraztea. *La pasión por la*

---

<sup>16</sup> Rosalind WILLIAMS (2004): “La sociedad red desde una perspectiva histórica”, *La sociedad red: una visión global*. Madril: Alianza Editorial.

<sup>17</sup> Fredic JAMESON(2000): *Las semillas del tiempo*, Manatíal, Buenos Aires. Hemen ikusia: Bakarne ALTONAGA, Maialen ARANGUREN, Aintzane RINCÓN (2017): “Ahozko Iturriak”, *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*, Bilbo: EHU.

<sup>18</sup> *Ibidem*

*Mass media*, ahozko historia eta memoriaren transmisioa:  
Gerra zibilaren aztarnak otxandioko emakumeen oroimenean

*investigación periodística*<sup>19</sup> jardunaldian, Javier Darío Restreporekin daukan elkarrizketa batean María Teresa Ronderosek dio kazetaritza-eredu tradizionalak benetako krisian daudela: “Egunkariak krisian daude, Internet indartsuago sartu da. Interneten gauden kazetariei, prentsa idatzitik eta telebistatik, arintasun eta abiadurako garaiak direla esaten digute: egin dezakegun gauza bakarra eramateko gauza azkarrak dira, janari azkarra bezala. Garai hauetan, kazetari informatuak irakurleari munduaren berri ematen dion kazetaritza-eredua, goitik beherakoa, amaitu da”.

Gainera, horrenbeste informazio heltzen zaigu, ezen ez gara gai guztia prozesatzeko, eta irakurlea informazioaren artean itotzeaz batera, **albisteak pentsatzeko edo honen inguruan hausnartzeko gaitasuna ere galdu egiten da.**

Esandakoarekin lotuta, gaur egungo kazetaritzak<sup>20</sup>, berriazko informazio zorrotza eta sakona ematek urrun, gizarte postmodernoa ezaugarritzen duen estetizatorako joera geroz eta sendoagoa dauka. Estetizazioaz ari garelarik, nolabait azalekotasunaz ari gara; izan ere, testuinguru aktualean, edertasunaren mugak aldatu egin dira. Edertasuna artearen eremuetatik haratago igaro da, irizpide estruktural bat bihurtuz. Gure egunerokotasuna estetizatu egin da, eta edertasuna balore garrantzitsuenetariko bat bihurtu da bizitzaren eremu guztietan: forma edukiaren gainetik gailentzen den gizarte batean bizi gara. Honek ere, eragin nabarmena izan du komunikazioaren arloan; gaur egun salgarriena eta deigarrienak diren albisteak aurkitu behar dira, modu batean edo bestean atseginenak direnak, eta irakurlea aspertuko ez dutenak<sup>21</sup>.

Estetizismo honek lotura dauka berritasunarenganako miresmenarekin; hau hazten doan era berean, iraganarekiko hausnarketa eta ezagutzarekiko loturen galera bat ere antzeman daiteke. Postmodernitatea ezaugarritzen duen iraganarekiko desafekzio horrek, besteak beste, presentismo izeneko fenomenoak dakar berarekin. Presentismoak, hainbat forma hartu ditzake, baina gaur egun gehien agertzen zaigun bertsoan, aipatutako desafekzio edo inteteres falta bezala ageri zaigu, beti ere gizartearen joera orokor bat kontuan hartuta. Orainaldia agertzen den bezala asimilatzen da, bere burua eusten duen errealitate bat lez, hau eraikitzea posible egin duten iraganeko errealitateak existituko ez balira bezala<sup>22</sup>.

---

<sup>19</sup> Anuar SAAD SAAD (2012): “El sensacionalismo o la “insurrección” de las masas”, *Razón y palabra. Primera Revista Electrónica en América Latina Especializada en Comunicación*, 78. Zbk, .

<sup>20</sup> Hemen masan kontsumitzen den kazetaritzaz ari naiz. Gaur egun badaude bestelako kazetaritza mota baten alde lanean dabiltzan hedabideak, baina normalean baliabide urriak izaten dituzte, eta beraz, gizartearen eragiteko daukaten ahalmena txikiagoa da.

<sup>21</sup> Estetizazioaren kontzeptua Walter Benjaminek sortutako kontzeptuari jarraituz erabiltzen dut. Walter BENJAMIN (1989): “La obra de arte en la época de su reproductibilidad técnica”, *Discursos Interrumpidos*. Buenos Aires: Taurus.

<sup>22</sup> Rosalind WILLIAMS (2004): “La sociedad red desde una perspectiva histórica”, *La sociedad red: una visión global*, Madril: Alianza Editorial.

Gaur egungo kazetaritzak, ordea, iraganaren eta orainaldiaren arteko loturak sortuz, aldaketak eragiteko potentzialitatea izan dezake, gaurko testuingurura egokituz, baina era berean azalekotasunari aurre eginez –atzera zein aurrera begira–.

Postmodernitatearen beste ezaugarrietako bat, zatiketa eta indibidualizaziorako joera da. Hau Informazioaren Gizartean argi islatzen da; izan ere, irakurleak euskarri digitalen bidez mundua eta beste batzuen errealitateak ezagutu ditzake. Hau kolektibizaziorako eta harremanak sendotzeko tresna bezala ikusi daitekeen arren, postmodernitatean ohikoa den kontraesan bat ageri zaigu: gizaki postmodernoa mundu birtualean inoiz baino informatuago eta konektatuago dagoen bitartean, mundu materialean isolaturik sentitzen da. Gizakiak mundua gehiago ezagutzeko teknologia berrietan babes hartzen duen bakoitzean, are gehiago urruntzen da errealitate material kolektibo batetik.

Bestalde, komunikabideek, eragin zuzena daukate bakartutako subjektibitate horiek moldatzerako orduan. Komunikazioaren arlora guztiz aplikagarria da Felix Guattarik eta Suely Rolniken diotena:

“Gizarte postmoderno neokapitalistaren markoan, subjektibitateak edo “subjektibazioaren agentziak” dimentsio sozialak sortu eta moldatu ditu”.<sup>23</sup>

Izan ere, edozein testuinguruk subjektuak sortzen dituela kontuan hartuta, gaur egungo subjektibitate ezberdinak, gizarte kapitalista industrialak bere mekanismoen bidez, besteak beste komunikabideen bidez, sortutako produktuak dira.<sup>24</sup> Horrela, ulertu dezakegu komunikabideen bidez subjektibitate hauek nolabait moldatzeko ahalmena ere badela.

Gainera, kontuan hartu behar dugu, transmisio oro, sortu den testuinguruko aurreiritzi, balore edota ideiez eraikia dagoela. Altonagak, Arangurenak eta Rinconek azaltzen dutenez, pelikulen elementu guztiak diskurtsiboki eraikiak dira, eta era berean *egia-erregimenak* sortzen, sendotzen edo eraldatzen laguntzen dute, errealitatearekiko fideltasunari garrantzia kenduz. Honela diote:

“Horren ordean, gure interesaren erdigunean egongo da errealitatea errepresentatzeko formen nolakotasuna, eta horrek ikuslearengan edota jendartean izan dituen eraginak, produzitu dituen subjektibitateak, izate forma eredugarriak eta gaitzesgarriak eta abar”.<sup>25</sup>

---

<sup>23</sup> Félix GUATTARI, Suely ROLNIK (2006): *Micropolítica. Cartografías del deseo*, Argentina: Tinta de Limón.

<sup>24</sup> Bakarne ALTONAGA, Maialen ARANGUREN, Aintzane RINCÓN (2017): “Ahozko Iturriak”, *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*, Bilbo: EHU.

<sup>25</sup> *Ibidem*, 152 orr.

Horrez gain, adierazten dute, pelikula horiek garai baten gaineko ikuspuntu jakin bat eskaintzeaz gain, gaur egungo errealitatea aldatzeko ahalmena daukatela. Behin eta berriz erreproduzitzen den diskurtso horretan, aldaerak, edo borondatez, errepikapen ez-perfektuak gerta daitezkeela aldeztzen dute, eta modu horretan, momentu jakin bateko egia-erregimen batek eskaintzen dituen aukeren artean aldaera onargarria baina, era berean, apurtzailea edo ezohikoa sortzen dela.

“Zinemak subjektibitatean izaten duen eragina kontuan izanda, halako pelikulak izaten dira askotan pertsonen memorieta memoria-gune bezala mantentzen direnak. Eta, nola ez, horrelako proiektzio errebeldeek erantzukizun garrantzitsua daukate askotan oso pixkanaka eta oharkabean gertatzen diren aldaketetan-genero identitateetan gauzatzen direnak, adibidez-”.<sup>26</sup>

Beraz, honi jarraituz, ikus dezakegu zinemak –eta orokorrean *mass mediari* aplikatu diezaiokegu–, modu berritzaileetan eginez eta genero ezberdintasunak naturalizatzen laguntzen duten estereotipoetan arrakalak sortuz, potentzialitate eraldatzaile garrantzitsua izan dezakeela iraganarai buruzko transmisio emozional bat proiektatzen duen bitartean.

Hainbat autorek egin diote erreferentzia zinemaren ahalmen eraldatzaileari. Izan ere, zinemaren esperientziak, osagai indibidual eta korporal bat dauka, bere pertzepzio kolektiboa den arren. Kracauerren arabera, zineak ikuslea literalki mugiarazteko ahalmena dauka, eta Benjaminen ustetan, zineak potentzialitate politiko erradikal bat izan dezake. Gainera, azken honek dioenez, kamerak ahalmena du errepresioaren bidez ezkutuan mantendu izan dena, orain argitara ateratzeko<sup>27</sup>.

Beraz, zinema –eta gaur egungo gizartea murgildua dagoen *mass media*-k orokorrean– iragana gizarteratzeko elementu klabea direla esan genezake. Transmisioaren inguruan hausnartzeko, Alison Landsbergekin egindako ikerketarekin jarraituko dugu<sup>28</sup>. Memoria, eta iragana oroitzea, gaur egungo progresurako oztopo bezala ikusi izan da sektore askoren partetik; Landsbergekin ordea, memoria hori modu egokian transmititzen bada, aldaketarako aukera bezala ikusten du, politika aurrerakoia egiteko bide bezala. Autore honek egin duen ekarpen garrantzitsuenetakoa bat *memoria protesiko* kontzeptuari dagokion hausnarketa izan da. Kontzeptu hau eraikitzeke, Shelerren ikerketa<sup>29</sup> aipatzen

---

<sup>26</sup> *Ibidem*, 152 orr.

<sup>27</sup> Hemen ikusia: Alison LANDSBERG (2003): “Prosthetic Memory: The Ethics and Politics of Memory in an Age of Mass Culture.”, *Memory and Popular Film*, New York: Manchester University Press, 144-61 orr.

<sup>28</sup> Alison LANDSBERG (2003): "Prosthetic Memory: The Ethics and Politics of Memory in an Age of Mass Culture.", *Memory and Popular Film*. New York: Manchester University Press. 144-61 orr.

<sup>29</sup> Max SCHELER(1913): *The Nature of Sympathy*. Connecticut: Archon Books. Hemen ikusia: Alison LANDSBERG (2003): "Prosthetic Memory: The Ethics and Politics of Memory in an Age of Mass Culture.", *Memory and Popular Film*. New York: Manchester University Press. 144-61 orr.

du Landsbergekek. Bertan, Schelerrek *fellow-feeling* kontzeptua erabiltzen du benetako erantzukizun kolektibo bat definitzeko, eta azaltzen du gizakiak ahalmena duela, bestearekiko errukia sentitzeko, bere azalean bestearen esperientzia bizi ez badu ere. Honetatik abiatuz, Landsbergekek arrazoitzen du posible dela pertsona batek lotura intimo bat edukitzea zuzenean bizi izan ez dituen gertakari batzuekin, eta memoria mota honi, “bigarren” maila batean transmititzen diren oroitzapen hauei, ematen die *oroitzapen protesiko* izena. Kontzeptua nolabaiteko metafora bat da; pertsona batek protesiko bat jartzen duenean, hau zure gorputzeko zati bihurtzen da.

Gainera, oroitzapen protesikoak bere azalean bizitakoak ez izan arren, hauen erabilpena azpimarratzen du, erabili egin ahal baititu pertsona batek, eta hauek bere mundu ikuskera alda baitezakete; baita enpatia sortu eta bestearekin harreman etiko bat sustatu ere. Horrela, iraganarekiko konpromezu bat sortu daiteke, (beste pertsona baten iraganeko oroitzapenak norberarenak bezala sentitzen badira) memoria protesiko hori, indibidual eta subjektibo soilik izatetik, identifikazio kolektiboago baterako oinarri bihurtzen baita.

*Memoria protesiko*-aren kontzeptua ulertzeko erabilgarria izan daitekeen adibide bat ematen du Maurice Halbwachs-ek<sup>30</sup>. Bere esanetan, hiri bateko auzo zaharretatik barna gabiltzanean, gozamen berezi bat sentitzen dugu kale eta etxe horien istorioaren berri ematen digutenean edo bertan gertatu ziren esperientzien berri jakiten dugunean. Izan ere, bertan bizi den pertsona batek auzoa bere begietatik ikusteko aukera ematen digunean, leku hori ikusteko modua guztiz aldatzen da, eta beraz, esan dezakegu, gu bertan bizi ez arren, beste baten oroitzapenek eragin sakona daukatela gure ikuspuntu subjektiboan.

Hau horrela, kontuan hartuta oroitzapen mota hauek, protesikoak, ez direla lehen eskukoak, ez eta izaki edo talde etniko bakar baten jabetzakoak,[jada beste pertsona batzuegana hedatu direlako, eta ez direlako pertsona bakar batenak] iragan publikoago bat eraikitzen dute: masa hedabideen bidez transmititzen baditugu, oroitzapen kolektiboak bilakatzeko potentzialitatea daukate.

Oroitzapenok bereziki traumatikoak badira, eragin sakona izan dezakete. Hau transmititzeak, memoria protesikoaren bidez, efektu hau gizarteratu dezake, eta beraz, Landsbergekek uste du, memoria hauek berezko potentzialitatea daukatela, era egokian transmitituz gero, gaur egungo norbanakoen ideia politikoetan eragina izateko. Gainera, transmisio hau merkantilizazioaren bidez masa handietara hedatzen bada, zinemaren, museoaren, interneten edo hedabideen bidez, honek eragin nabarmena izan dezake gizartearen noranzko politikoan. Zineak badauka ahalmen eraldatzaile hori, baina lekuek, testuinguruek eta eszenatokiek, testigantzetaz lagundurik, indar handia daukate, korporalitatea irabazten dutelako.

---

<sup>30</sup> Maurice HALBWACHS (1968): *La mémoire collective*. Paris: PUF.

Izan ere, memoria eraikitzeke moduaren arabera, posible izan daiteke, politika aurrerakoi eta elkartasunezkoak, modu publikoan eraikitzeke erabilgarriak izatea. Hau, generoaren auzian, argi eta garbi ikusten da.

**Landsbergen lanak agerian uzten du eskuartean daukagun lan honen erabilgarritasuna eta beharra ere.** Izan ere, genero problematikaren iraganak, eragina dauka gaur egungo errealitate sozialean, eta zapalkuntza hau pairatzen dutenenganako enpatia sortzeak, eragin zuzena izan dezake hau lantzerako orduan. Horrela, ahozko testigantzek eta filmek helarazten diguten transmisioa aztertzen badugu, baliabideak sortuko ditugu transmisio mota berriei bide egiteko, eta hauen bidez generoaren inguruko subjektibitateak aldatu eta politika eraldatzaileak gauzatzeko.

Arestian aipatu dugun komunikabideen testuingurua kontuan hartuta, eta transmisio mota berri horiei bidea zabaltzeko asmoz, beharrezkoa da testuinguru honetan transmisioa ere teknologia berrietara egokitzea, eta are gehiago: teknologia berriek baliabide ugari ematen dizkigute transmisio hau modu emozional batean egiteko [eta hortik lehen mailako bizipen baten simulazio bat sortzeko]. Modu horretan, sakoneko hausnarketek masengana heltzeko zailatasunak badituzte ere, transmisio emozional batek memoria kolektibo baten biziraupena bermatuko luke. Izan ere, Landsbergekin bat eginez, gaur egun dauden teknologiek oroitzapenen transmisioari nolabaiteko korporalitate bat ematea ahalbidetzen dute, eta honek efektiboagoa egiten du *memoria protesikoaren* eragina norberaren subjektibitatean. Kontatzen digutena emozioen bidez sentitzeak efektu iraunkor bat dauka gudan, eta azaleko informazioa ez bezala, ez da azkar ahazten. Landsbergekin, gainera, zinearen eta teknologia berrien gaitasuna azpimarratzen du enpatia sentiarazteko. Izan ere, enpatia hau ezinbesteko tresna bezala ikusten du etorkizunean errepresioa eta bortizkeria sahiesteko. Gaur egun oroitzapenak generazio batetik bestera, ahoz transmititzeko ohitura galdu eta, era berean, teknologiak leku berri eta garrantzitsu bat hartu du. Hau kontuan hartuta, egokia litzateke, teknologia erabiltzea transmisioan sortu den hutsune hori betetzeko.

Bestalde, azken urteetako korrante historiografiko berriek, ahozko historiaren garrantzia berreskuratu dute, eta historiaren transmisiorako tresna baliagarri gisa ageri zaigu. Horrela azaltzen du Miren Llona historialariak:

“Oroimen indibiduala eta oroimen kolektiboa lotzen dituen lotura estuak instantzia konplexu bihurtzen ditu oroitzapen pertsonalak, eta, horri esker, oroitzen dena zer baldintza pribatu eta publikotan gertatzen eta transmititzen den aztertu daiteke”.<sup>31</sup>

---

<sup>31</sup> Miren LLONA (2009): *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbao: EHU/UPV.

Beraz, esan dezakegu, ahozko testigantzak, gertakari bat azaltzeaz haratago, baliagarriak izan daitezkeela, kulturaren adierazpen eta errepresentazio diren heinean, memoriaren, ideologiaren eta subkontzientearen dimentsioak ere aztertzeke.<sup>32</sup>

Askotan ez da ahozko memoria iraganaren berri jakiteko baliozko tresnatzat hartu, haren izaera subjektiboagatik, eta hau ezin delako orokortu edo memoria kolektibo bezala txertatu. Hala ere, beste autore batzuek adierazi dute memoria indibiduala eta kolektiboa banaezina dela, izan ere, memoria kolektiboaren analisi bat egiteko, honen bertsio indibidualen bidez baino ezin dezakegu egin<sup>33</sup>.

Gainera, Otxandioko kasuan bezala, herri txikietan, are lausoagoa da oroimen indibidual eta kolektiboaren arteko muga, izan ere, hiri handi batean oharkabean igarotzea erraza den bitartean, herri bateko biztanleak etengabe elkar behatzen dute, eta taldearen oroimenak modu zehatzean grabatzen du horietako bakoitzaren egitate eta keinuetatik lor dezakeen guztia. Horrelako inguruneetan, norbanako guztiek batera pentsatzen eta gogoratzen dute neurri handian. Bakoitzak, ez bairik gabe, bere perspektiba du, baina besteekiko harremanak hain estuak direnean, oroitzapenak lausotu egiten badira, besteen ikuspuntuan kokatzea nahikoa da hauek zuzentzeko.<sup>34</sup> Horregatik, interesgarria da, lan honen kasuan, adin berdintsua duten emakumeei garai horri buruz galdetzea; batetik, garai berdinari buruzko ikuspuntu ezberdinak aztertzeke, eta bestetik ikuspuntu hauek komunean dituzten puntuei begiraturaz, eta errelato bakoitzak bestearekin daukan elkarreragina aztertuz, kontaketa kolektibo bati ekarpen bat egiteko.

Horrela, memoria subjektiboa aztertzeak ez du kolektibotasuna alde batera uzten; biak lotuta doaz. Halbwach-ek egiten duen proposamenaren arabera, oroitzapenen eraikuntza indibiduala taldeen barruan egiten da, eta hauek, era berean, *memoria komunitateak*<sup>35</sup> osatzen dituzte. Honen eraginez, norbanakoen memoria eta memoria soziala banaezinak bihurtzen dira, eta iraganeko gertakari sozial baten inguruan zerbait jakin nahi badugu, ezinbestekoa egiten da norbanakoei galdetzea, ez baitago oroitzapenak gorde eta antolatzen dituen sujetu kolektiborik. Memoria kolektiboaren esanahiak, bertsio indibidualen bidez soilik aztertu ditzakegu, Miren Llonak azaltzen duen bezala. Gainera, historia modu honetan aztertzeak, bestela lortuko ez genukeen hainbat informazio lortzeko bidea ematen digu, besteak beste, gogoratutakoa gertatzen eta transmititzen den egoera pribatu eta publikoak aztertzeke.

---

<sup>32</sup> Luisa PASSERINI (1979): “Work Ideology and Consensus under Italian Fascism”, *History Workshop Journal*, 8. Liburukia, 1. zbk. 82–108 orr. Hemen ikusia: Bakarne ALTONAGA, Maialen ARANGUREN, Aintzane RINCÓN (2017): “Ahozko Iturriak”, *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*. Bilbo: EHU. 138 orr.

<sup>33</sup> Bakarne ALTONAGA, Maialen ARANGUREN, Aintzane RINCÓN (2017): “Ahozko Iturriak”, *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*. Bilbo: EHU. 139 orr.

<sup>34</sup> Maurice HALBWACHS (1968): *La mémoire collective*. Paris: PUF.

<sup>35</sup> Maurice HALBWACHS (1968): *La mémoire collective*. Paris: PUF.



Atarian adierazi dudan bezala, historiografia errealitatea aztertzen eta honen barnean egia absolutu bat aurkitzen saiatu izan da denbora askoan. Baina beste autore batzuek, Miren Llonak kasu, beste historiografia mota baterako hautua egin dute. Lan honek asko zor dio subjektibitateei eta esperientzia subjektiboek garrantzia eman dioten historiagileei. Izan ere, esperientziak pertsona baten ibilbidean utzi dituen arrastoen bidez, honek utzi dion memoriaren bidez, ez dugu errealitatea ezagutuko, baizik eta pertsona horrek errealitate hori ulertzeko izan duen modua.<sup>36</sup> Hau azaltzeko, lan eta ikuspuntu mota hauetan erreferentziazko historialaria den Miren Llonaren bi lanetan oinarrituko naiz, bereziki: *Historia en obras: memorias, emociones y subjetividad*<sup>37</sup> eta *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*<sup>38</sup>.

Bestalde, Vasudevi Reddyri jarraituz, gizakiaren emozioak ezinbesteko kanalak liriateke errealitateari esanahia emateko, mundua ulertzeko, bere burua ezagutzeko eta gizarte egituretan kokatzeko. Zentzu horretan, garrantzi handia dauka eraikuntza identitario eta subjektiboen ikerketa egitean historian zehar prozesu emozionalek izan duten eragina aztertzeak, prozesu eta transformazio sozial garrantzitsuenetan dimentsio emozionalak berebiziko garrantzia daukalako.<sup>39</sup>

Gainera, nabaria da, lan honen hasieran aipatu dugun bezala, iraganeko bizipenek gaur egungo subjektibitateak, kasu honetan emakumeak, eraikitze orduan izan duten eragina. Izan ere, identitateak guztiz baldintzatzen du iraganeko bizipen batzuk dituzten pertsonen egiten duten transmisio hori, eta ikusi dugun bezala, hainbat faktoreen arabera beraien bizi ibilbidearen gainean eraiki duten errelatoarengatik ere. Identitate horiek memoriaren bidez eraikitzen dira, eta munduan gizabanako gisa aurkezten dugun espezifikotasuna, oroimenari zor diogu.<sup>40</sup>

“Memoria giza subjektibotasunaren motorra dela uste dugu, baina, era berean, pertsonen izateko moduak ez direla gaitasun mentalak, gorputzean inskribatuta daudela uste dugu. Izatearen identitate-eraikuntzak, oroimenaren bidez azter dezakegun horrek, bere aztarna eta gorputzean markatutako ibilbidea uzten ditu”.<sup>41</sup>

Gorago aipatu dudan bezala, funtsezkoa eta garrantzitsua deritzot subjektibitate hauek berreskuratzeari, emozioen irakurketa bat eginez, ahozko historiak ematen dizkigun baliabideen bidez; baina inoiz ere ahaztu gabe, elkarrizketatzen ditugun pertsonak kolektibo baten parte direla, eta testuinguru baten barruan bizi izan dituztela egoera

---

<sup>36</sup> Miren LLONA (2010): “Historia en obras: memorias, emociones y subjetividad”, Pilar PEREZ-FUENTES (ed) (2010): *Subjetividad, cultura material y género: diálogos con la historiografía italiana*. Bartzelona: Icaria, 157 orr.

<sup>37</sup> *Ibidem*.

<sup>38</sup> Miren LLONA (2009): *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbao: EHU/UPV.

<sup>39</sup> Vasudevi REDDY (2001): *Coyness in Early Infancy*. Portsmouth: Blackwell Publishers.

<sup>40</sup> *Ibidem*, 22 orr.

<sup>41</sup> *Ibidem*, 16 orr.

hauek, horrela norbanakoen eta testuinguru sozial zein politikoaren arteko lotura bat eginez, gaur egungo komunikazioan gertatzen den eta aurrerago aztertuko dugun despolitizazioa<sup>42</sup> sahiestuz.

### 3.METODOLOGIA

---

Arestian aipatu bezala, lan honetan helburuak lortzeko hiru baliabide mota erabili ditut: bibliografia, filmak eta elkarrizketatuen testigantzak. Bibliografiari dagokionez, Miren Llonak ahozko historiari eta emozioei buruz egin dituen lanak eragin handia izan dute lan honetan, bai teorikoki, zein elkarrizketak burutzerako orduan. Alison Landsbergegek egindako ikerketak ere oso erabilgarriak dira nire helburuak lortzerako orduan, interesgarriak baitira transmisioa aztertzeko. Landsbergi jarraituz, iraganean bizitako emozio eta sentipenak *mass media*-k nola islatu dituen analizatzeko, hiru film behatu ditut: *Izarren Argia*, *La buena nueva* eta *Gernika*.

Lan honetarako erabili ditudan testigantza zuzenei dagokienez, Otxandion Gerra Zibilean eta gerraostean bizi izan ziren lau emakume elkarrizketatu ditut. Elkarrizketak egin eta transkribatu ondoren, hauen interpretazioa historikoa egin dut, jaso ditudan testigantzen esanahia iraganeko testuinguru horien logikaren baitan azalduz. Horretarako, garaiko historiari buruzko liburuak eta genero arloko aditu ezberdinen lanak erabili ditut. Jarraian, elkarrizketatu ditudan emakumeen informazio orokorra adieraziko dut<sup>43</sup>:

Nati Egia 1927 urtean jaio zen. Igorren bizi izan zen, baina bere aitona-amonak Otxandiokoak ziren. Bonbardaketak Otxandion harrapatu zuen, jaietara etorri baitzen, eta honen ondoren Igorrera ihes egin zuen familiarekin. Gero Otxandiora bueltatu zen berriz, eta bertan bizi izan da gaur egunera arte. Gerra aurretik Igorreko eskolara joandakoa da, eta ondoren Otxandiokoan eman zuen izena.

Leonarda Urigoitia, 1927 urtean jaio zen Otxandion. Bonbardaketak landan, lanean harrapatu zuen, eta bertatik ikusi zuen herria bonbardatu zuten unea. Honen ondoren Bilbora alde egin zuen bere ama eta anai-arrebekin, eta bertan egon zen denbora batez. Gero, Otxandiora itzuli zen, eta bertan bizi izan da. Eskolara batzuetan joaten zen arren, mandatar bezala lan egiten zuen, eta honek ez zion ikasketetarako denbora asko uzten.

Emilia Urigoitia 1932 urtean jaio zen. Lau neba arreba ziren etxean, eta baita gurasoak eta aitona ere. Bonbardaketaren ondoren Basaurira joan zen familiarekin, eta handik Bilbora. Gerraostean Otxandiora itzuli zen. Bertako eskolara joan zen, eta hau bukatzean Bilbon egin zuen urte bat neskame bezala.

---

<sup>42</sup> Hemen despolitizazioaz ari naizenean, kontziente naiz despolitizazio hori, berez oso politikoa dela, eta gaur egungo hedabideek transmititzen diguten irudi “apolitiko” horrek askotan, Gerra Zibilaren “anaiei arteko” gerraren diskurtsoa indartzera daramala berarekin.

<sup>43</sup> Elkarrizketa guztiak Otxandion egin dira, protagonista bakoitzaren etxean.

Regina Bengoa gerraostean jaio zen, 1941. urtean. Beraz, ez zuen gerra bizi baina oso ondo ezagutu zuen gerraosteko atmosfera. Zazpi anai-arrebetatik gazteena zen, eta eskolara joaten zen, hilabete batzuetan kale egin behar izaten zuen arren, behiak zaintzeko. Eskola bukatutakoan, bi urtez egon zen baserrian amari laguntzen, gainontzeko neba-arrebak soldaduskan edo neskame lanetan zebiltzalako. Gero, 16 urtetik 19 urtera arte bera ere neskame egon zen Bilbon. Ondoren Otxandiora bueltatu zen.

Juan Luis Arruabarrena (1938) ere Otxandion jaio zen. Regina Bengoaren senarra da, eta bere familiako emakumei buruz oroitzen dituenak ere erabili ditut lan honetarako.

Transkripzioak nik egin ditut; guztiek Otxandioko hizkeran hitz egiten dute, eta lanean beraien aipuak barneratu ditudanean egokiena iruditu zait hizkera hau mantentzea. Izan ere, iruditzen zait beraien esentzia eta espontaneitatea mantentzen dutela horrela, eta aldi berean gure helduen euskalkia baliozkoa dela uste dut. Hala ere, beharrezkoa ikusi dudanean zenbait hitz edo kontzeptu azaldu ditut euskera batuan. Lana, bere osotasunean euskaraz izateari garrantzia eman diot, eta lan honetan aipatzen diren ikerlari zein adituen aipu guztiak euskarara itzuli ditut. Hala ere, Leonarda Urigoitiaren aipu batzuk gaztelaniaz daude, berak elkarrizketa hala egin nahi izan zuelako. Goian aipatu ditudan arrazoiengatik, ez euskaratzea erabaki dut.

Bestalde, azpimarratu beharra dago elkarrizketa guztiek, ezaugarri jakin batzuk dituztela, beraien emakume izaerarekin zein egoera sozialarekin lotzen ditudanak. Besteak beste, emakumei egindako elkarrizketetan sarritan gertatzen den bezala, gehienetan beste batzuen istorioak kontatzera jotzen dute, norbere buruan eta emozio pertsonaletan zentratu beharrean, hauei buruz galdetu arren. Elisabeth Jelinek azaltzen du<sup>44</sup>, errepresioaren memoriari kasuan, adibidez, emakumeek beraien rol tradizionaletik kontatzen dituztela oroitzapenak, *besteentzat bizi diren* emakumeen gisara. Hau, emakumeari lotu izan zaion definizioarekin lotzen du Jelinek, besteak zaindu eta artatzera bideratuta dagoena, eta kasu hauetan, askotan bere identitate propioari garrantzia kentzea dakar, besteak, zaindu dituen horiek nabarmenduz.

Hau, modu argian ikusi da elkarrizketetan. Izan ere, Gerra Zibilaren zein gerraostearen inguruan Otxandion bizi zenari buruz galdetzean, elkarrizketatutako emakume guztiek gizonen esperientzietara jo dute, beraien hurbileko gizoni buruzkoak kontatuz. Zuzenean emakumei buruz galdetzerako orduan ere, nabari zitekeen ez dietela gizoni bezainbesteko garrantzia ematen, eta batzuetan, interesik gabeko istoriotzat jo dituztela. Horrela azaltzen du emakumeen artean nolabait orokortua dirudien joera hau Miren Llonak:

“Badirudi emakumeek zeharkako estiloa erabiltzeko joera dutela, eta horrek esan nahi du gehiago kontatzen dutela beste batzuek esan dutena, hitzez hitz.

---

<sup>44</sup> Elisabeth JELIN (2001): “El género en la memoria”, *Los trabajos de la memoria*, Madrid: Siglo XXI.

Gizonek, berriz, gehiago hitz egiten dute beren hitzekin; gai bat duten eta, neurri batean, gogoangarriak diren istorioak kontatzen dituzte”<sup>45</sup>.

Horrez gain, emakumeei buruz galdetzean, hauek egunerokoan zeuzkaten egin beharretan asko zentratu dira. Izan ere, guztiek nabarmendu dute garbitasunaren, bordatzearen edo jostearen garrantzia, besteak beste. Funtsean, esan dezakegu garai hartan feminitateari lotzen zaizkion balioak direla, eta gainera, gaitasun hauek edukitzeak nolabaiteko estatusa ematen ziola emakumeari. Bestalde, Jelinek honekin lotzen den azalpen interesgarri bat ematen du. Bere aburuz, emakumeen kontakizunetan, besteak beste holokausto nazia bizi izan zuten emakumeen narrazioetan, biziraupen fisiko eta soziala emakume gisa sozializatzean ikasitako rolak birsortzeari eta birsortzeari lotuta dago: garbiketan enfasia, josteko eta gogoratzeko trebetasunak, beste batzuen zaintza, familia-loturak «berrasmatzea» ahalbidetu zuten espazio komunitarioak...Hain zuzen, Jelinek arabera, kontzentrazio-eremu nazietatik bizirik atera zirenen analisi batzuek adierazten dute emakumeek «hobeto» egin ziotela aurre beraien izaera pertsonala suntsitzeko saiakerari, beren egoak ez baitzeuden beren baitan zentratuta, baizik eta beren ingurunera eta hurbileko beste batzuetara bideratuta.

Bestalde, garrantzitsua da, atarian adierazi dudana bezala, kontakizun hauek modu indibidual batean ez ulertzea. Izan ere, garai hartako esperientzia pertsonalak etengabeko elkarreragin batean zeuden hauen testuinguruarekin, eta emakume hauen identitateen eraikuntzan eragin nabarmena izan dute. Era berean, esperientzia pertsonal hauek aztertuz garai hartako kultura eta hauek gizartean izan zuen eragina analizatu dezakegu. Garrantzitsua da, zentzu horretan, elkarrizketatuek dituzten balioak eta sinismenak aztertzea, garai hartan bizi zuten egunerokotasunaren azterketa bat eginez, erregimenak berak defendatzen eta sustatzen zuen kultura eta ideologiak gizartea osatzen zuten indibiduoetan zer eragin zeukan ulertzeko eta norbanakoek guzti horri nola erantzuten zieten ulertzeko.

Horrez gain, Nerea Arestik nabarmendu duen moduan, diskurtsoek ez dute norbanakoen gainean alde bakarrez jarduten, baizik eta “integrazio- eta erresistentzia-joko” bat sortzen da, [non] diskurtsoak zerbait desberdin bihurtzen baitira, birsortutako identitate baten parte, ekintza politikoko subjektu berri bat”<sup>46</sup>. Gizarteko diskurtsoek eta norbanakoaren diskurtsoek, elkar elikatzen dute modu honetan.<sup>47</sup>

Otxandioko emakumeen lagin txiki baten esperientziak jaso eta interpretatu ondoren, Gerra Zibileko eta gerraosteko era honetako beste esperientzia batzuk orain arte nola

---

<sup>45</sup> Miren LLONA (2009): *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbao: EHU/UPV.

<sup>46</sup> Nerea ARESTI (2010): *Masculinidades en tela de juicio. Hombres y género en el primer tercio del siglo XX*. Madrid: Cátedra. 22-23 orr. Hemen ikusia: Miren LLONA (2009): *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbao: EHU/UPV

<sup>47</sup> Lan hau egiterakoan, kontziente naiz metodologia honek erakutsi ditzakeen arazoetaz, baita hauen inguruan ahozko historiak bizi dituen eztabaida aberasgarrietaz. Horrela, kontuan hartu behar dugu, besteak beste, intersubjektibitatearen ideia [elkarrizketatua eta elkarrizketatzailearen artean sortzen den harremanak edukian daukan eragina] eta baita subjektua bizi den kulturako diskurtso publikoak zer eragin daukan subjektuarengan eta honen errelatoan.

transmititu izan diren behatu dut. Horretarako, lehen aipatu ditudan hiru proposamen kulturalak landu nahi izan ditut.

Saturraraneko emakumeen historia **zinemaren** bidez nola transmititu den aztertu dut, *Izarren Argia* filma aztertuz. Bertan, Victoria, Saturraraneko kartzelara sartzen dute 1938an, bere ahizpa Sagrario eta semearekin batera. Horrela, Victoriaren pertsonaiaren bidez, pelikulak bertako kartzelan egon ziren emakumeen bizipenak berreskuratzen ditu, besteak beste ume lapurtuen gaia zein emakumeek jasan zituzten tratu txarrak azpimarratzen direlarik. Hau ahozko testigantzetan oinarrituta egin zela kontuan hartuta, nire ustez oso garrantzitsuak dira hauek transmisio “emozional” bat egiteko eta transmisio honek benetako eragina izateko. Izan ere, Miren Llonak emozioek oroitzerako orduan daukaten garrantzia azpimarratzen du bere lanetan, eta honela dio:

“Narrazio subjektiboa, emozioz betea, informazio benetan garrantzitsua da (...) ahozko iturriekin egindako azterketa historikorako informazio baliotsuena”.<sup>48</sup>

Antzerako kasuan da *La buena nueva* filmarena. Honek, Izarren Argiak bezala badauka memoria transmititzeko asmo bat, eta benetako istorio batean oinarritzen da. Filmean, Seminariotik irten berri den apaiz gazte bat, Alzania izeneko herri sozialistara bidaltzen dute 1936-1939 urteen bitartean. Gerra Zibila hastean, falangearen aldekoak herrian sartu eta errepublikarrak errepresio mota ezberdinen bidez nola zapaltzen dituzten ikusi beharko du apaizak, eta azkenean, hauek babestearren, elizaren eta erregimenaren aurka agertuko da. Testuinguru honetan, apaizak laguntasun estu bat eraikiko du herriko maistrarekin, azkenean maitasun istorio batean bukatuko dena.

Honekin batera, *Gernika* film-a ere aztertu dut. Filma 1937an kokatzen da, Euskal Herrian, 1936ko Gerra Zibila puri-purian dagoenean. Teresa neska gazteak, errepublikar prentsaren zentsura bulegoko arduradunak, Henry estatubatuar kazetari gaztea ezagutuko du, Iparraldeko Frontean berriemate lanetan dabilena, argazkilaria den bere lankide Martarekin batera. Guda Zibila eta bereziki Gernikako bonbardaketa da fikziozko maitasun istorio honen eszenatoki historikoa. Gertakari historiko horiek oinarri hartuta, garaiko kazetari baten ibilbidean oinarri hartzen du filmak.

Batak eta besteak, emakumeen esperientzien inguruan egiten duten irakurketaz hausnartu dut eta bakoitzak proposatzen duen “memoria mota” alderatu dut. Bestalde, jakina da filmeek metaforak edo adibide adierazgarriak erabiltzen dituztela, askotan muturrekoak, garai zehatz bateko testuinguruaren berri emateko, edo hona gerturatzeko, meheki bada ere; beraz, testuinguru hori nola transmititu den aztertzeke ere baliagarriak izan zaizkit.

---

<sup>48</sup> Miren LLONA (2009): *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbao: EHU/UPV

#### **4. GERRA ETA GERRAOSTEAREN INGURUKO EMAKUMEEN MEMORIA**

Emakume hauen oroitzapenak interpretatzeko, ezinbestekoa da, testuinguru baten baita kokatzea, oso orokorra bada ere<sup>49</sup>. Hala ere, Gerra Zibilaren aurretik bost urtez errepublikar gobernu bat egon zela jakin behar dugu, berarekin gizarte erreforma eta pentsaera aurrerakoiak ekarri zituen. 1936an Espainiako ezkerria *Frente Popular* alderdian batu zen, eta hauteskundeak irabazi zituen. Hau ikusita, militarrek estatu kolpea eman zuten, eta Gerra Zibila hasi zen. Soilik armadaren zati bat matxinatu zen, eta altxamenduak Espainiako zati batzuetan baino ez zuen arrakasta izan; hala ere, probintzia batzuk bereganatu zituzten, eta honen aurrean errepublikarrek langile iraultza bat jarri zuten martxan, langile alderdi eta sindikatuen gidaritzapean.

Errebeldeek garaipena lortu zuten lekuetan, militarrek hartu zuten botere osoa. Laster agertu zen bere aurka ondo antolatuta eta kontzientzia politiko handiarekin, langile mugimendua; gerora mugimendu armatu bat bihurtuko zena.

Altxamendua, esan bezala, militarra izan zen, baina ez zeukan fundamentu ideologiko sendorik; ideologikoki, kultura politiko anitzen bateragunea izan zen, eta heterogeneotasuna zen nagusi. Militarren helburu nagusia, batez ere, errepublikak egindako erreformak atzera botatzea zen, eta balore sozial tradizionalak berrezartzea, langileriaren iraultza posible bati aurre eginez.

Hala ere, kolpeak porrot egin zuen lekuetan, kontrako efektua izan zuen, eta beraien kontroletik kanpo geratu ziren lurraldeetan langileak mobilizatu eta iraultzarako bidea hartu zuten.

Esan bezala, altxatutako militarrek ez zuten ideologia sendo bat jarraitzen, baina bazeuzkaten bi oinarri zurrun: Espainiar nazionalismo sendo bat, zentralizazioaren alde egiten zuena, eta antikomunismoa. Horrez gain, generoari dagokion ikuspuntu zorrotz baten alde egiten zuten, beheerago aletzen joango garena.

Elizari dagokionez, oso paper garrantzitsua izan zuen, izan ere, armadaren ondoren, herrialdeko indar sozial eta instituzional garrantzitsuena bilakatu zen. Katolizismoa altxatutako espainiaren zutabe garrantzitsuetakoa bat bihurtu zen, eta altxamendua gurutzada bat bihurtu zen.

Errepublikarren aldekoiei dagokionez, berriz, altxamenduak ez zuen erreformismoa gelditu, baina beraren atzean zegoen iraultza sozial bat bultzatu zuen. Horrela, langileek

---

<sup>49</sup> Testuinguruan gehiago sakontzeko informazio gehiago hemen: José Luis DE LA GRANJA, Santiago DE PABLO, Coro RUBIO (2011): *Breve historia de Euskadi: de los fueros a la autonomía*. Barcelona: Debate. ; José Luis DE LA GRANJA, Santiago DE PABLO (2009): *Historia del país vasco y navarra en el siglo XX*. Bartzelona: Biblioteca Nueva.

antolatutako hainbat elkarte eta batzar sortu ziren, gobernuarekin lotura gutxi zutenak, baina lurralde bakoitzeko indarrak antolatzen hasi zirenak.

Frankistek Madril hartu ondoren, Francok “desgaste” estrategia bat jarri zuen abian, eta Iparralde osoa konkistatzen joan zen pixkanaka. Azkenean Bartzelona eta Katalunia osoa konkistatzea lortu zuen, eta Frantzia eta Britainia Handiak ere Francoren gobernu aitortu zuten.

Gerraostean inposatu zen logika kulturalak, neurri handi batean, gerraren logikaren luzapen bati erantzun zion. Aberriaren gaitza errotik atera behar zen garai bateko handitasunera bueltatzeko, eta honek nazionalismo periferikoak eta haiekin lotutako adierazpen kulturalak eta gizarte modernoarekin loturako hainbat jokoera –feminismoa, homosexualitatea, profesio liberalak...– deuseztatzea eskatzen zuen.

Gerra irabazi zutenen ikuspuntuaren arabera, beraien garaipenak “benetako Espainiaren Berpizkundea” ekarri bazuen ere adi egon beharra zegoen: nazioaren gorputzak “garbiketa tratamendua” jasotzen jarraitzea eskatzen zuen.

Frankismoaren garbiketa tratamendu honek eremu kulturalari (mentalitateen moldaketari) eman zion lehentasuna. Horrela, kolektiboari katolizismoarekiko eta aberriarekiko maitasuna txertatu behar zitzaion [eremu pribatuan, hau zen nazioaren aldeko amen egin beharra], eta lan honetan hedabideek, hezkuntza sistemarekin batera, paper garrantzitsua izan zuten.

Guda Zibilak iraun zuen bitartean, baita Francoren garaipenean eta honen ondoren ere, genero identitateek protagonismo handia izan zuten. 1936ko altxamendu militarrek, beraien aburuz errepublikarrek bortxatu zuten genero-ordena leheneratzeko proiektuari erantzun zion. Horrela, gerraosteko diskurtso ofizialak aberriaren eta genero-ordenaren ideiak guztiz bateratuta ageri ziren “errealitate” monolitiko bat eraiki nahi izan zuten. Testuinguru historiko honetan erregimenak zabaldu zituen diskurtso hauek, garai bateko bizi esperientzietan arrasto sakonak utzi zituen, eta honek, garai honetan bizi izan ziren emakumeen identitatean eragin handia izan zuten. Otxandioko emakumeengan gertaera historiko hauek zer eragin izan zuten edo hauek nola oroitzen duten jakiteko asmoz, tokiko gerturatze bat egingo dut hurrengo orrietan, hainbat emakumeren testigantzak orduko praktika diskurtsiboekin erkatuz, besteak beste.

#### 4. 1. Otxandioko emakumeen oroitzapenak

---

Otxandioko Gerra Zibilari buruz ikertzean, gehien aipatzen dena Andikona plazan jazo zen bonbardaketa da, Otxandion eragin handia izan zuen gertaera izan zelako. Era berean, elkarrizketatuei Gerra Zibilari buruz galdetzean, gehienak bonbardaketatik hasten dira. Egia da, alde batetik, orokorrean garrantzia eman zaion gai bat izan dela, eta

beraz, protagonistek ere garrantzitsutzat jo dutena. Hala ere, eta gertaera honi daukan balioa kendu gabe, beste gertaera batzuk garrantzi gabeak bezala agertu dira, egunerokotasunean txertatuago zeudenak, baina hala ere, askotan, protagonistetan eragin handia izan dutenak eta beraien identitatea konfiguratu dutenak; besteak beste, gudak utzi zituen gosea eta miseria, honek ekarri zuen bortizkeria, eskola bezalako erakunde disziplinatzaileak edo erregimenak emakumeen estereotipoetan izan zuen eragina. Emakumeen bizitzako elementu hauek aztertuko ditut, banan-banan, ondorengo analisian.

Bestalde, bonbardaketa gogoratzeko eta honi garrantzia emateko, badago beste arrazoi bat: bonbardaketa egitate traumatiko bat izan zen bertan egon zirentzat, eta lorratz sakonak utzi ditu hura bizi izan zuten herritarretan, emozio bortitzak bizi baitzituzten bertan. Horren ondorioz, askotan garbien gogoratzen duten oroitzapena izaten da, eta bonbardaketaren oroitzapenak, honi loturiko beste batzuk azalertzeko aukera ematen du. Honi, “memoria enklabe” deitzen dio Miren Llonak. Azaltzen duenez, emozio bortitzak eta sakonak eragin zizkiten uneak edota gertakariak hobeto gogoratzen dituzte subjektuek, eta une hau berriro gogora ekartzeak, hau berriro bizi eta honekin lotutako beste oroitzapen batzuk gogoratzea ekar dezake.

#### 4.1.1. Eskola frankista: emakumeen erakunde diziplinatzailea

Francoren erregimenak “erregenerazio nazionalerako” tresna baliagarri bezala ikusten zituen emakumeak, balore kristauak familiari helarazteko, zeina sozializazioerako nukleo garrantzitsua zen<sup>50</sup>. Eskola, balio hauek emakumeengana helarazteko tresna eraginkorra zen, eta hauek, ideologia-eramaile<sup>51</sup> diren heinean, familia helarazteko.

Orduan bezala, gaur egun ere eskolak eta hezkuntzari emandako instituzioek praktika diskurtsiboak eta identitateak eraikitzen laguntzen dute, eta hedabideez gain, paper garrantzitsu bat daukate balio eta sinesmenen transmisioan. Carlos Fuertes arabera<sup>52</sup>, hezkuntzaren arloa ezagutzea ezinbestekoa da Gerra Zibilaren inguruko diskurtsoak nola produzitu eta erreproduzitzen diren ulertzeko, eta gaur egun bertan transmititutako historiaren ondorioz, gizartean Gerra Zibilaren inguruko ideia osatu gabeak, faltsuak eta sasi-neutralak daude.

---

<sup>50</sup> Irene ABAD (2009): “Las dimensiones de la «represión sexual» durante la dictadura franquista”, Jerónimo Zurita, zbk.84. págs. 65-86. Zenbakiaren dossierra: *Guerra Civil: las representaciones de la violencia*, Javier RODRIGO eta Miguel Ángel RUIZ (koord.)

<sup>51</sup> María Laura MARTÍN-CHIAPPE (2019): “Fosas comunes de mujeres: Narrativas de la(s) violencia(s) y lugares de dignificación”, *Kamchatka: Revista de análisis cultural*. Zenbakiaren dossierra: *Topografías de la memoria: de usos y costumbres en los espacios de violencia en el nuevo milenio.* )

<sup>52</sup> Carlos FUERTES (2018): “La Guerra Civil Española en los libros de texto de la democracia: apogeo y pervivencia de la narrativa equidistante”. Hemen ikusia: Sergio VALERO, Marta GARCÍA (2018): “No dejes de recordarlo tú y no dejes de recordarlo a otros. Seguir historiando la Guerra Civil española”. Valentzia: Universitat de Valencia, 11-24 orr.



Bestalde, eskola instituzio kultural bat bezala ulertu behar dugu testuinguru honetan, erregimenak bere ideologia helarazi eta zabaltzeko erabiltzen zuena, “Estatu berriaren” lorpenerako. Horrela, Olabarria historialariak azaltzen duenez<sup>53</sup>, beste hainbat lekutan bezala Otxandioko eskolan ere “Cara al sol” abestu, garaileen ikusputuarekin bat egiten zuen Espainiako Historia landu, Francoren figurari gorazarre egin, zein balio kristauak lantzen zituzten. Baina horrez gain, formazio militarra ere irakasten zen, herriko plaza nagusian, jendaurrean eta egunero. Honek, guda nork irabazi zuen erakusteko balio zuen, eta garaituen artean menderatuen eta beldurraren kultura bat sortzeko. Horrelako adierazpenak, gainera, eskolan ez ezik, erakunde frankista disziplintzaileetan ohikoak ziren, besteak beste kartzeletan, aurrerago aztertuko dugun *Izarren Argia* filmean ageri den bezala.

Del Arco Blancok Francoren erregimenean beldurrak eta honen inguruan sortutako kulturak izan zuten garrantzia azpimarratzen du. Kultura, bere zentzurik zabalenean, diktaduraren ideologia eta baloreak helarazteko kanal bat izan zen. Beraz, Del Arco Blancok, historia postsozialaren planteamenduak testuinguru honen azalpenetara ekarriz, honakoa dio:

**“Gizakiek errealitatea esperimentatzeko eta errealitate horren aurrean erreakzionatzeko duten modua ez du errealitateak berak bakarrik zehazten, baizik eta errealitatea iruditeria jakin bateko kategorien bidez nola konfiguratzeko eta atzematen den moduak: nahiz eta Espainian erlijio politiko bat eratu ez, zeremonien, omenaldien, ospakizunen, antzezpenen eta garaipenaren errituen garrantziak balio, sinbolo eta esanahi bat izan zuen”.**

Eskola izan zen erritu guzti hauek, errepikapenaren bidez, barneratu eta normalizatu ziren erakunde garrantzitsuenetako bat. Garrantzitsua da bertara joaten ziren umeei nolako elkarreragina izan zuten instituzio honekin, eta honek transmititzen zuen sinbologiarekin. Eta, batez ere, zer eragin izan zuen gero honek, balio eta sinesmen sistema indibidualak sortzerako orduan. Jakinaenez, neskato zein mutikoei irakaskuntzaren bidez transmititzen zitzaizkien balioak, ez ziren berdinak zentzu askotan. Mary Nashen azaltzen duenez:

“Emakumeak hezkuntzan sartzea lanaren banaketa sexuala sendotzeko eta emakumeari bere ohiko emazte eta ama roleri egokitutako prestakuntza emateko sortu zen. Hala ere, aurrerapen handia izan zen; izan ere, hezkuntza-eskari gero eta handiagoak ulertarazi zuen ezjakintasunak ez zuela bermatzen etxekotza, obediencia edo hobia izatea etxekoandarearen betebeharreran”.<sup>54</sup>

---

<sup>53</sup> Zigor OLABARRIA (2011): *Gerra zibila Otxandion*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

<sup>54</sup> Mary NASH (2006): *Rojas. Las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madril: Taurus. 32 orr.

Emakumeen hezkuntzari dagokionez, eragin handia izan zuen liburuetakoa bat *El libro de oro de la educación de las niñas* izan zen. Lehengo aldiz 1850. urtean argitaratu bazen ere, hurrengo hamarkadetan hainbat aldiz berrargitaratu zen, errepublika garaian eta hurrengo urteetan ere oraindik eragina izan zuelarik. Honela zioen liburuak:

“Emakumeari gizakiaren hezkuntza eskolastikoa emateko ideia errefusatzeko dut: guztiz kontrakoa, emakume izaten irakatsi behar zaio, inurria bezain zuhurra, erleak bezain langilea”<sup>55</sup>.

Sara Ramosek, 1936-1939 urteen artean Espainiar estatuko eskoletan erabili ziren liburuak eta hauek transmititzen zituzten praktika diskurtsiboak aztertu ditu<sup>56</sup>. Ramosen arabera, emakumeak estereotipo tradizionaletara bideratzen zituzten liburu hauek:

“Emakumea funtsezko hiru rolen bidez definitzen da: etxeoandre, emazte eta amarena. Hura definitzen duten ezaugarri guztiek ezaugarri komun bat dute: gainerakoen zerbitzura egon beharra, hauek betiere familiar-tekoak izango direlarik. Gizarteak emakumearen esku uzten duen misioa seme-alabak haztera eta etxeo lanak egitera mugatzen da, etxeo aingeruaren papera bere gain hartuz”.

Ramosek azpimarratzen duenez, eskolak, eta bereziki irakasleak, berebiziko garrantzia zeukaten neskatoen heziketan; izan ere, familiarengandik jasotako irakaspenen luzapen bat zen eskola. “Etxeko emakume” izateko prozesu horretan, etxean amaren eredu eta eskolan maistrarena jarraitu behar zuten neskatoek, eta horren arabera izango zen “ama on bat” eta “ganorazko etxeoandre bat” izan zitezela etorkizunean. Hau da, alaba onak baziren, ama onak izango ziren.<sup>57</sup>

Hezkuntzari dagokion testuinguruaren nolakotasuna kontuan hartuta, esan dezakegu bildutako testigantzek honekin bat egiten dutela. Elkarrizketatutako emakume guztiak Gerraostean joan ziren Otxandioko eskolara, eta Doña Petra maistraren figura nabarmentzen dute honi buruz galdetzean. Emilia Urigoitiak, eskolako garaia horrela oroitzen du:

“Maistriek erakutsiozkun danetatik: errepasetan, bordetan, pinttetan, horretako maistra bat eukitten gendun itzela. Oin, begittik ez bazinen sartzen edozer gauza. Baine egoten ginen 105 neska maistra batentzat, eta eskola maisuen zerien ez zien ailegetan ehunia [maisua eskola ematen zien mutikoei], 99 mutilek, baine gu 105 neska. Mutilek goixen eta gu behien. Eta gero neska nausixek

---

<sup>55</sup> Antonio PIRALA (1915): *El libro de oro de las niñas*, Perlado Paez y Ca: Madril.

<sup>56</sup> Sara RAMOS (2003): “La educación de la mujer durante la guerra civil en diferentes contextos geográficos rurales y urbanos”, *Sarmiento: Revista Galego-Portuguesa de Historia da Educación*.

<sup>57</sup> *Ibidem*.

erakustezkuen ba instruktora moduen. Eukitten gendun eguenetan josten eta gero doktrinie. Etorten zan abadie, ta doktrinie<sup>58</sup> emoteozkun zapatueta eskolan, zapatu arratsaldetan. Baine bai, egoten zan danetatik, emoteozkuen danetatik. Baine eskolan, e? Beratziretatik sartzen ginen hamabixek arte. Eta gero ordubixetatik bostak arte (...) Ta Doña Petrak esantzut, gurebanak [nahi zuenak] josten, gurebanak bordetan, gurebanak jertsie eitten, galtzetinek eitten...ta danetatik erakutsiozkuzen”.

Pasarte honetan, interesgarria da elkarrizketatuak gaur egun eduki ditzakegun aurreiritziekin daukan elkarrizketa paraleloa. Izan ere, behin eta berriz azpimarratzen du kristau-ikasbideaz gain, beste gauza asko ere ikasten zituztela, nolabait azaleratu nahian, garaiko erregimenaren eskolan ikasitakoa ere kalitatezkoa eta erabilgarria zela. Emiliak bestelako irakasgaiak azpimarratzen ditu, baina Reginak edo Natik, behin eta berriz aipatzen dituzte “doktrina” eta Francori gorazarre egiten zioten edukiak.

Gainera, azken honek gerraren aurretik eta ondoren eskolan izandako aldaketak gogoratzen ditu, batez ere hizkuntzari eta erregimenaren balioei dagokionez. Nati Igorren bizi izan zen gerra baino lehen, eta bertako monjen eskolan ibilitakoa da. Gerraostean berriz, Otxandiora etorri ziren bizitzera: “Guk monjetan itten gendun erdera, euskera (...) gero Otxandixon erdera bakarrik”. Izan ere, eskolaren beste eginkizun garrantzitsu bat Estatu osoko homogeneotasuna (batasunaren izenean nonbait) ziurtatzea izan zen; lurralde arteko ezaugarri propioak folklore erregionalista bezala tratatu ziren beti. Honek, Euskal Herrian euskaldunak erdalduntzea ekarri zuen, eta kalean ere, euskaraz hitz egiteak isuna jasotzeko arriskua zekarren<sup>59</sup>. Hizkuntza ez ezik, bestelako aldaketak ekarri zituen frankoren erregimenak eskolara: “Otxandixua etorritte be egoten ginen eskolan larogehitaka ume. Begittu zer ein biher izeten gendun: cara al sol y viva España, besteik ezebez”. Regina Bengoa ere eskola berean ibili zen:

“Cara al sol ta Viva España kantau biher zien, ta banderie ata [atera]. Ta gero, erreza. Gero, arratsaldien be, atzia [berriro] erreza, ta gero Viva España edo zera. Orduen ez zan egoten besteik e? Relijinue eta politikie. Besteik ez zan egoten. Zapatueta etorten jakun abadie ebanjelixue emoten. Ordubete abadiatz, zapatu guztixetan. Maiatza ama birjinen hilie[hilabetea] izeten zan, ta nobenie eitten gendun. Hil guztixen, errosarixue erreza, arratsaldetan, ta ama birjinen pasarte bat leidu [irakurri]. Ta lehen ba horixe, dana politikie, Jose Antonio Primo de Rivera... eta eukitten gendun liburu txikitxo bat de la falange! Falange española! Con flechas y flechas azules! Ta ha be, katezismue moduen, leidu ta buruen sartute euki biher! Gero katezismue eukitten gendun: Soy cristiano por la gracia de dios! Ta historia sagrada... horrek danok euki ein biher, ta leidu ein

<sup>58</sup> Kristau-ikasbideari buruz ari da, apaizak Otxandioko umeei larunbatetan irakasten zietena.

<sup>59</sup> Zigor OLABARRIA (2011): *Gerra zibila Otxandion*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

biher. Diruik ezpaauren [ez bazuten] eukitten aittek eta amak be, erosi ein biher!”.

Hala ere, elkarrizketatuek gehien aipatzen dutena emakumeei lotu zitzaizkien zereginak dira, besteak beste josi eta bordatzea. Izan ere, *La niña instruida*, garaiko liburuan aipatzen den bezala, emakumeengan bestelako gaitasunek hartzen zuten garrantzia:

“Irakurtzen eta idazten jakin behar duzue, baina hori baino garrantzitsuagoa da zuhurtasuna, ordena, txukuntasuna eta lana maitatzea, denbora ondo erabiltzea eta etxearen barneko gobernu onerako beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzea”

<sup>60</sup>

Bestalde, aipatu beharra dago, emakume hauek josi eta bordatzeari ematen dioten garrantzia, gerora beraientzat izan duten erabilgarritasunari estu lotuta doala. Izan ere, esleitu zitzaaien emakume tradizionalaren rolean, garrantzizkoak ziren gaitasun hauek; txikitatik emandako hezkuntzak eta gerora izango ziren emakumearen rola, elkar elikatzen zuten horrela.

Hala ere, Otxandioko neskato guztiek ez zeukaten aukerarik eskolara joateko. Izan ere, gerraosteko miseria garaian, lan-eskua beharrezkoa zen etxe askotan, eta neskatoek gaztetatik hasi behar izaten zuten lanean. Batzuk, Regina Bengoaren kasuan bezala, hilabete batzuetan joaten ziren eskolara, eta gero baserriko lanetara itzuli behar izaten zuten:

“Behin Apirile ailegetan zanien enintzen jueten eskola, pentsau bez eskola jueteik. Apirile ailegetan zanien hasten ginen behixek zaintzen, ta aittegaz ittorren [aleak ehotzen], hirixekin, aurretik, hirixek jueteko artez [zuzen], goldan eta ibiltten zanien, ba aittei laguntzen. Ta urrittik azaruarte [urritik azarora arte], gu ez ginen jueten eskola. Oseake azarotik apirilea edo jueten ginen eskola. Gu jueten gineniako gure lagunek ekixen doblie gurie [gure bikoitza zekiten], baine guk ez gendun jakitten, asi que... Jakitten baeurien [bazuten] dividir, ba gu multiplikarregaz edo... eta dividir... ba... por aqui paso maria”.

Izan ere, eskolara joatea pribilegioa zen garai haietan askorentzat, eta badirudi nolabaiteko estatus bat ere finkatzen zuela. Leonarda Urigoitia gaztetatik hasi zen mandatarari bezala lanean, eta baita behiak zaintzen ere. Bere ahizpak eskolara joaten ziren arren, berak ez zuen askotan aukera izaten. Honek, nolabaiteko egonezina sortzen ziola nabaritzen da, eta behin eta berriz azpimarratzen du, eskolara joan ez arren ez zutela atzean utzi:

---

<sup>60</sup> Victoriano FERNÁNDEZ (1901): *La niña instruida*, Madril: El Magisterio Español. Hemen ikusia: Sara RAMOS (2003): “La educación de la mujer durante la guerra civil en diferentes contextos geográficos rurales y urbanos”, *Sarmiento: Revista Galego-Portuguesa de Historia da Educación*.

“Sí, al monte a cuidar vacas, pero mientras pues recados. Y luego a las noches yo hacía deberes, aunque mis dos hermanas iban a la escuela. [baxuago hitz egiten hasten da] Y yo cuidando vacas, sí (...)He ido dos años o tres...pero a mi no me han dejado mis hermanas atrás ¿eh? Mi padre me enseñaba(...)Yo hacía deberes. Doña Petra me mandaba deberes a casa, de vez en cuando, cuando venía el amigo, cogía y bueno, con eso nos íbamos contentas, y todos los días me mandaba deberes a casa”.

Bere neba zaharrena, ordea, ikastera bidaltzekotan ere egon zirela kontatzen du Leonardak.

#### 4.1.2. Bonbardaketa: heriotza eta traumak

Leonarda Urigoitia bombardaketaren unean landan, behientzako bazka egiten zebilen arren, hau amaitu eta segituan jaitsi zen plazara. Bertan ikusi zuena eta hura ikustean sentitu zuena argi gogoratzen du oraindik. Ikusi zuenak ondorio larriak utzi zizkion hainbat urtetarako:

“Creo que en años soñaba a grito pelado de noche. Pues mira, cuando estaban bombardeando la plazuela de Andikona eran fiestas de Ochandiano, y salió mucha gente, y allí empezaron a echar papeles... creían que eran papeles, los aviones. Y papeles, y eran bombas de fuego. Claro, cuando ya encendían, luego ya corriendo, pero dejaron todo lo que había en Andikona, todo mujeres [emakumeak lurrean botata zeudela adierazi nahi du]... Un soldado, **no se me olvida jamás**, agarrado a Vulkano, Ay! Vulkano no, a la fuente de la plazuela esa. Agarrado así y yo le hacía... [ukitzeko keinua egiten du] No... estaba muerto. Y fijate, les vi a mi... al padre de Jon, y a dos hermanos, que eran parientes de mi padre...bueno, parientes, muertos en la carretera, y el padre escribía algo con sangre, pero no...se mezclaba la sangre...no entendía. Y fui a casa y le dije al padre: Aitte, me parece que Jesús está con los dos hijos muertos, creo que es el, que tiene un poquito deformada la cara pero está desecho. Se marcharon los dos y mira, un esto...ahí...todo muertos, todo...aquello era... en años no se me podía quitar, cuando vi...era la guerra”.

Izan ere, bombardaketak arrasto sakonak utzi zituen bizirik atera zirenengan, eta honek, gure lanaren ildoari jarraituz, eragin nabarmena izan zuen hura bizi zutenengan. Gainera, aipatzekoa da Leonardak xehetasun askorekin oroitzen duen pasarte delako, eta berak ere onartzen duela hurrengo urteetan sarritan erreproduzitu izan zuela bere buruak, amets forman besteak beste, egitate traumatiko hori. Izan ere, Miren Llonak bere lanetan azaltzen duenez<sup>61</sup>, emozio gogorrenak eragiten dizkiguten gertaerak dira

<sup>61</sup> Miren LLONA (2009): *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbao: EHU/UPV.

gerora hoberen oroitzen ditugunak, eta baita, kasu askotan ere, garai horretako beste oroitzapen batzuk burura ekar ditzagun eragiten dutenak.

Andikonan ikusi zuenaren ostean, bertan zegoen kazetari batek eraman zuen etxera Leonarda:

“Y entonces fue cuando me llevó a casa el periodista, y al otro día me trajo una muñeca negra, con una cabeza de naranja, me hablaba en castellano, y me dijo: ‘no salgas a la calle, no salgas a la calle **que tu no tienes que ver estas cosas**’. De estas cosas me acuerdo porque me hacía con el dedo así [gora eta behera egiten du eskuarekin]. Pero miedo...ay...”

Pasarte honek, gainera, Espainiako Gerra Zibilean **egon ziren kazetarien presentzia** agerian uzten du, *Gernika* filmak kasu honetan ondo islatzen duen bezala, aurrerago, filmen analisisan, ikusiko dugunez.

Bonbardaketa igaro ondoren ere, asko dira biziki gogoratzen dituenak eta guri kontatzen ari denean irudikatu ere egin ditzakegunak. Berak adierazten digun bezala inpaktu emozionala sekulakoa izan zen eta urteak behar izan zituen ikusitakoak asimilatzeke:

“Ta gero gure etxe ostien [atzean], ipiniaren holako dendatxo bat, *heriduek* sartzeko, unas tienditas pequeñitas con una cruz roja. Y a mi me gustaba ver qué pasaba allí, pero no me dejaban entrar, **yo he sido fisgona** ¿eh? Heridos, bueno, se veían, que no conocías a nadie... A mi me costó mucho quitarme de la cabeza las cosas, mucho... Me acuerdo que el padre y la madre me solían traer un vaso de leche un poco de pan... **entonces era lo que había**. Y me decían: Ala, jaizu [jan ezazu] umie, jaizu, holan lo ein daizun”.

Nati Egiak bonbak eta zaurituak zuzenean ikusi ez bazituen ere, bonbardaketa bizi izan zuen, babestu nahian ezkutaturik. Berak ere beldurrez bizi izan zituen momentu horiek:

“Kuartilluen sartu gatuzan danok. Etxien kuartillo bat, eskillarak igo eta zerien kuartillo bat, gero pisue han, baine gu kuartilluen sartute, beratzi urtegaz da danok hara sartute. Bonbardeue nik asko entzun be enuan[ez nuen] ein e? Aurrez aurre eguezan [zeuden] soldauek hildde urten gendunien. **Etxiek eta asko ezauriez an bota hemen e?** Ez, ez... ez zan izen holan... destrozoz haundixe holan eiaurien [egin zuten] Andikonan hainbeste jente hilttiaz. Hil eurien jente asko, asko!”.

Pasarte honek, lehen aipatu dugun diskurtsoen eta esperientzia pertsonalaren elkarreragina azalera ekartzen du. Izan ere, “hemen” Otxandion, ondorio larriak egon ez zirela esatean, susma dezakegu beste herri batzuekin konparaketa bat egiten ari dela,

baliteke Gernikarekin. Kasu honetan, diskurtso hegemonikoa, Gernika bonbardaketen sinbolo bezala marrazten duena, bere bizipen pertsonalarekin erkatzen ari da Nati.

Bestalde, bonbardaketaren ondorengo orduak, beldurrak ezaugarritu zituen, eta Otxandiar askok herritik alde egin zuten presaka. Emilia Urigoitiaren familiak Bilbora alde egin zuen bolada batez:

“Juen ginen Oleta. Eta Oletan, bidien goiezela, esateotzien “el abuelo” aeroplano haundi bat pasetan zan, baju baju, eta etzunde egon ginen haixe [hura] pasau arte. Gero Oletatik gu juen ginen Bilbua”.

Lehen bonbardaketa horren ondoren, **beldurra iltzatuta** geratu zen Otxandioko biztanleetan, eta hegazkinak pasatzen ziren bakoitzean Elizara, bolalekura zein beste aterpe batzuetara egiten zuten ihes. Emilia Urigoitiak, Otxandion zein Bilbon, bertan egon zen denboran, gogoratzen du hegazkinak zetozenean bizitzen zituztenak:

“Sireniek jotebanien danok aineketa gordetan: batzuk bolalekua eta bestiek elezpeire. Ta han gordetan ginen. Zelan ignorantzixe, ze gaur horrek gauzok ezin leikez ein, baine orduen...(...) Eleizpeien egoten zien tapaute honek zuluok ba sakuekaz. Lurraz sakuek bete eta gero ipinitte eskiñetan. Ta sireniek jotebanien jueten ginen horra. (...) Gero Bilbon egon ginien Abandoko etxe batzuetan eta han be sireniek jotebanien bajatzen ginen errefujixua, han egoten zan lekuetan. Ta jente asko jueten zan aineketa ta geu bebai”.

Leonardak ere oroitzen ditu sirenak jotzen zuenean gertatzen zirenak, eta honek, bonbardaketak bezainbesteko inpaktua eragiten ez bazuen ere, beldurra egunerokotasunean txertatzen zuen:

“Corriendo cuando tocaba la sirena arriba, a los árboles o hacia los refugios...había un refugio...entrabamos a la panadería y había un refugio...Samartoi [Otxandioko kale bat da], luego otro debajo del pórtico y otro debajo del pasealeku había. Y bueno, pues así pasabamos. (...) A nosotros muchas veces nos pillaba [hegazkinei buruz ari da], que íbamos a por hierba, y allí en Mainondogarai [Otxandioko auzo bat] para aquí, había un hueco grande, que pasaba el carro por allí. Y allí había muchos árboles y allí escondidas solíamos estar. El padre delante para que no se muevan las vacas y nosotras allí. Y nos decía el padre: ¡quietas, quietas! Que no nos van a ver porque está cerrado de ramas de árboles, con hojas y así. Y así cada dos por tres”.

Bonbardaketan hildakoak ez ezik, gerraostean hildakoek ere aztarna sakona utzi zuten. Horrela dio Emilia Urigoitiak:

“Ahizta bat hil jatan niri **gerrako sustuekaz** eta, etorri ginenien. Ta nik zer esangotzut ba? Klaro, gauza asko pasau zien orduen gerran (...) Neskatotxue gerratik etorri ta hil in zan. Tratu txarra, badakizu? Harantza eta honantza ume txikixe negar baten eta... eta ha hil ein zan”.

Testigantza honek argi erakusten du emozioek daukaten garrantzia errealitatea pertzibitu eta transmititzerako orduan. Izan ere, Emiliarentzat emozionalki hain marka handia utzi zion gerrak, ezen bere ahizparen heriotza honekin lotzen baitu zuzenean. Baliteke, berak dioen moduan, gerrak utzitako ondorio psikologikoen eragin sakona izatea bere ahizparengan, eta honek erakusten digu, emozio bortitzek, eta honek geroago gogoratzeak, momentuko orainaldian izan dezaketean eragina.

#### 4.1.3. Gosea eta miseria: gerraren beste aurpegi batzuk

Gerra garaian, elikagai faltak errazionamendu zorrotz bat ekarri zuen errepublikaren aldeko sektore guztietan, eta instituzio ofizialak ere ez ziren gai izan, kasu askotan, goseari edo baliabide faltari aurre egiteko<sup>62</sup>. Zigor Olabarria historialariak azaltzen duen bezala, Otxandioko kasuan ere antzerako gertaerak jazo ziren. Izan ere, frankistek Otxandio hartu eta bi hilabetera, Udalak herritarrak elikatzeko premiazko lehengaiak aurreratzea eskatu zion Bilboko intendentzia militarari, zegoen miseria egoera zela eta, eta honek Otxandiarrei banatu zizkien, egoki zeritzonean kobratzeko, aurrerago<sup>63</sup>. Gerra hasi eta gutxira, Victoria Kent diputatuak adierazi zuen “emakumeek hirietako goseari aurre” egin behar zietela<sup>64</sup>.

Bestalde, gerra eta gerraostea gogorak izan ziren herritarrentzat, errepresio esplizitu batez gain, beste mota bateko errepresioa ere jasa behar izan zutelako: lapurretak, desjabetzeak... Honek, gerraren beste ondorio batzuei lotuta, gosea eta miseria ekarri zituen. Emakumeei egokitu zitzairen, batez ere, hauek kudeatzea, Mary Nash-ek azaltzen duen bezala:

“Gerra egoera berri horretan, emakumeen denbora eta lana komunitatearen biziraupenera bideratu zen, eta hornitzaile gisa elikagaiak, arropa, berogailuak, higie-ne tresnak eta oinarrizko osasun-zerbitzuak emateko betebeharra bete zuen, eta, hala, biztanleria zibilaren erresistentziarako bizi-estrategiak gauzatu zituen”<sup>65</sup>.

<sup>62</sup> María de los Ángeles ARRANZ (1997): “Los abastos en la Guerra Civil”, *Historia*, 16. zbk. Hemen ikusia: Mary NASH (2006): *Rojas. las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madrid: Taurus.

<sup>63</sup> Otxandioko Udal Agiritegia/ Udal Bilkuren aktak/ 1937-6-7. Hemen ikusia: Zigor OLABARRIA (2011): *Gerra zibila Otxandion*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

<sup>64</sup> “Victoria Kent fa una crida emocionant a les dones”, *Treball*, 29 de julio de 1936. Hemen ikusia: Mary NASH (2006): *Rojas. las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madrid: Taurus.

<sup>65</sup> Mary NASH (2006): *Rojas. las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madrid: Taurus. 148 orr.



Hala ere, emakumeek egiten zuten ahaleginak ez zeukan helburu bezala soilik familia bakoitzaren biziraupena bermatzea; izan ere, komunitaterako egiten zuten lan. Mary Nashen arabera, emakumeek zeukaten hornitzaile lanaren dimentsio kolektiboa guztiz apurtzailea zen, eta garbi erakusten zuen garai hartan espazio publikoa eta pribatua banatzen zituen mugaren lausotasuna. Emilia Urigoitiaren testigantzan ere, atearen bidez irudikatzen da espazio publiko eta pribatuaren arteko muga zabalik zegoela:

“Lehenau Otxandixo izen zan dana familixa bat (...) lehenau atiek eta danak zabalik. Beziña batek biherbaban azukarie edo arroza edo, baktotxak ahal danaz lagundu itteotzien, lagundu itten zan orduen. Baine oin holakoik eztau (...) Baine orduen beziñuek? Dana familixe. Otxandixo izeten zan... Bedarra egoten zanien, edo eurixe da edo.. auzuek laguntzeotzien bedarra sartzen edo...”

Izan ere, Regina Bengoaren testigantzan ere ageri denez, familia ez ezik, baliabiderik ez zuten pertsonak ere elikatzen zituzten orduan Otxandioko emakumeek. Reginak honela dio:

“Eske gure aitte izeten zan... pobre guztixek ekartebazazan. Ta gu... hainbeste pobregaz etxien, geu nehikue izeten ginen ba! Baine topetaban [aurkitzen zuen] pobre bat eta etxia [etxera] ekarteotzan amai bazkaitten emoteko”.

Leonarda Urigoitiak ere antzerako egoerak oroitzen ditu auzokoei jatekoa ematen ote zieten galdetzean:

“¿La gente? Si, si, muchos. Teníamos dos cerdos también y los tocinos y así...también alubias y...Mi familia también era grande y todos...las tías, los sobrinos y todos. Bueno y cuando hacía mi padre morokil, en una olla de esas grandes, y la mitad sobraba y corriendo venía el hijo... Pablo a por la mitad, para el desayuno para llevar a casa, bueno, así que fíjate como era. No había...no había dinero”.

Honek, nolabait emakumeen bizitza eta denboraren kolektibizazio bat ekarri zuen, Mary Nashen hitzetan:

“Genero ikuspegi batetik, denborak konnotazio desberdina du gizon eta emakumeentzat. Emakumeen denbora beti izan zen kolektiboa, besteekiko dedikazioak zehazten zuena, eta gizonen denbora, berriz, batez ere banakakoa izan zen. (...) Horrela, haurrak, zaharrak eta gizarteko zaugarriak zaintzeak, emakumeek denboraren kontzeptua modu kolektibo batean osatzea ekarri zuen<sup>66</sup>”.

---

<sup>66</sup> Mary NASH (2006): *Rojas. las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madrid: Taurus.

Baina gosea eta miseria nagusi zen testuinguru hauetan, emakumeak ez ezik, desesperazioak gizonak ere goseari aurre egiteko estraperlora bultzatu zituen. Baina estraperloa ez zen berdina guztientzat, Miguel Angel del Arco Blancok azaltzen duenez:

“Gizon batzuen eta besteen estraperloa eta patua izan ziren hautsitako gizartearen ispilu onena: «Estatu Berria»ren aldekoek, zigorrik gabe egiten zuten, eta apalenen estraperlo txikiari isunak edo espetxea ezartzen zitzaion”<sup>67</sup>.

Lan honetarako bildutako testigantzen artean ere estraperloak presentzia izan du. Izan ere Emilia Urigoitiaren aita estraperloan ibiltzen zen gizonetariko bat izan zen. Horrela gogoratzen du gure protagonistetako batek bere aitaren jarduera hau:

“Nausitxue nintzenien hasi zan estraperluen, ze aduanan eta guardia zibilek egoten zien, eta astuaz basoik baso Elosutik babakaz eta etorten zien etxia, gabez, gau guztixe, eta gero biherria [lanera] hurrengoko egunien, gure aittek eta bebai, astuaz eta zelan astuek bidiek eta baekizan [bazekizkien], gabez etorten zien, astuai ebatute, ezeguen [ez zegoen] oingo moduen linternaik eta holako gauzaik. Astuekaz, astuek sartu elosun, hemendik San Bernabetik bueltan bueltan juen, ta halan jueten zien”.

Egunerokoan bizirauteko egiten zituzten delitu txiki hauei “eguneroko erresistentzia” deitu die Claudia Cabrerok<sup>68</sup>. Bizirauteko asmoarekin egin ziren delitu hauei izaera politikoa ematen die autore honek. Izan ere, honakoak egiten zituzten pertsonak alderdi politikoa batera afiliatuta egon ez arren, legearen kontrako jardunak burutzen zituzten, eta protagonistak legezkontratasun horretaz jakitun ziren; nolabait erregimenaren aurkako ekintzak bezala hartu ditzakegu, beraz. Are gehiago, Cabrerok egindako ikerketaren arabera, askori “eguneroko erresistentzia” hauek egitearen harira sortu zitzaizen borroka politikora salto egiteko beharra. Hala ere, askotan delitu txiki hauek egiteak ez zioten soilik hau burutzen zuten pertsonari eragiten, baita, gizonen kasuan, bere inguruko emakumeei ere.

Zentzu honetan, Leonardaren testigantzak bere izaera babeslea, feminitatearekin lotua, agerian uzten du. Izan ere, emakumeek ere beldurra sentitzen zuten gizonek estraperloan ibili behar zutenean. Honek, emakumearen kontzientzia kolektiboa azaleratzen du nolabait, feminitatearen rol tradizionalari lotutako besteenganako kezka. Azken finean, esan dezakegu estraperloan zebiltzan gizonek sentitutako beldurra,

---

<sup>67</sup> Miguel Ángel DEL ARCO BLANCO (2009): “El secreto del consenso en el régimen franquista. La cultura de la victoria, la represión y el hambre”, *Ayer*, 76 zbk., 245-268 orr.

<sup>68</sup> Claudia CABRERO (2006): *Mujeres contra el franquismo, Asturias (1937-1952). Vida cotidiana represión y resistencia*, KRK, Oviedo. Hemen ikusia: Pilar MAESTRO (2015): *Entre la supervivencia cotidiana y la lucha política: Las mujeres en la resistencia antifranquista (1939-1975)*. Zaragoza: Universidad de Zaragoza.

emakumeek ere beraien azalean sentitzen zutela. Horrela gogoratzen ditu arduraz blaitutako une horiek:

“Mi padre era el que hacía los viajes.. .nunca dice que le pasó nada ¿eh? Pero el miedo... porque él le... **y luego le decía uno que era carlista le decía: Pero tú ponte la boina roja en el monte, para que vean los aviones quién eres.** Pero el cuando salía del pueblo metía la boina roja en el bolsillo y la negra a la cabeza”.

Hala ere, beldurraz gain nolabaiteko harrotasun bat ikusi dezakegu protagonistaren aldetik, bere aitak beldurra gainditu eta desobedientziako ekintza hauek burutzeagatik. Gainera, Leonardaren arduraz gain, argi ikusi daiteke testigantza honetan estraperloan aritzen ziren batzuen eta besteen arteko ezberdintasuna, atarian azaldu dugun bezala. Karlisteri onartu egiten zitzairen, baina errepublikarren aldekoek ezkutuan ibili beharra zeukaten. Nolabaiteko oposizioa ikusten da Leonardaren aitaren jarreran, barrutik, irtetzen dena, antolatutako zerbait izan ez arren.

Izan ere, modu irekian erregimenaren aurka agertzea ezinezkoa zen, eta beraz, erregimenaren aurka zeuden emakume zein gizonek delitu txikien bidez egiten zioten aurka Francoren diktadurari, Cabreroren kontzeptua erabiliz, “egunerokotasuneko erresistentziak” deituko ditugunak; Leonardaren aitaren ekintza txiki horiek, kontzeptu honetan sartu ditzakegu. Mercedes Yustak<sup>69</sup> azaltzen duenez, historiografia Alemaniarrak egunerokotasuneko erresistentzia mota hauetan sakondu du, eta hauen barruan bi mota bereizi ditu: *widerstand*, orain arte ezagutu diren erresistentzia mugimenduak izendatzeko eta *resistenz* egunerokotasunean modu indibidualean gauzatzen ziren erreakzioentzako.

Esandako honekin lotuta, eta gure eremu historiografikora bueltatuz, Ismael Sazek ere adierazten du adostasunaren kontzeptua ez dela edonola erabili behar Francoren diktaduraren testuinguruan. Izan ere, modu malgu batean erabili beharreko terminoa da autorearen esanetan, dikotomia sinplistik sahiestuz. Horrela, ulertzen da diktadurapeko gizartean, hainbat jarrera indibidual mota zeudela:

“Desadostasunen bat izan arren atxikitzea, erabateko adostasuna, onarpena, axolagabetasuna, gizarte-desmobilizazioa, barne-erbesteratzea edo, jakina, erregimenaren aurkako jarrera argi bat. Jarrera horiek ez lirateke mugiezinak izango, ezta «izoztuta geratuko» ere 1936ko uztailean; aitzitik, aldatu, eraldatu eta garaietara egokituko lirateke”.<sup>70</sup>

<sup>69</sup> Mercedes YUSTA (2005): “Las mujeres en la resistencia antifranquista: un estado de la cuestión”, *Arenal: Revista de historia de mujeres*, 12. Liburukia, 1. zbk.

<sup>70</sup> Ismael SAZ (1999): “Introducción: entre la hostilidad y el consentimiento”. *Valencia en la posguerra*. Valentzia: Epísteme. Hemen ikusia: Miguel Ángel DEL ARCO BLANCO (2009): “El secreto del consenso en el régimen franquista. La cultura de la victoria, la represión y el hambre”, *Ayer*, 76 zbk., 245-268 orr.

Gerraostean burutu ziren legez kanpoko jarduera txiki hauek, gainera, mota guztietakoak ziren, Del Arco Blancok azaltzen duenez. Aipatu dugun estraperloaz gain, errazionamenduko kartiletan janari gehiago lortzeko iruzur egitea, lapurreta txikiak, jasotako uzta erregimenari ez ematea edo baita txiste edo erregimenaren aurkako abestien bidez<sup>71</sup>. Honen adibide garbi bat da Regina Bengoaren testigantza; honek dioenaren arabera, egunero, eskolan, “Cara al Sol” abestera derrigortzen zituzten:

“Guk esaten gendun, por dios por la patria y el rey esan biherrekuen, maistrie enterau barik por dios por la pata del buey esaten gendun. Ta maistrie ez zan enteretan nork esateban. Ze enterauko bazan por lo menos hilabetiako kastigaute egongo ginen. Baine guri emoteozkun arrabixue [amorrúa] esatiek por dios por la patria y el rey. Ta gero gureine [nahi beste] barre ein”.

Bestalde, 1939ko otsailaren 9an martxan jarri zen Erantzunkizun Politikoen Legea, errepresio ekonomikoa instituzionalizatzeko asmoz. Gerra Zibila bukatutakoan, “gerran garaitua” kontzeptua erabiltzen hasi zen, eta hala deitutakoei desjabetzeak baimentzen zituen Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionalak. Irene Abaden arabera<sup>72</sup>, errepresio ekonomiko honen helburua errepublikaren aldeko herritarrak desjabetu eta guztiz pobretzea izan zen. Garbiki baieztatzen du hau Otxandioko kasuan Leonarda Urigoitiaren testigantzak:

“Luego ya cuando se puso todo esto en paz... Entonces eran los peores los curas. Porque iban a cada caserío, y todo lo poco que tenían les arrastraban y les dejaban en miseria pura. **Y eso los curas.** [isilik geratzen da]

Yo sé en Morgola<sup>73</sup> también, fueron y les quitaron patata y todo lo que tenían y los vecinos tener que darle. Si te tenían un poquito de manía...la política era todo en aquellos tiempos. “

Izan ere, Zigor Olabarriak ere bere liburuan baieztatzen duen bezala, Otxandion konfiskazio ugari egon ziren, eta 1937ko uztailaren 2an, udal-batzorde bat ere sortu zen herrian bertan, Bizkaiko Ondasunen Konfiskazio Komisiotik zetozen aginduak betetzeko helburuarekin<sup>74</sup>. Desjabetze hauek, hainbat kasutan, eragin zuzena izan zuten

---

<sup>71</sup>Miguel Ángel DEL ARCO BLANCO (2009): *El secreto del consenso en el régimen franquista. La cultura de la victoria, la represión y el hambre*. Basilio MARTIN PATINO (1997): *Canciones para después de una guerra*. Espainia: La linterna mágica. Manuel VAZQUEZ MONTALBAN (2000): *Cancionero general del franquismo*. Bartzelona: Crítica. James SCOTT (2004): *Los dominados y el arte de la resistencia*. Ediciones Era: Mexiko.

<sup>72</sup>Irene ABAD (2009): “Las dimensiones de la «represión sexual» durante la dictadura franquista”, Jerónimo Zurita, zbk.84. págs. 65-86. Zenbakiaren dossier: *Guerra Civil: las representaciones de la violencia*, Javier Rodrigo y Miguel Ángel Ruiz Carnicer (coords.)

<sup>73</sup>Otxandioko auzo bat da Morgaola.

<sup>74</sup> Zigor OLABARRIA (2011): *Gerra zibila Otxandion*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

emakumeengan eta hauek aurrera zeramaten gosearen aurkako borrokan. Izan ere, Erantzukizun Politikoen Epaitegi Nazionalak errepublikarren alde ibili ziren gizonen ama, ezkontide edo ahizpei ezarri zizkieten zigorrak, hauek kartzelan, atzerriratuta edo hilik bazeuden<sup>75</sup>.

Miguel Angel del Arco Blancoren arabera, garai hartako baldintza sozioekonomikoek erregimen frankistari oinarri solido bat ezartzen lagundu zioten, errepublikaren aldekoak muturreko egoera batean jarritz:

“Politika autarkikoa aurrekaririk gabeko arma bihurtuko da agintari frankisten esku. Udalek, tokiko botereek, orain gizon berri horiek bultzatuta, «garaipenaren kultura»ren ordezkari izandako borrokalari ohiek, prerrogatiba handiak izango dituzte gerraosteko bizitza «antolatzeko». Nekazaritza-politikaren aplikazioari, industriaren funtzionamenduari, hornidurari, merkaturatzeari eta produktuen salmentari buruz erabakiko dute, eta, jakina, **errazionamendu-kartilak kudeatuko dituzte. Gosea kudeatuko dute. Gosearen Espainian ere irabazle eta garaituak egongo dira**”.

Jasotako testigantzetan askotan azpimarratzen den elementua da gosea, eta honek filmografian ere eragin nabaria izan du, *Izarren Argia* filmaren analisisan ikusiko dugun bezala. Gosea gorpuztu eta biziki sentitu zuten behar bat izanik, erabateko eragina izan zuen emakume hauen gorputz eta bizipenetan, eta modu garbian gogoratzen dituzte goseari lotutako pasarte asko. Besteak beste, deigarria da horrenbeste urteren ondoren Lenarda Urigoitiak zehatz-mehatz gogoratzen duela etxean garai hartan egunero jaten zutena:

“Yo me acuerdo que era: los jueves garbanzo con berza, y hasta el domingo, lo demas alubias. Y el arroz y la paella y eso era los domingos. Y decíamos: jolin, ama, ¿siempre lo mismo? Y ella: ¿en qué casa comen?... tu vete preguntado, nos decía, ¿en qué casa comen?”.

Horrez gain, azukre gabe gelditu zirenekoak ere gogoratzen ditu:

“Pero era triste... tener una casa ahí, y la comida, y todos con hambre y...Nosotros teníamos cerdos, dos cerdos solíamos tener también. Nosotros sembrábamos patata para medio Ochandiano. Al cuarto de abajo iban, cogian, llevaban...Y luego se acabó el azúcar. Me acuerdo que a mi padre le gustaba el café también bastante con azúcar, y decía: tendremos que arreglar esto porque

---

<sup>75</sup>Conxita MIR (2004): “La represión sobre las mujeres en la posguerra española”, *Cuadernos republicanos*, 54 zbk., 205-227 orr.. Hemen ikusia: Irene ABAD (2009): “Las dimensiones de la «represión sexual» durante la dictadura franquista”, Jerónimo Zurita, zbk.84. págs. 65-86. Zenbakiaren dossierra: *Guerra Civil: las representaciones de la violencia*, Javier RODRIGO y Miguel Ángel RUIZ(koord.)

esto no se puede ni desayunar. Y trajo remolacha azucarera. Sembramos en un trozo grande azucarera. Con aquello pelar, cocer, y comer de aquel líquido hacíamos el café. Y así todo Ochandiano, y uno con unas tablas tenía el padre puesto aparte ¿no? Pues ya, dice: Consuelo, no se si las remolachas también no tendremos que sembrar el doble!”.

Emilia Urigoitiak ere bereziki azpimarratzen du garai hartan igarotako gosea, eta egoera horretan herritarrek ahora eramaten zutena:

“Orixue [olioa] arrazionamentuen emotearen, ta jentiek patatak sebuaz [koipearekin] ta, ahal danaz. Patatak egosi eta gero esnie bota, orixue ez zeuen etxien, ba patatak esniaz (...) Naranja azalak eta jaten... Danetatik pasau du. Gosie, eta klaro, ezeguen [ez zegoen] ezebe. Jentiek ereindde [ereinda] eguezan gauzak eta dana ba ezebez, ezaurezan [ez zituzten] batu... gosie egon zan gureine [nahi beste]”.

Gosea baretzeko asmotan, errazionamentua ematen hasi zen udaletxean atal honen hasieran aipatu dugun bezala. Leonarda Urigoitiak horrela dio:

“Pues en el día a día unos tenían para comer y otros no tenían para comer. Y claro, íbamos debajo del ayuntamiento y en mi casa nunca ha faltado ¿verdad? Pero íbamos al ayuntamiento y un día me dieron un pan así (dibuja un círculo grande con la mano) con una chuleta grande, y por el cantón de Lucio y esos salí pitando para casa. Y me dice uno: ¿A donde vas con esa torta? Y le digo: con esta torta a casa, a casa voy! (se ríe) Y luego mas no me dejaron ir a mi... (baja un poco la voz, murmura algo). Luego hambre, se pasó despues hambre”.

Bestelako hornidura falta ere egon zen Otxandion garai hartan, batez ere herrira itzuli eta beraien etxeak arpilatuta aurkitu zituzten herritarrentzat. Hau izan zen Emilia Urigoitiaren familiaren kasua:

“Etorri ginen Otxandixua, ta ez gendun topau ezebe. Etxien armaixuek be danak kendute, nik amai eta entzunde: kajoi eta guzti eruen dozkuezan, erropak eta danetatik. Eta ezebe ezebe ez gendun topau. Geu letxe ba gehixenak Otxandixon. Ta gero gerraostien ba jentiek soldauen ixteauriezan mantak eta ba jentiek abriguek itteko eta. Garbittu eta abriguek, abrigo marroiek, ba jentiek aprobetxetako eibazan”.

Familia askotan, miseria hau baretzeko asmoz, etxeko neskatoak neskame gisa bidalii zituzten herri handiagoetara. Bera Otxandion geratu bazen ere, horrela gogoratzen du Leonarda Urigoitiak:

“Iban a servir y venían con más hambre, a casa enfermas y las madres decían: ¿a donde vamos a mandarles, al hospital a por mantas?”.

Leonarda Urigoitiaren hitzek agerian uzten dituzte neskame joaten ziren neskatoek bizi zituzten baldintza eskasak. Emilia Urigoitia, Bilbora joan zen neskame hamasei urte zituela, eta baita Regina Bengoa ere. Bengoa, neskame ibiltzeaz gain, nagusien tabernan zerbitzari ere ibili zen. Bere testigantza bidez baieztatu ditzakegu neskameek pairatzen zuten egoera kaskarra:

“Jaikitten ginen goizeko zortziretan, ta hamabixek edo ordubatak arte biherrien [lanean]. Han ez eguen deskantsoik ezetako bez. Emoten genduzen bazkaixek: txikiteuen jente asko eukitten gendun, ta bazkaixekaz be biher asko, biherria. **Harek andriek ezozkun ixten egoten geldik e! Derrigor zeozer ein biher.** Ta eguaztenetan urteten neban nik. Ta urteten nebanien esateoztan: juen gora, eta izarak aklarau. Ba igual hamabi izarak aklandetako! Aklarau eta eskai. Ba urten orduko seirek edo gehixau, ta hamarretako etxien, tabernan jantzitze, biherria eitteko. Ta akordetan naz urte baten erosiarien “derecha izquierda”, beste etxe bat. **Ta izen zan San Inazio egun bat, bero bat eitteban, bero bat! Mundu guztixe Bilbon pasietan, ta ni ha etxe guztixe fregetan,** hamazortzi urtegaz. Neu baino negar haundixauekin, **ixe lurre be bustitten neban negarrakin!** Eta han ein in biher, ez zan egoten beste erremedioik! Ein in biher”.

#### 4.1.4. Gerra normaltasun bezala: egunerokotasuna

Gerra garaian bazeuden ere, bizitzak aurrera jarraitzen zuen, eta orduko emakumeak beraien egunerokotasuna egoera berrira egokitu behar izan zuten. Gerra Zibila Otxandion<sup>76</sup> liburuan, Otxandioko garai hartako emakumeen egunerokotasunari buruz honakoa dio Zigor Olabarriak:

“Emakumeek etxe barruko lanen ardura zuten, eta nekazaritza edo abeltzaintzarako zereginak ere egiten zituzten, gizonekin batera. Batzuek, bestalde, negozio txikiak eramaten zituzten. Noski, ugaltze-arloa ere, hau da, haurrak hazi eta zaintzea, euren zeregina zen. Baita etxeko nagusiez arduratzea ere(...) Esparru publikoan, orduko gizartean ohikoa zenez, eta are nabariagoa Otxandio moduko landa-guneetan, emakumeak ez zuen presentziarik”.

Hala ere, Olabarriaren hitzei ñabardura batzuk gehitzen laguntzen dute Angela Cenarrok egindako ikerketek. Azken honek azaltzen duenez, Errepublikaren aurka matxinatu zirenek emakumea “inoiz irten behar ez zen lekura” bueltatzea zeukaten helburu; hau da, etxeko espazio pribatura<sup>77</sup>. Izan ere, zaintzara bideratuta zeuden lanak (ospitaleetan,

<sup>76</sup> Zigor OLABARRIA (2011): *Gerra zibila Otxandion*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

<sup>77</sup> Ángela CENARRO (2006): “Movilización femenina para la guerra total (1936-1939). Un ejercicio comparativo”, *Historia y Política*, 16 zbk. 159-182 orr.

jantokietan, errefuxiatuen zaintzan) legitimatuta zeuden garai hartako gizartean, berezko izaera femenino baten proiektzio publiko gisara. Gerra garaian, ordea, gizonak hutsik utzi zituzten postuak emakumeek bete zituzten ezinbestekoa bihurtu zen biziraupenerako. Horrela, emakumeak ohikoak ez ziren lanetan hasi ziren. Otxandion, batez ere, nabarmen handitu zen landetan lan egiten zuten emakume kopurua. Leonarda Uriogoitia, bere anaiak soldadutzara joan zirenean, haien lana egiten hasi zen, eta bere aburuz, emakumeek gizonak bezainbeste edo lan gehiago egiten zuten:

“Si, y a las tierras les daba vuelta yo también con el breban, cortaba hierba para catorce vacas. No paré hasta que vinieron mis hermanos. Mi hermano mayor tres años y 28 días en Tetuán! Sin venir ni nada. Y el otro en Zaragoza. Así que la tonta a trabajar. **Las mujeres trabajaban como hombres o más!** Que si escardar, que si darle la vuelta, que si esto, que si lo otro...eran como unas esclavas y no podías hacer nada, porque comida tenias que poner encima de la mesa”.

Lekualdaketa hau ezinbestekoa izanik ere, bazegoen honen aurka egiten zuenik. Horrela zioen Joan Gayak, 1936an, gerra hasi berri zela, argitaratu zuen *Les dones al treball i els homes en atur* liburuan:

“Jainkoak, Paradisutik bota zuenean, bere izerdiarekin ogia irabazteko betebeharra ezarri zion. Emakumeari ez zion horrelakorik agindu, minez bazen ere, [...] seme-alabak zaintzea baizik. Emakumeak agindu diotena saihestu eta gizonaren lekua hartzen badu, alferrikakoa da kezkatzea; mundua duela mende batzuetatik hona bizi diren heriotza- eta miseria-bidexka beldurgarrietan ibiliko da”<sup>78</sup>.

Hala ere, garaiko diskurtso hauek, egoerari moldatu eta modu ezberdinetan materializatu ziren. Horrela, goiko testigantzan Leonardak adierazten duen moduan, emakumeek jarraitu beharreko rolak egoerak berak gainditu zituen, eta ezinbestean diskurtsiboki gizonentzat bideratuta zeuden egin beharrak beraien gain hartu. Bestalde, eta emakumei esleitutako rol tradizionalekin zerikusia zeukaten arren, baziren etxetik kanpora lan egiten zuten emakume batzuk, Emilia Urigoitiak azaltzen duen bezala:

“Bai, gure izeko be, etxeik etxe jueten zan josten. Ta gure amak egosteotzan lapikue, eta etorten zaniene, hamabixetan, zelan tailerretik urteteauren ba gure amak egosteotzan lapikue ze berak josten itteban etxeik etxe (...) Kerixara, ta Oleta [Otxandio inguruko auzoak] eta jueten zien. (...) Orduen telak, telak saltzen etorten zien. Durengotik eta, maleta haundi batzukaz telak saltzen eta erosten zenduzan telak eta gero horrek itteotzuezan [egiten zizkiguten] soinekuek eta azpiko gonak eta horrek gauzok, teliaz itteotzuezan. Ostantzien

<sup>78</sup> Joan GAYA (1936): “Les dones al treball i els homes en atur”, *Catalunya Social*.



[bestela] laixetan [laiatzen], soluen, ortuen. Etxietan krixara [neskame] moduen ez, ze ezeguen. Etxietan Vicinayxenien [Otxandioko familia diruduna] .Horrek krixarie eukitteaturen, krixara bi eukitteaturezan, horrek goikuek. Eta behekuek bat, behekuek be bi egoten zien. Juliana, alargun bat, eta gero krixara bat, medikutxuenien. Ostantzien, beste enparauetan [gainontzeko lekuetan] inun bez.”

Otxandion, ospitale txiki bat ere bazegoen, eta bertan ere zaintza lanetan ibiltzen zirenak<sup>79</sup> emakumeak izan ohi ziren, Nati Egiak azaltzen duen bezala:

“Pobre pobriek hospittelia jueten zien, ta han behien eukitteban zertxo bat eukitteaurien, oingo residentzixe, han holako kuartutxo bat eta hantxe hartzeauriezan [hartzen zituzten] etorten zienak kanpotik, egune pasetan edo...Hantxe hartzeauriezan (...)egoten zan andra bat edo zaintzebazana, ta harek ipintteotzien jana eta gauzak eta...”

Gerra garaian Otxandiotik kanpora joan ziren emakumeak, berriz, bertako zereginetara egokitu behar izan ziren, eta batzuetan nabaria zen herrien eta hirien arteko ezberdintasuna. Leonarda Urigoitia bere anai arrebeekin eta amarekin Bilbora joan zenean, honek antxoak biltzen lan egiten zuela kontatzen du:

“La madre iba a recoger anchoas y así, ya sabes las costumbres de antes, se ponía el delantal azul delante, iba con aquello y allí solía traer las anchoas. Y le decíamos nosotros: Ama, ¿en Bilbao así? No ves que esto... Pero ella decía: Ya, pero es que yo estoy acostumbrada así, **yo voy a quitaros el hambre**”.

Emakumeen izaerari dagokionez, garai hartako diskurtso orokortu baten arabera, umilak eta mendekoak izan behar zuten, eta maitekorrak beraien seme, gizon eta gurasoen zaintzan. Baina aldi berean, modu eraginkor batean bete behar zuten beraien *nagusi* papera etxean.<sup>80</sup> Honela zioen hamarkada batzuk lehenago argitaratu zen *La mujer de su casa* liburuak:

“Familiaren ongizatea emakumearen mende dago... Emakumeak, maitagarri babesle baten gisara, **oparo-aldian ordena zaintzen du, seme-alaben osasuna, senarraren kontentua** eta zentzuzko ekonomia horren ondorio den oparotasuna. Emakumea etxeko gobernua da, funtsezko elementua da, galerak eta hausturak konpontzen dituena, eskuratutako ondasunak gordetzen dituena, moraltasun-ideiak irakasten dituena, etxeko lanak egiten dituena, eta hori guztia

<sup>79</sup> Errepublikan hedatutako rol bat izan zen mota honetako lanak egiten zituzten emakumeena, eta geroago emakume frankistek bere egin zuten. Frankismoaren diskurtso erreakzionarioenak ere honen aurrean etxean egotea lehenesten zuten, baina hala ere ospitaleko zaintza lana emakumeen artean nahiko ohikoa izan zen.

<sup>80</sup> Mary NASH (2006): *Rojas. las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madrid: Taurus.

**ez da indarraren adierazpenarekin egiten, maitasunaren izen ederrarekin baizik.** Izan ere, etxeko emakumeak arima guztiak bere menpe dauzka”<sup>81</sup>.

Honek, amatasunaren paperak zeukan garrantzia azpimarratzera garamatza. Izan ere, alde batetik amatasunak emakumeari “prestigioa” ematen zion arren<sup>82</sup>. Beste alde batetik bere seme-alaben zein gainerako familiartekoan ekintzen eta desbideratzeen erantzule egiten zuen<sup>83</sup>. Horrela azaltzen du Elizabeth Jelinek, Filcen ikerketari erreferentzia eginez:

“Haiek ziren beren seme-alaben urraketan errudunak; gizonen eta emakumeen arteko hierarkia-ordena naturala iraultzearen errua ere bazuten. Militarrek familiaren balioetan oinarritutako diskurtsoa eta ideologia babestu eta ezarri zituzten. Familia patriarkala diktadura-erregimenen metafora nagusia baino gehiago izan zen; literala ere izan zen”<sup>84</sup>.

Amatasunak zeukan pisu eta erantzunkizun horrek, kostu emozional altua zeukan emakume horientzat. Izan ere, gerra bezalako egoera izugarri batean, emakume hauek beren seme-alaben bizitzaren alde inuzente eta zoriontsuena babaesteko borondateagatik, askotan informazioa ezkutatu beharra ikusten zuten, hauei normaltasun itxura bat helarazteko. Seme-alaben ongizateak, ordea, batzuetan aurretik eramaten zuen beraien ongizate emozional indibiduala. Honek guztiak, *Izarren Argia* pelikulan ere garbi ikusten denez, min zein beldur pertsonalak ezkutatzea zekarren, beren ardurak eta ikarak etengabeko isiltasun batean biziz – eta emakume gogorren<sup>85</sup> irudia indartuz–<sup>86</sup>.

Hala ere, emakumeei ez zitzaizkien soilik erregimen faxistatik heltzen eredu normatibo bat zeukaten irudiaren alde egiten zuten mezuak. Errepublikarren aldean, emakumeek jokatu behar zuten rolak malgutasun gehiago bazeukan ere, amatasunari eta tradizionalki feminitatearekin lotutako estereotipoei estu lotzen ziren jarrerak aldarrikatzen ziren<sup>87</sup>. Mezu hauek, askotan irratia bidez heltzen zitzaizkien garaiko emakumeei. Regina Bengoak gogoratzen du Radio Pirenaika ere entzuten zutela etxean, ezkutuan:

---

<sup>81</sup> Augusto JEREZ (1886): *La mujer de su casa*. Bartzelona: Librería de J. y A. Bastinos. Hemen ikusia: Mary NASH (2006): *Rojas. Las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madrid: Taurus.

<sup>82</sup> Frankismoan, amatasunak izaera politikoa izan zuen: ama izatea, aberriaren alde egitea zen: ama hauek emango zituzten “Estatu Berria” ahalbideratuko zuten gizonak.

<sup>83</sup> Judith FILC (1997): *Entre el parentesco y la política*, Biblos. Hemen ikusia: Elizabeth JELIN (2001): “El género en la memoria”, *Los trabajos de la memoria*, Madril: Siglo XXI.

<sup>84</sup> Elizabeth JELIN (2001): “El género en la memoria”, *Los trabajos de la memoria*, Madril: Siglo XXI.

<sup>85</sup> Bere inguruko ongizatea berearen ginetik jartzen duen emakumearen ideia inguruan gabiltza kasu honetan.

<sup>86</sup> Elizabeth JELIN (2001): “El género en la memoria”, *Los trabajos de la memoria*, Madril: Siglo XXI.

<sup>87</sup> Miren LLONA (2016): “La imagen viril de la Pasionaria. Los significados simbólicos de Dolores Ibarruri en la II República y la Guerra Civil”, *Historia y Política*, 36 zbk. Madril: Universidad Complutense de Madrid, 263-287 orr.

“Gabetan, Radio Pirenaikan La Pasionaria egoten zan berbetan [hitz egiten], ta ixilik, batenbat bentana azpixon ez daitten egon entzuten, La Pasionaria! Ze ostantzien [bestela] kasitgue egoten zan da... ezin ipini radixue!”.

Baina esan bezala, alde errepublikarretik zetozen mezuek ere, emakumearen feminitateari tradizionalki loturiko baloreei egiten zieten gorazarre, eta hauen araberako eginbeharrak esleitzen zizkien garaiko emakumeei. Miren Llonak, honakoa azaltzen du mezu hauei erreferentzia eginez:

“Beraien lana, ama, emazte eta alaba gisa, atzeguardian zegoela zioen ideia sendotu egin zen; **ama edo lankide sufritu gisa zituzten sentimenduetara jo zen, bizitza zibilari eman zioten babesa eta lana, zein soldaduei emandako kontsolamendua justifikatzeko**; inbaditutako aberriaren eta emakume babesgabearen arteko identifikazioa erabili zen, gainera, borrokalarien ausardia espoliatzeko”.<sup>88</sup>

Francoren erregimenak, emakumeak “Estatu Berriaren” lorpenerako beharrezkoak izango ziren gizon horien heziketan kokatzen zituen, familia kristau bat hezteko deia eginez, erregimenaren politika natalistei erantzuteko. Baina, errepublikarren aldekoek ere, amatasunaren rol horretan jarri zuten indarra, modu oso antzerakoan:

“Gizon aske eta emantzipatuak emango dizkiezue zuek gorde dituzuen eta zuen lanaren emaitza izango diren eremu eta hiri horiei. Iritsi da gure erantzukizun gorenaren unea. Emakume errepublikarrak: Lanera!”.<sup>89</sup>

Izan ere, orduko emakume antolakundeek ere, orokorrean eta hasierako salbuespenak kenduta, ez zuten dudatan jarri “gizonak frontera eta emakumeak etxera” zioen lema. Emakumeek berezkoak zituzten zainketa eta bizitzari lotutako ezaugarrien bidez justifikatzen zen, hauei esleitutako rola.<sup>90</sup> Hau argi ikusten da Izarren Argia filmean, besteak beste, amatasunari ematen zaion garrantzian.

#### 4.1.5. Bortizkeria: emakumeenganako zapalkuntza bikoitza

Garai hartako emakumeek beraien azal propioan jasaten zuten bortizkeria egunerokotasunean. Alde batetik, emakume izate soilagatik jasaten zuten bortizkeria zegoen, eta bestetik, errepublikarrak izatearren pairatzen zutena. Nati Egiaren testigantza honetan lehenengoaren zantzuak aurkitu daitezke. Bertan modu nahiko

<sup>88</sup>Miren LLONA (2016): “La imagen viril de la Pasionaria. Los significados simbólicos de Dolores Ibarruri en la II República y la Guerra Civil”, *Historia y Política*, 36 zbk. Madril: Universidad Complutense de Madrid, 263-287 orr.

<sup>89</sup>Mónica MORENO SECO (2005): “Republicanas y República en la Guerra Civil: encuentros y desencuentros”, *Ayer*, 60 zbk., 165-195 orr.

<sup>90</sup> *Ibidem*.

ezkutuan bada ere, susma dezakegu Natiren familiako emakume batek jasandako sexu erasoa, eta honen ondoren, “disgustuengatik”, heriotza:

“Izeko bat hil jakun gerra ostien ba harek bere disgustuekaz ta, gerrako disgustuekaz, hor dau erretratue [argazkia] be, kuartuen dau, hortxe salan dau. Ta hil zan gazteik, 23 urte edo 22 urtegaz. Baine horrek ratu txarra pasetaban bonbardeuetan. Gero juen zien Zallaino edo kartan bat botaten eta bueno! **uste dot gizon batek edo urteotziela [irten zitzaien] ta ez euken gauza onik gero!** Ez dakit zer pasau zan baine...ez dot pentsetan ezer eiotzanik, ze nik neuk neban entzun”.

Gertuko historialariek agerian utzi dutenez, gerra garaian emakumeen aurkako bortizkeria espezifikoko bat eman zen<sup>91</sup>. Irene Abadek esaterako, *repression sexualada* edo “sexudun errepresioa” bezala izendatzen du helburu espezifikoko eta politiko zuzena zuen bortizkeria hau. Honen arabera, emakumea eta errepublikarra izategatik, errepresio bikoitz bat jasaten zuten emakumeek, eta honek, zapalkuntza hau aplikatzerako orduan, feminitatearen berezko ezaugarriari zuzenean erasotzea zekarren:

“Frankismoa, herria ideologikoki desarmatzeko asmo sendoarekin sortu zen, eta, ikuspegi horretatik, emakumea herritar gisa, politikoki, aurrera egitea galarazteko jomuga bihurtu zen. Erregimen berriak, honen oinarri bihurtzen saiatu edo neutralizatu egin nahi zuen, eta gizarte-esparrutik, berriz, pertsona pasiboa, ez-kaltegarria eta zenbait erabaki hartzeko gai ez zena bihurtu. Emakumea eta errepublikanoa izateak biktimizazio bikoitza zekarren: generoa eta politika”<sup>92</sup>.

Hala ere, emakumeak sindikatu edo alderdi politiko batean afiliatuta ez egoteak, ideologia edo ekintza politikoarik ez zeukatela pentsatzera jo ohi dugu maiz, baina Maria Laura Martin Chiappek<sup>93</sup> haratago joateko proposamena egiten du:

“Agian dokumentuek ematen dituzten karakterizazio eta azterketetatik haratago joateko unea iritsi da, emakumeak bigarren mailako roletan kokatzen dituzten horiek, berariaz sindikatu edo alderdi politikoetan afiliatuta ez daudelako (...) Nahiz eta gehienetan emakumeek ez zuten parte hartzen eremu publikoan modu esplicituki politikoan, ideologia-eramailetzat har daiteke familiako kide izatea”.

---

<sup>91</sup> Ana AGUADO (2011): “Memoria de la Guerra Civil e identidades femeninas antifranquistas”, *Memorias de la Guerra Civil española: transmisión, reapropiación y uso, Europa-América Latina*. Paris: IHEAL. Sofía RODRÍGUEZ (2005): “Mujeres perversas. La caricaturización femenina como expresión de poder entre la guerra civil y el franquismo”, *Asparkia*, 177-198 orr.

<sup>92</sup> Irene ABAD (2009): “Las dimensiones de la «represión sexualada» durante la dictadura franquista”, Jerónimo Zurita, zbk.84. págs. 65-86. Zenbakiaren dossierra: *Guerra Civil: las representaciones de la violencia*, Javier Rodrigo y Miguel Ángel Ruiz Carnicer (coords.)

<sup>93</sup> María Laura MARTÍN-CHIAPPE (2019): “Fosas comunes de mujeres: Narrativas de la(s) violencia(s) y lugares de dignificación”, *Kamchatka: Revista de análisis cultural*, 13 zbk., 280 orr.

Martin Chiappek azaltzen duenez, emakumeen aurkako bortizkeriak, hauek etxeko pribatutasunera bueltatzea bilatzen duen, honen bidez emakumearen rol tradizional patriarkala birsortzeko asmoz. Gainera, gizonen kasuan, ziurtzat jotzen zen konpromezu politikoagatik jarduten zutela, baina emakumeen kasuan, lotura sentimentalek bultzatuta egiten zutela ondorioztatzen zen. Horrela, errepresioa pairatzeko arriskua handia zen gizon errepublikarren ama, ahizpa edo bikotea izatea.

Testigantzetan argi ikusten da, errepresio politikoaz gain, emakume hauek bizi zuten zapalkuntzak daukan genero dimentsioa. Izan ere, Juan Luis Arruabarrenak azaltzen ditu bere ama zein izebei (denak nazionalistak), ezarritako zigorrak, guztiak feminitatearekin lotutako zereginak. Gorputzei eta feminitatearen itxurari berari ere eraso egiten zitzaion, emakumeak ezaugarritzen zituzten ile luzea moztuz:

“Gure izeko [izeba] bat, amen ahizta bat, egon zan San Antonion, hor bizten zien orduen. Ta esaotzien juen biher eurela kaliek garbitzen. Ta kalien garbitzen ez eurien gure juen ta esaotzien ulie ebaikotziela dana rape. Ta hartu eta dana, ule guztixe ebaiotzien. Ta hortik gero, gure ama be erubien [eraman zuten]. Ta gure amak eukibazan orduko hiru ume. Ta gure amak esaotzan berak ezileikela juen, hiru ume daukozela ta. Baine eurek derrigor juen biher daurela. Ba zuri be bardine pasauko jatzu. Ta gure ama librau zan hortik, hortik kastigotik. Ta gero hurrengo domekan erubien bardin. Ta gure amak eruteban beti krabelina bat, zurixe ta gorrix. Nazionalistie zan. Ta esaotzien: zu klabelediniaz, gorrixaz ta zurixaz ibilittakue za! Ta berak: bai, ibilitte nau, baine niri baino geixau gustau jakan batenbati [norbaiti], kenduoztazuen baten batek eta”.

Izan ere, frankismoak beste erregimen diktatorial batzuen antzera, kartzeletako hormen barruan zein kanpoan sistemaren joera errepresiboak birproduzitzen zituen bere helburuak lortzeko: biopolitika, gorputzen eta bizitzaren eremu guztien kontrola eta ematen ari zen salbuespen-egoera.

Regina Bengoak bere amari gertatutakoa kontatzen du, baina oraingoan, ikusi dezakegu emakumearen ezaugarriek errepresiorako balio zuten modu berean, amatasuna “sakratu” bezala hartzen zela, eta honi esker libratu zela heriotzatik:

“Gure amak gerra denporan euki ebazan hiru ume, eta egon zan haurdun gemelakin. Ta juen zien San Fuertesia ze aitten aldeko osaba izekuek eukitten genduzen eta harek juan zien gerra denporan egoteko han. Nire ama Dimakue [Bizkaia] zan, eta etorri zan Dima, aitte gure izenban [izan zuen] eruen [eraman] hara, han zelan ez zan egon gerraik, ba han ondo egoten zalako. Eta etxia ailegau baino apur bat lehenau, errebueltabaten [bihurgune batean], miliziano bik urteotzien. Ta esaotzien: Donde va usted? Pues vengo de San Fuentes a por mi padre que vive aquí y para llevarle. Pues le vamos a matar- esaotzan [esan zion]

miliziano batek. Eta bestiek esatzen: No, dejale, dejale. Ta bestiek: Si, le vamos a matar. Ta bestiek: Que no hombre, como está la mujer que está en estado y... Ta holan urteban [irten zen] handik libre. Ta hori kontetaban gure amak... gureine bider”.

Miguel Angel del Arco Blancok azaltzen duenez<sup>94</sup>, errepresioak berehalako efektuez gain, beste ondorio garrantzitsu bat ekarri zuen: beldurraren ondorioz, herritarren paralizazioa, eta honekin batera esfera pribatuan gorde eta **isiltasuna** mantentzea. Horrela, beldurra egunerokotasunean txertatu zen, Del Arco Blancoren hitzetan, “erregimenarekin ez zeudenak betiko kartzelaratu zituzten, frankismoan «bizitza bizirautea besterik ez zela» kontzientziatuta”.

Isiltasun inposatu horrek, urte luzeak iraun zituen, trantsizio garaian, zinemaren arloan korrante labur batek Gerra Zibilaren inguruko film batzuk egin zituela kenduta. XXI. mendean agertu da berriro gogoratzeko behar hau. Izan ere, 2000. urtean Memoria Historikoaren Berreskurapenerako Elkarteak sortu zen, eta horren ondoren, aditu batzuek “memoria uholde” bezala deitu zuena etorri zen, literaturan, zineman zein politikan, memoria historikoaren berreskurapena aldarrikatu zuena. Urte batzuk beranduago, 2007an, Memoria Historikoaren Legea<sup>95</sup> martxan jarri zen. Testuinguru honetan sortu ziren lan honetan aztertu diren *La buena nueva* edo *Izarren Argia*. Beranduago iritsi zen, 2016. urtean, *Gernika*.

---

<sup>94</sup> Miguel Ángel DEL ARCO BLANCO (2009): “El secreto del consenso en el régimen franquista. La cultura de la victoria, la represión y el hambre”, *Ayer*, 76 zbk., 245-268 orr.

<sup>95</sup> LEY 52/2007, de 26 de diciembre, por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura.

## 5.FILMEN ANALISIA

---

Atal honetan, narrazioak Guda Zibilean eta gerraostean kokatzen dituzten hiru film historikoen analisia egingo dut. Hirurak XXI. mendean sortuak eta proiektatuak izan dira. Alde batetik, ikus-entzunezko lanen bidez garai hartako emakumeen papera zer modutara transmititu den aztertuko dut **genero ikuspegi batetik**. Horrela, filmen bidez garai horretako testuingurura gerturatuko gara, azaletik bada ere, eta gerra zein **gerraostea emakumeen ikuspuntutik nolako izan zen aztertuko dugu**. Analsiarekin bukatzeko, **memoria berreskuratzerako orduan mass mediak nolako eragina** izan duen eta zer potentzialitate izan dezakeen aztertuko dugu.

Aipatu dudan bezala, hiru dira aukeratu ditudan filmak: *Izarren Argia*, *La buena nueva* eta *Gernika*. Hiru hauek aukeratu ditut, guztiek Euskal Herria hartzen dutelako eszenatoki bezala, eta azken urteetan Gerra Zibilari buruz egin den filmografia urritik esanguratsuenak iruditu zaizkidalako. Oso interesgarria iruditzen zait, gainera, hiru filmetan, emakumeei ematen zaien trataera errepresioari, kartzelako egunerokotasunari, amatasunari, zaintzari zein emakume errepublikarren karakterizazioari dagokionez, besteak beste. Pelikula hauek analizatzea oso erabilgarria da, bestalde, Gerra Zibilaren eta Gerraostearen gizarteratzea nola gauzatu den ikusteko.

Egia da, hala ere, film bakoitza gai espezifiko batean zentratzen dela. Kartzelak, adibidez, errepresioa aztertzeko ere balio digu askotan, espetxeetan esplizituago eta modu bortitzagoan eman izan ziren egunerokotasunean modu inplizitu batean pairatu ziren errepresio motak. Hauek analizatzeko *Izarren Argia* filma erabiliko dut. Zinemaren bidez transmititzen diren errepresioaren espresioak gehienetan oso muturrekoak dira, baina maila txikiagoan ematen direnak ulertzeko giltzarriak eman diezazkigukete. Horrela, Saturraranen erregimen frankistak emakumeei aplikatu zizkien errepresio mota ezberdinak aztertuko ditugu pelikula honen bidez. Zinemak hauek zer modutan transmititu dituen ikertuko dugu, kasu batzuetan ahozko testigantzen bidezko transmisioa eta zinemaren bidezkoa uztartuz.

Lan honetan, Otxandioko emakumeak egunerokotasunean nola bizi izan ziren ere aztertu nahi da, eta garai hartako emakumeen egunerokotasuna aztertzeko, erabilgarria izan da *La buena nueva* pelikula ere. Honen bidez, emakumeak esparru pribatuan zein publikoan izan zuen papera zein modutan transmititu den aztertu dezakegu.

Hala ere, kontuan izan behar dugu film bakoitzak bere helburuak dituela, eta helburu hauen arabera izango da errealitatearekiko daukaten “fidelatasuna”. Horrela, aztertuko ditugun filmetako batzuek, *Izarren Argia*-ren kasuan aipatu dugun bezala, ahozko testigantzetan edo bestelako iturri historikoetan izango dute oinarria, eta beraz esan dezakegu errealitatera hurbiltzeko saiakera handiago bat egin izan dutela. Beste

batzuek, ordea, fikziora jo dute. Izan ere, testuinguru historikoak garrantzia galtzen du pertsonaia batzuei protagonismoa ematearen mesedetan, baina bertako pertsonaia femeninoak aztertzea ere, garai hartako emakumeen estereotipoei buruz gehiago jakiteko, eta hauek nola transmititu diren aztertze oso baliagarria izan daiteke.

Izan ere, Helena Tabernak<sup>96</sup> adierazi zuen bezala, *La buena nueva* egiterako orduan, adibidez, ikuslea emozionatzea zeukaten helburu, memoria bizi bat eraikitzearekin batera. Mikel Ruedak ere<sup>97</sup>, *Izarren Argia* filmaren kasuan, testuinguru historiko azalerrak baino gehiago, emakume horiek bizi eta sentitutakoak erakusteko asmoa zeukan ikus-entzunezko lan horrekin, eta behin eta berriz azpimarratu du bizitako sufimendu horretan generoak izan zuen garrantzia. Josu Martinezek<sup>98</sup>, *Debekatuta dago oroitzea*<sup>99</sup> dokumentalaren egileak, fikziozko obra hauek dituzten hutsune historikoak azpimarratzen ditu, eta fikzioak historiarekin gutxieneko fideltasun bat mantendu behar duela argudiatzen du, pelikula historiaren errekreazio gisa aurkezten denean, behinik behin. Azken honekin bat dator Igor Barrenetxea<sup>100</sup>, izan ere, bere hitzetan, “iraganaren pertzepzioa, memoria, oinarritzkoa da gaur egungo gizarteentzat, baina garrantzizkoa da hau errealitatea ordezkatu edo desitxuratuko ez duen modu batean eraikitzen jakitea”.

## 5. 1. Emakumeak zinema historikoan: zer irudi transmititu da?

*Gernika* filmean, Martaren pertsonaiari erreparatzen badiogu, oso pertsonaia esanguratsua da. Izan ere, garaiko genero rola guztiz apurtzen ditu. Kontuan hartu behar dugu errepublika garaian genero rola aldaketa nabarmenak izan zituztela, eta Miren Llonak<sup>101</sup> azaltzen duen bezala, emakumea natura, gorputza zein sentimentuekin lotzetik, arrazoiarekin eta ordenarekin lotzera pasa ziren kasu askotan; eta Marta honen adierazgarri garbi bat izango litzateke. Argi dago gaur egungo emakumezkoaren estereotipoak Gerra Zibileko garaikoetatik oso ezberdinak direla, baina hala ere, gaur egungo zinemari erreparatzen badiogu, gutxitan ikusten ditugu Martarena bezalako karakterizazioa duten emakumeak. Horrez gain, Miren Llonak azaltzen du XIX. mendearen amaieran hedatzen hasi zela emakumeak moralki hobeak ziren ideia, eta

<sup>96</sup> Helena TABERNA (2012): “La buena nueva”. Santiago de Pablo eta Joxean Fernández (koord.) (2012): *Cine y Guerra Civil en el País Vasco/Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian*. Donostia: Euskadiko Filmategia.

<sup>97</sup>Mikel RUEDA (2012): “Sufrir en femenino”. Santiago de Pablo eta Joxean Fernandez (koord.) (2012): *Cine y Guerra Civil en el País Vasco/Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian*. Donostia: Euskadiko Filmategia.

<sup>98</sup> Josu MARTINEZ (2012): “Debekatuta dago ahaztea”. Santiago de Pablo eta Joxean Fernandez (koord.) (2012): *Cine y Guerra Civil en el País Vasco/Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian*. Donostia: Euskadiko Filmategia.

<sup>99</sup>Josu MARTÍNEZ, Txaber LARREATEGI (2010): *Debekatuta dago oroitzea*. Euskal Herria: Moztu, Tentazioa, REC. Dokumental honek, testigantza errealean bidez, Saturraranekeo kartzelan bizitakoak gogora ekartzen ditu.

<sup>100</sup> Igor BARRENETXEA: “La representación audiovisual de la represión en el País Vasco”, *La era de la memoria*. Bilbao: UPV/EHU.

<sup>101</sup>Miren LLONA (2007): “Los otros cuerpos disciplinados. Relaciones de género y estrategias de autocontrol del cuerpo femenino (primer tercio del siglo XX)”, *Arenal 14*. liburukia, 1.zbk.



kasu honetan ere, pertsonaia bat dator honekin. Izan ere, Martak modu zintzoan jokatzeko du beti, besteak beste pelikula osoan zehar zentsuraren aurka agertzen denean. Bestalde, zintzotasun honek eta kazetaritzaren lanbidean daukan konfiantzak transmisioaren aldarrikapen bat egitera eramaten du pertsonaia, hil aurretik Henryri “kontaiozu munduari hemen gertatu dena”<sup>102</sup> esaten dionean. Puntu horretan, *Izarren Argia* filmarekin bat egiten du: biek aldarrikatzen dute transmisio hori, eta gertatu zena kontatu beharra.

Lehenengo eszenatik, jada, argi uzten dute autoritateari, edo behintzat gizonei, beldurrik ez dien emakumea dela, pirolo baten aurrean erantzuten duenean. Hau, gaur egungo testuinguruan harridura handirik sortzen ez duen rol bat da, baina garai hartako emakumeak, normalean ez zaizkigu horrela irudikatzen, batez ere zineman. Horrela filmak garai hartarako errebeldea edo aurreratua den emakume bezala erakusten digu.

Teresaren pertsonaiak garairako emakume ezohiko bat erakusten du, Estatuko administrazioan erantzunkizun postu bat duena eta ezkontza behartu batetik ihes egin duena. Horrekin batera ordea, erromantikoki ikusten dituen gizonen aurrean feminitate tradizionalan oinarritzen diren rolak hartzen ditu. Izan ere, emakumeak protagonista dituzten filmetan batez ere, ohikoak dira maitasun istorioak, behin eta berriz emakumearen alde emozionala azpimarratuz eta askotan topikoetan eroriz.

*Izarren Argia* filmean antzerako zerbait gertatzen da. Adibidez, pasarte batean, Anak (itxuraz behintzat ahula eta koldarra ematen duen presoak, filmeko pasarte batean mojei laguntzen dienak bere semea ikusi ahal izateko) zalantzan jartzen du Victoriak espetxe barruan beste gizon batekin daukan maitasun istorioaren zilegitasuna, Victoriak, bere gizona hil zenetik hiru urteko dolua baino ez duelako egin. Anak, garaiko pentsaera kontserbadorea irudikatzen du, baina Victoriaren jarrerak, eta honi babes ematen dioten emakumeenak, errepublikaren ondarea gorpuztuko luke arlo horretan; pentsaera aurrerakoiago bat proiektatzen dute, eta askatasun batzuk onartzen hasi dira. Izan ere, garai horretan indarrean zegoen *hegemonia kulturalaren*<sup>103</sup> arabera, moral jakin bat zen inposatzen zena, eta gizartearen gehiengoak, arau sozial horiek jarraitzen zituen.

Hala ere, kontuan hartu behar da errepublikak nolabaiteko pentsamendu aurrerakoiago bat ekarri zuela genero rolei dagokienean; gainera, errebeldia txikiak ahalbidetu zituen testuinguru ere izan zen, genero rolei dagokionez aldaketa txikiak ekarri baizituen, besteak beste, emakumeentzako “askatasun” gehiago. *La buena nueva* filmean ikusi dezakegu, esaterako, herriko neska gazte batek, hasiera batean medikuaren etxeko neskamea denak, agertzen duen jarreran. Neska hau ezkertiarra da, eta mutil ezkertiar

---

<sup>102</sup> Koldo SERRA (2016): *Gernika*: 1:37:00.

<sup>103</sup> Kontzeptu hau Antonio Gramsciren arabera erabiltzen dut. Hegemonia kulturala, klase menderatzaileak kulturalki askotarikoa den gizartean duen nagusitasuna adierazten duen kontzeptua da, eta haren mundu-ikuskera —sinesteak, moralak, azalpenak, pertzepzioak, erakundeak, balioak edo ohiturak— kultura-arau onartu eta ideologia nagusi, baliozko eta unibertsal bihurtzen da.

batekin harreman erromantiko bat dauka. Filmaren hasieran, dantzan ageri da mutilarekin kalean, eskutik helduta, eta keinu edo jarrera honek mojak asaldatzen ditu. Aipatutako bi pertsonaiek, ezkondu aurretik, sexu harremanak ere izaten dituzte, garai hartako pentsamendu kontserbadorearentzat pentsaezina zena. Era honetara irudikatuko luke Helena Tabernak errepublikarren izaera aurrerakoia, bide batez, gero etorriko zenarekiko kontraste sakona markatu nahian. Nabaria da pelikula osoan zehar errepublikak ekarri zuen pentsamendu aurrerakoiaren eta orduko gizarteko moral kontserbadorearen arteko elkarbizitza tirabiratsua eta kontraesankorra.

*La buena nueva*, gainera, *Izarren Argian* bezala, pisu handia hartzen dute emozioek, eta gainera emozioen eta politikaren arteko lotura modu egokian transmititzen daki. Besteak beste, ikusi dezakegu serorak bere semea mugimendu “nazionalera” bidali behar duenean, ama batek egoera horretan daukan mina ezkututzen saiatzen dela, emozioak arrazoiaren bidez, ideia politiko batzuegatik kontrolpean edukitzen. Margariren kasuan, ordea, bere senarraren heriotzak ergindako amorru sentimenduaren ondorioz aldatzen du bere ideologia, karlista izatetik kutsu ezkertiarra daukan jarrera batera.

Bestalde, nabaria da *Gernika* filmean egiten den *hiria VS baserria* dikotomia. Hauek bi mundu guztiz ezberdin bezala aurkezten ditu, eta genero rola ere, nabarmen aldatzen dira batetik bestera. Teresa eta Marta hiriko emakumeak diren bitartean, Isabel, Teresaren lehengusina, baserriko neska da. Honek buruan duen bakarra bere ezkontza eta ezkontzako soinekoa da. Teresaren adin bertsua duela atzeman dezakegun arren, bere irudi infantilizatu bat ematen da pelikulan. Horrez gain, etengabe gizonen onespena eskatzen dabil, eta hau argi ikusten da bere ezkontzako soinekoaren gainean Henryren iritzia beste guztien gainetik balioan jartzen duenean. Narrazioan, muturreraino eramaten dute pertsonaiaren gutxiespen hau, bombardaketaren erdian plazaraino joaten denean bere soinekoa salbatzeko asmoz.

Baserrian etxeko emakumearen rola indartuta ikusten dugu, Isabelez gain, honen amarengan. Nolabait hiriarekin alderatuta, zeinean gerraren presentziak handiagoa dirudien, inozentzia, bakea eta lasaitasunaren irudikapena proiektatzen du. Era batean edo bestean, atzerapen hori etxeko lanak egiten dituen emakumearen bidez erakusten da. Honek, baserria eremu atzerakoi bezala erakustez gain, etxeko lan horien devaluazio bat dakar.

Hala ere, badirudi *Gernika* filmaren helburuetako bat dela, modu nahiko mehean bada ere, emakumearen diskriminazioa salatzea. Baliteke iraganeko gizartearen errepresentazio irreal bat eginez gaur egungo gizartean eragina eduki nahi izatea. Hala ere, esan dezakegu kasu honetan gaur egun egin diren pelikulek gure memoriari forma eman diotela eta iraganarekiko ikuspuntu propio bat sortu dutela, baina aldi berean, ez direla pelikulak, bere horretan, gizartea aldatzen dutenak, baizik eta gaur egungo

gizartearen eta honen garaiko *hegemonia kulturalaren* arabera produzitzen dira pelikulak, ezartzen zaizkie rol jakin batzuk pelikula horietan emakumeei, eta marrazten dituzte errealitate jakin batzuk, benetan, elkarrizketatuen ikuspegi subjektiboekin alderatzen baditugu, horrelakoak izan ez zirenak.

Horrez gain, aipatzekoa da, *La buena nueva* pelikulak Gerra eta gerraostea pairatu zituzten emakumeen saminari egiten dion aitortza. Izan ere, pelikula osoan zehar, errepresio mota ezberdinak zein gerraren ondorioak pairatu dituzten emakumeak erakusten ditu, beraien mina zuzenean feminitatearekin lotuz: Lehen aipatu dugun bezala, serora zenak “semea ematen dio” errepublikaren kontra altxatu zirenei eta “Espainia Berriaren” proiektuari, eta ama baten mina azaleratzen da. Neskamea, bere bikotea (komunista) hil eta gero, kaskamotz uzten dute, ile luzeak sinbolizatzen zuen feminitateari zuzenean eraso eginez, eta plaza erdira eramaten dute errizino-olioa eranarazi ondoren, honek dakarren umiliazio publikoarekin. Azkenean, ikusi dezakegu nolabait, Helena Tabernak, gerraren inguruko bi “bandoen” edo bi aldeek eragin zuten emakumeen sufrimendua ekartzen digula lehen planora, eta sufrimendu hau, ama, bikote edo ahizpa izatearekin lotuta zegoela, eta ez hainbeste beraien ideia politiko indibidualekin. Honekin lotuta, Mary Nashen azaltzen duen bezala<sup>104</sup>, emakumeen errepresioa, nagusiki, disziplinatzailea izan zen —gizarte osoa menderatzera bideratuta zegoen—, maskulinoa, berriz, “suntsitzeko asmoz” ezartzen da, eta modu desberdinean eraikitzen da batzuen eta besteen arriskugarritasuna. Ideia hau ondo ikusten da *La buena nueva* pelikulan, ezkerreko emakumeen sufrimenduari aitortza bat egiten baitio amaieran, herriko emakume ezkertiarak, apaizarekin, beraien senideak hil zituzten lekuetara abiatzen direnean, eta beraien samina, plano laburretan eta hurbiletik ikusi dezakegunean. Eszena honek, aldi berean, emakumeen arteko elkartasun bat erakusten du, pelikula guztian zehar presente dagoena.

Funtsean, Mikel Rueda, *Izarren Argia* filmeko zuzendariak, oso ondo laburbiltzen du gaur egun generoak eta transmisioak daukaten harremana:

“Francok, nahita, milaka emakume baztertzea erabaki zuen herrialde osoko kartzeletan, eta, era berean, emakume hauen haurrak lapurtu eta beste emakume batzuei ematea, kasu honetan, mojei. Honek, garai hartan genuen gizarte-motari buruz asko esaten du. Eta, era berean, ia 70 urte igaro behar izan dituzte istorio horiek, emakumeak protagonistatzat dituztenak, argitara atera daitezen; honek, gaur egun dugun gizarte-motari buruz are gehiago dio”<sup>105</sup>.

<sup>104</sup>Mary NASH (2015): “Vencidas, represaliadas y resistentes: las mujeres bajo el orden patriarcal franquista”, Julián CASANOVA (koord.) *40 años con Franco*. Madril: Planeta, 191 - 227 orr.

<sup>105</sup>Mikel RUEDA: “Sufrir en femenino”. Lan honen helburua eta aztergaia ez den arren, ume lapurtuen gaiak oraindik ere ikerketa sakona merezi du. Hala ere badira azken urteotan agertu diren lan bikainak: eta hau aipatu: Neus ROIG (2018): *No llores, que vas a ser feliz*. Bartzelona: Ático de los libros.

## 5.2. Gerra eta gerraostea emakumeen ikuspuntutik

Arestian aipatu dugun moduan, errepresioa aztertzen hasita, garaituen aurkako zapalkuntzari erreparatzen badiogu, ikerketa ezberdinek argitara eraman dute emakumeen aurkako errepresio espezifiko bat egon zela<sup>106</sup>. Antonio Vallejo-Nájera tesietan oinarritutako errepresio bat ezarri zuten frankistek emakume errepublikarren gainean. Vallejo- Nájera, Francoren agindupean egon zen psikiatra bat izan zen, eta bere tesiek, besteak beste, amatasuna izan zuten erdigunean. Bere ikerketen helburua orokorrean, marxismoaren sustrai biopsikikoak aurkitzea izan zen. Garai hartako testuinguruan, amatasunak feminitatea definitzeko elementu garrantzitsua zen, eta zentzu horretan, emakume hauen nortasunari kalte egiteko, erregimen frankistak, Vallejo-Nájerari jarraituz, honen aurka egin zuen. Izarren argia pelikulak tarte bat eskaintzen dio psikiatra falangista honi: Filmeko pasarte batean, Antonio Vallejo-Nájera doktorearen bisita jasotzen dute presoek. Doktoreak galdera batzuk egiten dizkie eta ez da askoz gehiago sakontzen. Atal honetan, filmak, era nahiko azaleko batean bada ere (pelikularen luzeerak mugatuta, seguruenik), presondegian jasotakoak erreparatzen ditu, baina, Antonio Vallejo-Nájera ikerketan gehiago sakontzen badugu, frankismoak emakumeekiko eduki zuten errepresioa ulertzeko hainbat giltzarri aurkitu ditzakegu.

Esperanza Bosch Fiol, Victoria A. Ferrer Pérez, Capilla Navarro Guzmán ikerlariak egindako lanean<sup>107</sup> ondo azaltzen den bezala, mediku honen ikerketen arabera, *garaituak* pertsona endekatuak ziren eta, ondorioz, umeak ezin ziren beraien eskuetan utzi. Arrazoi hau baliatzen zuten frankistek, Saturraran bezalako kartzeletan zigor fisikoez gain, zigor psikologikoak ezarri eta ahalik eta min handiena egiteko. Horrela, modu publiko batean, eta erregimenaren babesarekin, lapurtu zitzaizkien umeak kartzeletako preso politikoei. Honekin lotutako beste adibide bat agertzen zaigu *La buena nueva* pelikulan, emakume ezkertiarrei beraien seme alabak bataiatzera behartzea, kaskamotz utziko dituzten mehatxupean: umeak “garbitzeaz” gain, emakume hauek umiliatzeko modu bat zen.

Mikel Ruedaren lanari dagokionez, egia da aipatutako dokumentalean ageri diren testiguen adierazitako gai asko jorratzen direla, baina hori bai, beti ere modu nahiko azaleko batean, gai batean izan ezik: amatasuna. Honetan asko sakontzen du filmak, eta

---

<sup>106</sup> Esperanza BOSCH, Victoria Aurora FERRER, y Capilla NAVARRO (2008): “La psicología de las mujeres republicanas según el Dr. Antonio Vallejo Nágera”, *Revista de Historia de la Psicología*, 29, 3-4, 35-40 orr. Irene ABAD (2009): “Las dimensiones de la «represión sexual» durante la dictadura franquista”, Jerónimo Zurita, zbk.84. págs. 65-86. Zenbakiaren dossierra: *Guerra Civil: las representaciones de la violencia*, Javier RODRIGO eta Miguel Ángel RUIZ (koord.) Sofia RODRÍGUEZ (2005): “Mujeres perversas. La caricaturización femenina como expresión de poder entre la guerra civil y el franquismo”, *Asparkia*, 177-198 orr..

<sup>107</sup> Esperanza BOSCH, Victoria Aurora FERRER eta Capilla NAVARRO (2008): “La psicología de las mujeres republicanas según el Dr. Antonio Vallejo Nágera”, *Revista de Historia de la Psicología*, 29, 3-4, 35-40 orr.

esan dezakegu bestelako gaiak ere lantzen diren arren, askotan filmaren ardatz nagusi bihurtzen dela.

Frankismoak amatasunaren inguruko irudi ultrakontserbadore eta erreakzionario bat babestu eta legez inposatu zuen. Izan ere, frankismoaren diskurtsoari jarraituz, emakumea tradizio kristauaren eta nazioaren balioen transmisio bide bezala ikusten zen, eta esan dezakegu emakumea goraiatzeko zela zentzu honetan, eta izaera ia-ia aingerutarra ematen zitzaiola. Hau zen emakumeek nazioari egin ziezaioketen ekarpenik handiena, eta eredu horri erantzuten zion emakumea sozialki mirestua zein saritua izan zen –beti ere genero edo sexuen arteko harreman hierarkiko batean oinarrituta-. Frankismoak amatasunaren inguruan zuen definiziotik aldentzen zenak, ordea, aberriari kalte egiten zion [hau izango litzateke Vallejo Najeraren tesia]. Zentzu honetan, emakumearen erreproduzitzailer funtzioa (bai biologikoa zein balore jakinen transmisioarena) ideologizatu eta nazionalizatu egin zuen frankismoak<sup>108</sup>. Hau argi ikusi dezakegu *La buena nueva*, serorak interpretatzen duen etxeko andre onaren rolean. Honek, Margari bere semearekin ezkontarazi nahi duenean, etxean “lagunduko duen” emakume bat izateko.

Pelikulan, esan bezala, amatasuna feminitatearen ezinbesteko ezaugarri bezala erakusten da. Esanguratsua da, zentzu honetan, Juliaren figurak pelikulan zehar erakusten duen transformazioa. Pertsonaia honek mojei aurre egiten die, kementsu borroka egiten du hasieran, kontzientzia ideologiko bat du, eta errebeldiaz jarduten du mojen aurrean. Pelikula bere haurraren aferan zentratzen denean berriz, pertsonaiak izan dezakeen dimensio politiko guztia galtzen du bat-batean. Izan ere, bere haurra gaixotu egiten da elikagai faltaren ondorioz, eta Juliaren pertsonaia haurraren zentratzen da. Ondoren, umea hiltzen denean, ama baten mina erakusten digu filmak, eta esan bezala, Julia ama rol horretara mugatzen da, bere alde politikoa desagertzen den bitartean.

Filmean, enpatia sortzeko mekanismo bat izan daiteke amatasunari zentraltasuna ematearena, emozioak sortzeko bide bat; oraindik gaur egun, ezberdintasun handiarekin bada ere, feminitatea oso lotuta baitago amatasunarekin. Horrela, hau izan daiteke gakoetako bat Mikel Ruedaren pelikula eta honek emozioak transmititzeko orduan izan duen arrakasta ulertzeko.

*La buena nueva*-n, ordea, bestelakoa da amatasunaz ematen den irudia: izan ere, serorak bere semea mugimendu *nazionalari* “ematen” dionean, ideia politiko-ideologikoak lehenesten ditu amatasun sentimenduen gainetik. Hala ere, argi dago ez daukala aukeratzeko tarte handirik, derrigortuta baitago bere semea gerrara bidaltzera. Gainera, pelikulan zehar bere jarreraren aldaketa bat soma daiteke zentzu honetan: amaiera aldera bigarren semearen bila datoz falangistak, baina kasu honetan soldaduen aurka jotzen du hau eraman ez dezaten, emozioak ideien aurretik jarritz.

---

<sup>108</sup> Beste erregimen faxista batzuk egin zuten bezala: Victoria DE GRAZIA (1992): *How fascism ruled women*. California: University of California Press.

Esanguratsua da, Helena Tabernaren zein Mikel Ruedaren lanean amatasuna emakumeen arteko elkartasun elementu bezala agertzen dela. *Izarren argia*-n, batak bestearen umeez zaintzen dute, eta batak bestearen amatasuna ulertzen. *La buena nueva*-n, berriz, Margarik umea edukitzen duen unea herriko emakume ezkertiarrekin daukan harremanean inflexio puntu bat bilakatzen da, eta beraien ezberdintasun ideologikoak alde batera uzten dituzte, amatasunarekin lotutako esperientziak gerturatu egiten dituztelako. Nolabait, amatasuna zinemak ikusleari enpatia sorrarazteko erabiltzen duen mekanismo bat den bezala, esan dezakegu pelikuletako protagonisten arteko loturak estutzeko elementu bezala ere agertzen dela.

Bestalde, Saturraran bezalako kartzeletan, Vallejo-Nájera doktorearen tesiak jarraitzen zituzten hainbat ikerketa egin ziren, zientifikoki frogatzeko errepublikarrak zein ezkerreko mugimenduetan militatzen zuten pertsonak mentalki ahulak zirela, eta emakume antifaxistak genetikoki zoroak eta ninfomanoak.<sup>109</sup>

Filmean bertan<sup>110</sup> Vallejo Najera presondegira joaten den eszenan, Victoriari galdetzen dio ea sexua gustoko duen [sexua garai honetan, emakumeentzat, umeak izateko bide bat da, eta gozatzea bekatu bezala ulertzen da]. Hauek dira Vallejo-Nájera ateratako ondorioetako batzuk, emakume presoei egindako ikerketetan:

“Gogoratu bedi, emakumeen sexuak iraultza marxistan izan duen parte-hartze aktiboa ulertzeko, honen oreka mentala, ingurumen-eraginekiko erresistentzia txikiagoa, nortasunaren gaineko kontrolaren segurtasunik eza (...). Emakumea sozialki eusten duten galgak desagertzen direnean (...), orduan, emakumeen sexuan asetzen da krudeltasun-sena, eta irudikatutako aukera guztiak gainditzen ditu, hain zuzen, inhibizio adimentsu eta logikoak falta zaizkiolako. Gainera, matxinada politikoetan beren sexu-nahi ezkutua asetzeko aukera dute”<sup>111</sup>.

Erregimen frankistak II. Errepublikan sortu zen *emakume modernoaren* edozein arrasto ezabatu nahi zuen feminitate eredu ultrakontserbadore baten mesedetan. Frankismoak inposatu zuen genero ordenaren arabera, emakumearen berezko espazioa etxeko eremu pribatura mugatzen zen. Gainera, adingabekotasun egoeran geratu ziren emakumeak, gizonen tutoretzapean, bere jarduera guztia errezueta eta etxeko lanetara mugatuz. Funtsean, honakoak ziren feminitate eredu honen ezaugarriak: sumisioa eta mendekotasuna, asexualitatea edo birgintasuna –sexua umeak izateko prozedura bezala

---

<sup>109</sup> Hemen ikusia: Esperanza BOSCH, Victoria Aurora FERRER, y Capilla NAVARRO (2008): “La psicología de las mujeres republicanas según el Dr. Antonio Vallejo Nágera”, *Revista de Historia de la Psicología*, 29, 3-4, 35-40 orr.

<sup>110</sup> Mikel RUEDA: *Izarren Argia*, 0:12: 00. min

<sup>111</sup> Antonio VALLEJO, E.M. MARTÍNEZ(1939): “Psiquismo del Fanatismo Marxista. Investigaciones Psicológicas en Marxistas Femeninos Delincuentes”, *Revista Española de Medicina y Cirugía de Guerra*, 9. lbk., 398-413 orr.

ulertu zen emakumeen kasuan, ez plazerra aurkitzeko bide bat—edo janzkeraren gaineko kontrola.<sup>112</sup>

Hori argi ikusten da, *La buena nueva* filmean. Izan ere, emakumeek ideia politikoak dituztela ageri den arren, inoiz ez dituzte esparru publiko batean zabaltzen, eta hau egiteko saiakeraren bat dagoenean, behin eta berriz eremu pribatura bultzatzen dituzte. Honen adibide garbia da herriko falangeko burua apaizaren etxera bazkaltzera doanekoa. Bazkaria zerbitzatzen dabil Margari, eta falangeko buruak esertzera gonbidatzen du, beraiekin hizketan aritzeko. Hala ere, bere iritzia kaleratzen duenean (“altxamendu loriatsu horrek hil zuen nire senarra”), falangeko buruak hizketalditik baztertzen du, “hau gizonen arteko elkarrizketa bat da” diotsonean. Gizon honek berak, antzerako eszena batean parte hartzen du geroago. Izan ere, falangistak ezkertiarra den emakume bat dauka maitaletzat, eta honek falangekoekin zerikusirik izan nahi ez duela esaten dionean, esparru politikoan sartuz, zaplasteko bat ematen dio gizonak. Bestalde, azken harreman honek, gorago aipatu duguna berresten du: emakume ezkertiarak ninfomanotzat zituzten, baina gero beraiekin sexu harremanak mantentzen zituzten; beraien botereaz baliatuz batzuetan, eta beste batzuetan bortxaz. Honek garai hartako moral bikoitza azaleratzen du; errepublika garaian hasi zen *emakume moderno*-ren mugimenduari lotuta, askatasun gehiago irabazi zituzten emakumeek, eta horregatik frankismotik mespretxagarri bezala ikusten zituzten emakumeok, baina baliagarri beraien sexu gosea asetzeko.

Errepresio sexuala ere ageri da *Izarren Argia* filmean, mojen partetik, guztiz esplizitua ez bada ere. Pelikulan, ikusi dezakegu moja batek Marisa presoarekiko daukan fijazio sexuala, eta presoak mojararen aldetik pairatu behar duen errepresioa, dimentsio sexual bat hartzen duena [hau hainbat eszenatan gauzatzen da, mojak presoarenganako daukan hurbilketa sexuala azaltzen denean]. Honek, azkenean, mojarari aurre egiten dionean, erahil egiten du. Bai kartzeletan zein kartzelatik kanpo, Francoren erregimenak erabili zuen bortizkeria motetako bat izan zen errepresio sexuala. Arestian esan bezala, moral bikoitz bat erakusten zuen gainera errepresio mota honek. Maud Joly-k bortizkeria sexuatu edo errepresio sexuatu terminoen bidez azaltzen du gerra egoeretan emakumeek jasaten duten errepresio mota espezifiko, osagai <<sexuatuak>> dituen.<sup>113</sup> Azaltzen duenez, bi aldeetan eman zen bortizkeria mota hau, baina azpimarratzen du inoiz ikusi gabeko bortizkeria sexual bat eman zela altxatutakoen aldean.<sup>114</sup>

---

<sup>112</sup> Esperanza BOSCH, Victoria Aurora FERRER eta Capilla NAVARRO (2008): “La psicología de las mujeres republicanas según el Dr. Antonio Vallejo Nágera”, *Revista de Historia de la Psicología*, 29, 3-4, 35-40 orr.

<sup>113</sup> Hemen ikusia: Irene ABAD (2009): “Las dimensiones de la «represión sexual» durante la dictadura franquista”, Jerónimo Zurita, zbk.84. págs. 65-86. Zenbakiaren dossierra: *Guerra Civil: las representaciones de la violencia*, Javier Rodrigo y Miguel Ángel Ruiz Carnicer (coords.)

<sup>114</sup> Hemen ikusia: María Laura MARTÍN-CHIAPPE (2019): “Fosas comunes de mujeres: Narrativas de la(s) violencia(s) y lugares de dignificación”, *Kamchatka: Revista de análisis cultural*, 13 zbk., 280 orr.

Horrez gain, gosearen gaia ere azpimarratzen da filmean, baina batez ere umeen heriotza eragiten zuen faktore bezala. Ahozko historiaren bidez<sup>115</sup> hau baieztatzen den arren, filmean ez da ageri emakumeek pasa zuten gosearen gaineko erreferentzia askorik, eta gosea beste errepresio mota bat bezala hartu daiteke. Natividad Morcillo Diéguez badajoztarra Saturraraneke kartzelan egon zen, eta horrela dio:

“Han ibai bat zegoen, mota guztietako zerrikeriak zeramatzana: patata-mondak, belarkiak...ibaitik pasatzen zen guztia emakumeek jaten zuten; horrela intoxikatu ziren sustrai batzuk hartu zituzten neskak, edo ez dakit zer ziren; koitaduek jan egin zituzten eta horrela hartu zuten intoxikazio hori; asko hil ziren”<sup>116</sup>.

Natividad bezala, bertan egondakoek, gosea azpimarratzen dute behin eta berriz, eta hau baretzeko emakumeek egiten zituztenak; kasu honetan, bezala, batzuetan, errepresioak eragindako desesperazioak heriotzara eramane bazituen arren. Carmina Merodiok, bertan ematen zieten janariari buruz honakoa dio:

“Carmen Castro izeneko funtzionaria batez gogoratzen naiz; bazkalorduan bakarrik ikusten genuen. Egun batean, Usurbilgo moja bati, Sor Angelesi, eta berari aurre egin behar izan nien, arrantxoak deitzen zioten zomorroekin egindako zerrikeria bat jatera behartu nahi nindutelako”<sup>117</sup>.

### 5.3. Memoria eta mass media

2000. hamarkadaren hasieran, memoria berreskuratu nahi izan duten mugimenduak ugaritu ziren zinema munduan, eta honek, memoriaren gaia plazaratu eta masa handietara helaraztea ahalbidetu zuen. Kontuz ibili behar dugu, ordea, memoria hau zabaltzeko moduarekin, ikuslegoari iraganaren irudi bat ematen diotelako. Pelikula batzuk testigantzekin ahalik eta fideltasun handiena mantentzen saiatu dira; beste batzuk ordea, fikziora jo dute, testigantzetako bizipenetatik aldenduz.

Esaterako, *Izarren Argia*-ri dagokionez, filma *Prohibido Recordar*<sup>118</sup> dokumentalarekin edo ahozko testigantzekin alderatzen badugu, esan dezakegu filma testigantzen gainean eraikitzen saiatu direla, baina baliteke ikuslegoaren mesedetan, askotan testigantzek oroitzen duten bortizkeria maila eta bizi-baldintzak, ez datozela bat filmean agertzen zaigunarekin.

---

<sup>115</sup> Tomasa CUEVAS (2004): *Testimonios de mujeres en las cárceles franquistas*. Instituto de estudios altoaragoneses.

<sup>116</sup> *Ibidem*.

<sup>117</sup> *Ibidem*.

<sup>118</sup> Josu MARTÍNEZ, Txaber LARREATEGI (2010): *Debekatuta dago oroitzea*. Euskal Herria: Moztu, Tentazioa, REC. Dokumental honek, testigantza errealean bidez, Saturraraneke kartzelan bizitakoak gogora ekartzen ditu.



Esan beharra dago, gainera, pelikula honek memoriaren aldarrikapen bat egiten duela, eta tresna baliagarria izan daitekeela, modu nahiko komertzial batean bada ere, Saturraraneko kartzelari buruz ezer ez dakiten herritarrak hunkitu eta honen berri izateaz gain, gertaera hauekiko *memoria protesiko* bat garatu dezaten; argi badago ere, sakontasuna bilatuz gero beste iturri batzuetan bilatu beharko dutela. Lehen esan bezala, ahozko testigantzetan eta *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos*<sup>119</sup> liburuan oinarritzen den filma da, eta beraz, ahalegin bat egiten du gertakariak bizi zituzten pertsonen subjektibitateetatik historia kontatzeko.

Dimentsio politikoari dagokionez, *La buena nueva*-n ematen da gehienbat honen berri, eta beraien ideiekin sendoki konprometituta dauden pertsonaiak azaleratzen zaizkigu. *Gernika*-ri dagokionez, eremu politikoari buruz ezer gutxi esaten da, eta esan dezakegu protagonisten arteko istorioak hartzen duela nagusitasuna, testuinguru politikoa oso atzean geratzen den bitartean. Protagonista hauek ere, gainera, ez dituzte beraien ideia politikoak bereziki azaleratzen. Hala ere, pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak lantzean, bakoitzaren ideologiaren zirriborro bat ageri da, azaletik bada ere, eta testuinguruari dagokionez bereziki azpimarratzen da ezkerreko gobernu bihozgabe baten irudia.

*Izarren Argia* filmean, berriz, dimentsio politikoa esplizituki mantentzen duen pertsonaia, eta errebelldiaz jokatzeko duena filme osoan zehar, Emelina da. Hala ere, pertsonai honen bidez errepublikarren ideiak azalarazteko aukera bikaina izan zitekeen arren, ez da horrelakorik egiten, eta bere kontzientzia politikoa errebelldia soil bezala agertzen da askotan, fundamentu politikorik ez duena.

Zinemaren despolitizazioarekin batera, film honek ere beste behin erreproduzitzen du heroien irudia. Protagonistak, emakume gogor bezala erakusten ditu, errebelatzen direnak. Gogortasun eta heroizitate hori, era berean, emozioekin lotuta dago; maitasunean edo emozioetan du oinarri, ustez politikarekin loturarik ez duen maitasun edo emozio batekin, baina kasu honetan, dimentsio politikoa hartzen duena, nolabaiteko disidentzia bat ekartzen duelako.

Zinemak, honen bidez amatasunarekin lotutako heroitasun bat planteatzen du: ama guztiak, izatez, heroiak dira. Horrela, heroien diskurtsoa errepikatzen du, zineman aspalditik ematen ari den joera bati jarraituz. Emakume “ahulak” edo ekintza heroikoak egiten ez dituztenak agertzen badira, (Anaren pertsonaia kasu) bigarren planoan da, eta ia-ia antagonista bezala. Puntu honetan, gure buruari galdetu beharko genioke zer den heroia izatea, eta zinemak, film historikoak egiten dituen heinean, historiaren heroien zein irudi transmititzen dizkigun; hauen bidez ezartzen baita zeintzuk diren heroiak eta zeintzuk ez. Izan ere, gaur egun iruditeria kolektiboan agertzen den “heroien” definizioaren arabera eraiki dituzte filmeko pertsonaia nagusiak, emakume *gogorraren*

---

<sup>119</sup> Maria GONZÁLEZ, Eduardo BARINAGA (2010): *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos*. Bilbo: Ttartalo.

rola behin eta berriz erreproduzitzen, eta modu honetan rol hori ontzat emanez, posible izan daitezkeen heroiaren beste definizio batzuk alboratuz.

Bestalde, esan dezakegu *mass media* erabilgarria izan daitekeela memoria aldarrikatzeko, eta kasu honetan, aztertu dugun hiru filmek egiten dute memoriaren aldeko adierazpen esplizitu bat. *Izarren Argia*-ren kasuan, benetako testigu batek esnadako hitzak erreproduzitzen ditu filmak: “No lloreís, lo que teneis que hacer es no olvidarnos”. *Gernika*-n berriz, arestian aipatu dugun bezala, Martaren pertsonaiak Henryri eskatzen dio hil aurretik Gernikan gertatutakoa munduari kontatzeko, eta *La buena nueva*-n esanguratsua da protagonistak pelikulan zehar egiten dituen mapak, frankistek hil zituztenak non lurperatuta dauden jakiteko. Gero, mapa horiek eliz-mutikoari ematen dizkio, eta hau hurrengo generazioei emandako memoria zati bat bezala ulertu dezakegu. Horrez gain, honela dio protagonistak pasarte batean, hildakoak gogorarazteari erreferentzia eginez: “Nadie puede devolverles la vida, pero podemos evitar que los maten dos veces”<sup>120</sup>.

Beraz, ondorioztatu dezakegu *mass media* erabilgarria izan daitekeela memoria transmititzerako orduan, baina helburu zehatz batzuk izan behar dituela, komertzialetatik haratago. Izan ere, *Gernika* bezalako lan bat, eraginkorra izan daiteke helburu komertzialak lortzerako orduan, herri horrek nolabaiteko protagonismo bat izan duelako Euskal Herriko Guda Zibilaz hitz egiterako orduan, eta istorio hau behin eta berriz erreproduzitu izan da, fikziozko elementu salgarriak sartuz eta dimentsio historikoa diluituz. Hala ere, analisi honetan ikusi dugun bezala, bestelako filmek historiaren ikuspegi osotuago bat eman diezagukete, bereziki testigantza pertsonaletan oinarritzen badira *Izarren Argiak* zein *La buena nueva* egiten duten bezala [azken hau bere zuzendariaren senide baten istorio errealean oinarritzen da, Mariano Ayerra apaiza], eta helburu sozialak badituzte.

---

<sup>120</sup> Helena TABERNA (2008): *La buena nueva*, 0:58:00 min.

## **6. ONDORIOAK ETA LAN HONEN GIZARATERATZEA**

---

Lan hau egiten hasi nintzenean, zerbaitek esaten zidan beharrezkoa zen zerbait ikertzen ari nintzela. Orain, lan hau egin izanak jakintza eskuratzeko eman didan aukeraren ondoren, uste hori berretsi eta indartu baino ezin dut egin. Disziplina eta gai ezberdinak batzen saiatu naiz, ahalik eta ikuspegi osotuena emateko, baina esentzian bi ideia nagusi aipatu nahiko nituzke, momentu oro lanaren ardatz izan direnak: iraganeko emakumeen, eta konkretuago Otxandioko emakume hauen esperientzia jasotzeko eta transmititzeko moduak daukan berebiziko garrantzia.

Hain zuzen, funtsezkoa da, askotan ezkutuan geratu diren emakume horien testigantzak biltzea, bai kazetaritzaren ikuspuntutik (gertakarien bertsio ahalik eta osotuena jasotzeko), bai justizia sozialaren eta berdintasunaren ikuspuntutik, eta bai historiagintzaren ikuspuntutik. Eta hau egiteko modurik egokiena, gure helburua transmisio emozional sakon bat bada, ahozko historiak berarekin dakarren emozionaltasuna eta esentzia mantentzea da. Hala ere, testigantza hauek jasotzeaz haratago joan behar dugu. Izan ere, lekukotza hauek gizarteratzeko beharra ezinbestekoa da, herri baten memoria bizirik mantentzeko, eta generoaren historiari ekarpen bat egiteko. Herriari bere historiaren berri eman behar zaio, jakin beharra daukagu zer bizi izan zuten gure amonek, etorkizun hobe bat eraikitzerako bidean. Baina hau egitea, bide tradizionalak erabiliz, gero eta zailagoa da gaur egungo gizarteak dituen ezaugarriak kontuan hartuta. Teknologia berriak, erronka bat izateaz gain, baliabide boteretsu bat izan daitezke, transmisio emozional bat egiteko. Honek, zerikusia du historia justizia sozial bat sortzeko erabiltzearekin; hau da, ez bakarrik hitzez burutuko den justizia bat, baizik eta materializatuko dena. Historia, eta iraganeko esperientziak gaur egungo gorputzetan eta bihotzetan txertatu behar dira. Barrenak mugitzen dizkigun horrek modu indartsu batean irauten du denboran zehar, eta hau, egungo abiaduraren eta informazio uholdeen testuinguruan ezin garrantzitsuagoa da. Gainera, emozionatzen gaituen horrekiko elkartasun handiago bat garatzen dugu.

Hala ere, lan honetan aztertutako filmetan, adibidez, transmisio emozional honen konplexutasuna ikusi daiteke, eta film bakoitzaren helburuek nabarmen baldintzatzen dute transmisio hori. Baina ez soilik teknologia berriak; nolabaiteko korporalitatea duten eta baliabide urriagoekin ere aurrera eraman daitezkeen ekimenek ere transmisio emozional bat ahalbideratu dezake. Honek, ezinbestean, lan honen gizarteratzera narama.

Izan ere, lan honek, hasieran aipatu dudana bezala, tresna teoriko bat izan nahi du, baina praktikotasun bat izateko helburua dauka. Lana herriko testigantzei esker burutu ahal izan dut, eta herriari zerbait emateko, itzultzeko, lanean zehar planteatzen dudana transmisio emozional bat oinarri hartuko duen erakusketa bat planteatzen dut. Erakusketa honetan pentsatzerako orduan, inspirazio iturri izan dut *Sitio de Memoria*

ESMA<sup>121</sup> museoa. ESMA, 1976 eta 1983 bitartean Argentinan ezarritako azken diktadura zibiko militarrek ezarri zuen atxilotze-, torturatze- eta akabatze-zentro garrantzitsuenetako bat izan zen. Gaur egun, krimen hauen ahanztura saihesteko eraikitako museo bat bilakatu da. Museo hau eraikitzerako orduan, gertakariak azaldu eta testuinguratzen dituzten kartelak jarri dira, baina eraikineko horma, zoru zein eszenatokiak ez dira berriztu; garai hartan bertan egondako presoek ikusi zuten eraikin berdintsua ikusi dezake museoa bisitatzen duen edonork. Honakoa dio Marisa González de Oleagak ESMAren inguruan:

“Museoan dabilen narratibaren eta kontakizun horiek irudikatzen duten eta, nolabait, haiekin hitz egiten duen espazioaren arteko harreman bat dago. Izan ere, ez gara ari edozein espaziori buruz, baizik eta irudikatu nahi diren gertaeren lekuko izan den lekuari buruz. *Sitio de Memoria ESMA*-k kontatzen diren gertaera askoren agertoki izaera du, eta materialtasun horrek ezartzen ditu mugak eta aukerak”.<sup>122</sup>

James Cliffordek<sup>123</sup> museoak **kontaktu gune bezala definitzen ditu, museoak gaur egun emozionalki interpelatuak garen esperientzia gune bihurtu direla argudiatuz**. Hau da, museoan iraganak interpelatu egiten gaitu, gure gorputzak emozionalki astinduz; iraganeko esperientzien protagonistak bihurtzen gaitu espazio honek, iraganaren eta orainaldiaren arteko kontaktu material bat sortuz.

Bisitariak bere egiten ditu protagonisten bizipenak; beraiek zapaldu zuten zoru berdina zapaldu dutelako, beraiek entzun zituzten soinu berdinak entzun zituztelako, eta beraiek ikusi zituzten gauza berdinak ikusten ari direlako. Eta guztia ikusten ez badute ere, eszenatokia ikusten dute, testuingurua, eta testigantzen laguntzarekin, gai da ikuslea eszenatoki horretan, azaltzen zaiona bere gorputzean, emozionalki sentitzeko. Hau *memoria protesikoaren* adibide garbia da, modu sakonean eragiten baitu bertan dagoen norbanakoaren subjektibitatean.

Horregatik, interesgarria izango litzateke, puntu honetan, Otxandioko emakumeen bizipenak gogoratzeko *Sitio de Memoria ESMA*n jarraitu den antzerako eredu bati bide ematea. Modu honetan, emakume hauen memoria berreskuratzeaz gain, baliabideak sortu daitezke emakume hauek ikusi eta entzun zutena berreraikitzeke, eta Landsbergen kontzeptuari jarraituz, *oroitzapen protesiko* batzuk sortzeko. Horrela, genero identitateak markatutako esperientzia bat berreskuratzeaz gain, enpatia sortu dezake, eta egun, Otxandioko herriaren historia kontatzerako orduan, ikuspuntu berriak zabaldu

---

<sup>121</sup> Informazio gehiagorako ikusi: <https://www.espaciomemoria.ar/>

<sup>122</sup> Marisa GONZALEZ DE OLEAGA(2019): “¿La memoria en su sitio? El museo de la Escuela de Mecánica de la Armada”, *Kamchatka. Revista de análisis cultural*, 13 zb. 117-162 orr.

<sup>123</sup> James CLIFFORD (1999): “Itinerarios transculturales”. Bartzelona: Gedisa. 233-270 orr. Hemen ikusia: Marisa GONZALEZ DE OLEAGA(2019): “¿La memoria en su sitio? El museo de la Escuela de Mecánica de la Armada”, *Kamchatka. Revista de análisis cultural*, 13 zb. 117-162 orr.

*Mass media*, ahozko historia eta memoriaren transmisioa:  
Gerra zibilaren aztarnak otxandioko emakumeen oroimenean

ditzake, gaur egungo subjektibitateetan eragin bat izateaz gainera. Lan hau Otxandioko udaletxeari helaraziko diot, eta etorkizun hurbil batean udaletxearekin elkarlanean horrelako proiektu bat garatzeko proposamena luzatzea da nire asmoa, ikerketa xume hau tresna teoriko huts batetik haratago joan dadin. Funtsean, Otxandioko herriari tresna praktiko bat emateko, bere *amamen* historia ezagutu dezan.

## BIBLIOGRAFIA

---

Irene ABAD (2009): “Las dimensiones de la «represión sexuada» durante la dictadura franquista”, Jerónimo Zurita, zbk.84. págs. 65-86. Zenbakiaren dossierra: *Guerra Civil: las representaciones de la violencia*, Javier Rodrigo y Miguel Ángel Ruiz Carnicer (coords.)

Ana AGUADO (2011): “Memoria de la Guerra Civil e identidades femeninas antifranquistas”, *Memorias de la Guerra Civil española: transmisión, reapropiación y uso, Europa-América Latina*. Paris: IHEAL.

Bakarne ALTONAGA, Maialen ARANGUREN, Aintzane RINCÓN (2017): “Ahozko Iturriak”, *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*. Bilbo: EHU.

Nerea ARESTI (2010): *Masculinidades en tela de juicio. Hombres y género en el primer tercio del siglo XX*. Madril: Cátedra. 22-23 orr.

Igor BARRENETXEA: “La representación audiovisual de la represión en el País Vasco”, *La era de la memoria*. Bilbao: UPV/EHU.

Cecilia BARTOLOMÉ (2019): *Cría, Reza, Ama*. Espainia: DMAX.

Walter BENJAMIN (1942): *Sobre el concepto de historia*. Frankfurt: Instituto de Investigación Social.

Esperanza BOSCH, Victoria Aurora FERRER eta Capilla NAVARRO (2008): “La psicología de las mujeres republicanas según el Dr. Antonio Vallejo Nágera”, *Revista de Historia de la Psicología*, 29, 3-4, pp. 35-40.

Almudena CARRACEDO, Robert BAHAR (2018): *El silencio de otros*. Espainia: Coproducción España-Estados Unidos-Francia-Canadá; Semilla Verde Productions, Lucernam Films, American Documentary POV, Independent Television Service, Latino Public Broadcasting (LPB), El Deseo.

Ángela CENARRO (2006): *La sonrisa de Falange. Auxilio y Guerra Civil en la posguerra*. Bartzelona: Crítica.

Ángela CENARRO (2006): “Movilización femenina para la guerra total (1936-1939). Un ejercicio comparativo”, *Historia y Política*, 16 zbk. 159-182 orr.

Tomasa CUEVAS (2004): Testimonios de mujeres en las cárceles franquistas. Instituto de estudios altoaragoneses.

José Luis DE LA GRANJA, Santiago DE PABLO (2009): *Historia del país vasco y navarra en el siglo XX*. Bartzelona: Biblioteca Nueva.

José Luis DE LA GRANJA, Santiago DE PABLO, Coro RUBIO (2011): *Breve historia de Euskadi: de los fueros a la autonomía*. Barcelona: Debate.

Miguel Ángel DEL ARCO BLANCO (2009): “El secreto del consenso en el régimen franquista. La cultura de la victoria, la represión y el hambre”, *Ayer*, 76 zbk., 245-268 orr.  
figuras y fisuras. España: Centro de estudios constitucionales.

Joan GAYA (1936): “Les dones al treball i els homes en atur”, *Catalunya Social*.

María GONZALEZ DE OLEAGA(2019): “¿La memoria en su sitio? El museo de la Escuela de Mecánica de la Armada”, *Kamchatka. Revista de análisis cultural*, 13 zb. 117-162 orr.

María GONZÁLEZ, Eduardo BARINAGA (2010): *No lloreis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos*. Bilbo: Tarttalo.

Félix GUATTARI, Suely ROLNIK (2006): *Micropolítica. Cartografías del deseo*. Argentina: Tinta de Limón.

Maurice HALBWACHS (1968): *La mémoire collective*. París: PUF.

Jon IRAZABAL (2003): *Otxandio Gerra Zibilean*. Bilbo: Gerediaga Elkarte.

Elizabeth JELIN (2001): “El género en la memoria”, *Los trabajos de la memoria*. Madrid: Siglo XXI.

Keith JENKINS (2017): *The Postmodern History Reader*. España: Routledge.

Koldo SERRA (2016): *Gernika*. España: Pecado Films, Travis Producciones, Sayaka Producciones Audiovisuales, Gernika The Movie, Pterodactyl Productions, Anima Pictures.

Alison LANDSBERG (2003): "Prosthetic Memory: The Ethics and Politics of Memory in an Age of Mass Culture", *Memory and Popular Film*. New York: Manchester University Press. 144-61 orr.

Abenduaren 26ko 52/2007 LEGEA, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen aldeko eskubideak aitortu, zabaldu eta neurriak ezartzen ditu..

Miren LLONA (2007): “Los otros cuerpos disciplinados. Relaciones de género y estrategias de autocontrol del cuerpo femenino (primer tercio del siglo XX)”, *Arenal 14*. liburukia, 1.zbk.

Miren LLONA (2009): *Entreverse. Teorías y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbao: EHU/UPV

Miren LLONA (2010): “Historia en obras: memorias, emociones y subjetividad”, Pilar PEREZ- FUENTES (ed) (2010): *Subjetividad, cultura material y género: diálogos con la historiografía italiana*. Bartzelona: Icaria, 157 orr.

Miren LLONA (2016): “La imagen viril de la Pasionaria. Los significados simbólicos de Dolores Ibarruri en la II República y la Guerra Civil”, *Historia y Política*, 36 zbk. Madril: Universidad Complutense de Madrid, 263-287 orr.

Pilar MAESTRO (2015): *Entre la supervivencia cotidiana y la lucha política: Las mujeres en la resistencia antifranquista (1939-1975)*. Zaragoza: Universidad de Zaragoza.

Josu MARTINEZ (2012): “Debekatuta dago ahaztea”. Santiago de Pablo eta Joxean Fernandez (koord.) (2012): *Cine y Guerra Civil en el País Vasco/Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian*. Donostia: Euskadiko Filmategia.

María Laura MARTÍN-CHIAPPE (2019): “Fosas comunes de mujeres: Narrativas de la(s) violencia(s) y lugares de dignificación”, *Kamchatka: Revista de análisis cultural*, 13 zbk., 280 orr.

MARTÍNEZ, Txaber LARREATEGI (2010): *Debekatuta dago oroitzea*. Euskal Herria: Moztu, Tentazioa, REC.

Enrique MORADIELLOS (2016): *Historia mínima de la Guerra Civil Española*. Espainia: Turner.

Mónica MORENO SECO (2005): “Republicanas y República en la Guerra Civil: encuentros y desencuentros”, *Ayer*, 60 zbk., 165-195 orr.

Mary NASH (2006): *Rojas. las Mujeres Republicanas En La Guerra Civil*. Madrid: Taurus.

Mary NASH (2015): “Vencidas, represaliadas y resistentes: las mujeres bajo el orden patriarcal franquista”, Julián CASANOVA (koord.) *40 años con Franco*. Madril: Planeta, 191 - 227 orr.

Zigor OLABARRIA (2011): *Gerra zibila Otxandion*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Antonio PIRALA (1915): *El libro de oro de las niñas*. Madril: Perlado Paez y Ca.

Sara RAMOS (2003): “La educación de la mujer durante la guerra civil en diferentes contextos geográficos rurales y urbanos”, *Sarmiento: Revista Galego-Portuguesa de Historia da Educación*.

Vasudevi REDDY (2001): *Coyneess in Early Infancy*. Portsmouth: Blackwell Publishers.



Sofia RODRÍGUEZ (2005): “Mujeres perversas. La caricaturización femenina como expresión de poder entre la guerra civil y el franquismo”, *Asparkia*, 177-198 orr.

Mikel RUEDA (2012): “Sufrir en femenino”. Santiago de Pablo eta Joxean Fernandez (koord.) (2012): *Cine y Guerra Civil en el País Vasco/Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian*. Donostia: Euskadiko Filmategia.

Mikel RUEDA: *Izarren Argia*, 0:12: 00. Min

Aintzane RINCÓN (2014): *Representaciones de género en el cine español (1939-1982)* :

Anuar SAAD SAAD (2012): “El sensacionalismo o la “insurrección” de las masas”, *Razón y palabra. Primera Revista Electrónica en América Latina Especializada en Comunicación*, 78. Zbk.

Koldo SERRA (2016): *Gernika*: 1:37:00.

Helena TABERNA (2008): *La buena nueva*, 0:58:00 min.

Helena TABERNA (2012): “La buena nueva”. Santiago de Pablo eta Joxean Fernández (koord.) (2012): *Cine y Guerra Civil en el País Vasco/Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian*. Donostia: Euskadiko Filmategia.

Sergio VALERO, Marta GARCÍA (2018): “No dejes de recordarlo tú y no dejes de recordarlo a otros. Seguir historiando la Guerra Civil española”. Valentzia: Universitat de Valencia, 11-24 orr.

Antonio VALLEJO, E.M. MARTÍNEZ(1939): “Psiquismo del Fanatismo Marxista. Investigaciones Psicológicas en Marxistas Femeninos Delincuentes”, *Revista Española de Medicina y Cirugía de Guerra*, 9. lbk., 398-413 orr.

Rosalind WILLIAMS (2004): “La sociedad red desde una perspectiva histórica”, *La sociedad red: una visión global*. Madril: Alianza Editorial.

Mercedes YUSTA (2005): “Las mujeres en la resistencia antifranquista: un estado de la cuestión”, *Arenal: Revista de historia de mujeres*, 12. Liburukia, 1. zbk.

## **ERANSKINAK**

---

### Egindako elkarrizketak

---

IZENA	ADINA	ELKARRIZKETA EGIN ZEN DATA
Leonarda Urigoitia	88 urte	2020/03/14
Nati Egia	92 urte	2020/05/31
Emilia Urigoitia	92 urte	2020/06/01
Regina Bengoa	79 urte	2020/06/09
Juan Luis Arruabarrena	82 urte	2020/06/09

### Aztertutako filmen fitxa teknikoak

---

#### **IZARREN ARGIA**

- **Proiektzio urtea:** 2010
- **Aktoreak:** Maite Arrese, Klara Badiola, Maite Bastos, Aitor Beltrán, Teresa Calo, Sara Cozar, Zorion Eguileor, Estíbaliz Gabilondo, Bárbara Goenaga, Garbiñe Iñauti.
- **Musika:** Maite Arrese, Klara Badiola, Maite Bastos, Aitor Beltrán, Teresa Calo, Sara Cozar, Zorion Eguileor, Estíbaliz Gabilondo, Bárbara Goenaga, Garbiñe Iñauti
- **Sinopsia:** Victoria, Saturraraneke kartzelara sartzen dute 1938an, bere ahizpa Sagrario eta semearekin batera. Horrela, Victoriaren pertsonaiaren bidez, pelikulak bertako kartzelan egon ziren emakumeen bizipenak berreskuratzen ditu, besteak beste ume lapurtuen gaia zein emakumeek jasan zituzten tratu txarrak azpimarratzen direlarik.

#### **GUERNICA**

- **Proiektzio urtea:** 2016
  
- **Aktoreak:** María Valverde, James D'Arcy, Jack Davenport, Burn Gorman, Ingrid García Jonsson, Álex García, Julián Villagrán, Irene Escolar.
  
- **Musika:** Fernando Velázquez.
  
- **Sinopsia:** Filmeko narrazio mota erromantikoa da. 1937an Euskal Herrian 1936ko Gerra Zibila puri-purian da. Teresa (María Valverde) neska gaztea errepublikar prentsaren zentsura bulegoko arduradunak Henry (James D'Arcy) estatubatuar kazetari gaztea ezagutuko du, Iparraldeko Frontean berriemate lanetan dabilena, argazkilaria den bere lankide Martarekin batera. Guda Zibila eta bereziki Gernikako bonbardaketa da fikziozko maitasun istorio honen eszenatoki historikoa. Gertakari historiko horiek oinarri hartuta, garaiko kazetari baten ibilbidean oinarri hartzen du filmak.

## **LA BUENA NUEVA**

- **Proiektzio urtea:** 2008
  
- **Aktoreak:** Unax Ugalde, Bárbara Goenaga, Guillermo Toledo, Joseba Apaolaza, Maribel Salas, José María Sanz "Loquillo", Gorka Aguinagalde, Klara Badiola, Magdalena Aizpurua, Iñake Irastorza, Eric Probanza, Kandido Uranga, Jabier Muguruza, Susana Abaitua, Mikel Tello eta Rodrigo Sáenz de Heredia.
  
- **Musika:** Ángel Illarramendi.
  
- **Sinopsia:** Seminariotik irten berri den apaiz gazte bat, Alzania izeneko herri sozialistara bidaltzen dute 1936-1939 urteen bitartean. Gerra Zibila hastean, falangearen aldekoak herrian sartu eta errepublikarrak errepresio mota ezberdinen bidez nola zapaltzen dituzten ikusi beharko du apaizak, eta azkenean, hauek babestearren, elizaren eta erregimenaren aurka agertuko da. Testuinguru honetan, apaizak laguntasun estu bat eraikiko du herriko maistrarekin, azkenean maitasun istorio batean bukatuko dena.